



DOKTOREGO TESIA

**IKASTEN-IKASTEA KONPETENTZIAREN GARAPENEAN
UNIBERTSITATEKO GRADUKO IRAKASLEAK MARTXAN JARTZEN DITUEN
TESTUINGURU ERRAZTATZAILEAK AZTERTZEKO TRESNA BATEN
DISEINU ETA BALIDAZIOA**



NAGORE IÑURRATEGI IRIZAR // Eskoriatza, 2018

IKASTEN-IKASTEA KONPETENTZIAREN GARAPENEAN UNIBERTSITATEKO GRADUKO
IRAKASLEAK MARTXAN JARTZEN DITUEN TESTUINGURU ERRAZTATZAILEAK AZTERTZEKO
TRESNA BATEN DISEINU ETA BALIDAZIOA

NAGORE IÑURRATEGI IRIZAR

Zuzendaria:

AGURTZANE MARTINEZ GORROTXATEGI
ALEXANDER MUELA APARICIO



Mondragon Unibertsitatean doktoregoa lortzeko egindako doktore-tesia

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Mondragon Unibertsitatea

2018ko uztaila

ESKERRAK

Ondorengo lerroetan eskerrak eman nahi nizkieke lan hau aurrera ateratzen modu batean edo bestean nire alboan egon direnei. Ikerketa lan hau burutzeko laguntza eskaini duzuen guztioi, eskerrik asko.

Alexander Muelari, ikerketa diseinu osoan zehar, baina, batez ere analisi psikometrikoetan aldamenean izan zaitudalako, asko ikasteko aukera emanaz eta disfrutatuz, gainera. Agurtzane Martinezi ibilbide osoan ezinbestekoa izan zarelako, nik neuk baino gehiago sinestu duzulako nigan.

HUHEZI fakultateari, eskainitako baliabideengatik eta ikertzeko aukera emateagatik.

Ikerketa lan honetan lagin moduan parte hartu duzuen guztioi. Mondragon Unibertsitateako HUHEZI fakultateko, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko eta Enpresagintza Fakultateko lankideei... bidea asko erraztu didazue eta bereziki HUHEZIkoei nire eskaerei berehala erantzuteagatik, behin baino gehiagotan! Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Universtat de Vic-Universitat Central de Catalunya-ko, Universidad de Lleida-ko, Universidad Politécnica de Valencia-ko eta Universitat d'Andorra-ko irakasleei galdetegia erantzuteagatik. Aditu paneleko irakasle-ikertzaileei, beraien denbora eta inplikazioagatik eta ikerketan lankidetzat balio bat dela erakusteagatik.

Lankideei, bakoitzak bere lekutik adierazitako interesagatik eta amaiera aldera sumatutako poztasunagatik. Bereziki aipatu nahiko nituzke prozesuaren tarte batean oso presente egon diren, baina, amaieran ondoan ez ditudan bi lankide. Lan honen hasieran, bidea elkarrekin hasi genuelako eta lan honetan bazuadela, eskerrik asko Maite Garcia. Nire ibilbide profesional eta pertsonalean izandako presentziagatik eta

distantzian bada ere presente zaitudalako... tesiaren inguruan izandako eztabaida eta elkarrizketengatik, erakutsitako interesagatik... eskerrik asko, Ana Usabiaga.

Ikasleei, zelan ez, irakaskuntza hobetzeko interes eta motibazioa zuek ematen didazuelako. Eskerrik asko, azken txanpan adierazitako interes eta animo guztiengatik.

Nire kuadrilari... onenak zaretelako... oso ondo jakin gabe zertan ari nintzen, interesa azaldu eta ulertu nauzuelako. Biba zuek!

Eta bukatzeko, etxekoei. Eskerrik asko Iñaki, “testuinguru erraztatzailak” eskaintzen adituena zeu zarelako. Eki eta Aiur... patxo potolo bat. Eskerrik asko zuen pazientziagatik. Aitta eta ama, eskerrik asko beti hor zaretelako, baldintzabako onarpena eta konfiantza izan dozuelako nigan. Eskerrik asko Iñigo, Igor, Elaia eta Oihana... hor zaretelako beti.

SARRERA

Ikerketa lan honek unibertsitateko irakasleek ikasten ikastearen garapenerako martxan jartzen dituzten testuinguru erraztatzaileak neurtzeko tresna bat proposatzea du helburu nagusi.

Europar, herrialde gehienek hezkuntza politikak zehazterakoan, Goi Mailako hezkuntzaren kalitatearekiko ardura nabaria da. Horren adierazgarri dira hainbat estrategia zein diseinatutako proiektuak, baina, azpimarra jarriko diogu Bolognako prozesuari. Bolognako Adierazpenarekin, 1999 urtean, eman zitzaion hasiera eta egun indarrean jarraitzen du etengabeko berrikuspenekin. Konpetentzietan oinarritutako titulazioak izan dira prozesu honek ekarritako aldaketetako bat, zeharkako konpetentzien garrantzia indartuz. Konpetentziaren definizio bakarrerako adostasun osorik lortu ez bada ere, hainbat autore (Buckingham eta Deakin, 2012; García, 2011; Jornet-Meliá, García-Bellido eta González-Such, 2012) bat datoz ondoko ezaugarriekin: konpetentziek izaera integratzailea dute eta konpetentzien garapenak testuinguru konplexu eta errealetan ekitea eskatzen du.

Hizpide dugun unibertsitate markoan, ikasleek garapen osoa lortzeko zein egungo gizarteak aurkezten dituen beharrei erantzuteko, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta ikaskuntzarako autonomia bi gako dira. Eszenatoki berriak aurkezten dira eta ziurgabetasuna da eszenatoki hauen ezaugarrietako bat. Testuinguru honetan, aipatutako helburuak lortze bidean, ikasten ikastea konpetentzia oinarritzko konpetentzia bat da (Bolivar, 2009; Gargallo, 2012; Villardón eta Yániz, 2011). Izan ere, norbanakoaren autonomia, pentsamendu kritikoa eta ikaskuntza prozesuaren hausnarketari bide ematen baitio (Escamilla, 2015; Zimmerman, 2008).

Aldaketa hauek unibertsitateari eskatu diote formazio eskaintzan aldaketak txertatzea (Bolívar, 2008) eta irakasleari aldaketa hauen aurrean birkokatzea. Irakaslearen perfil berri batez hitz egin izan da prozesuaren hasieratik, ezagutza transmititzen duen irakasle batetik ikaslearen garapen pertsonal eta profesionala erraztuko duten testuinguruak eskaintzen dituen irakasle batera.

Bestalde, hainbat ikerketek aipatzen dute ikasleak ikaskuntzari aurre egiterakoan, eraiki duten ikaskuntza ikuspegia baldintzatzailea izango dela ikaskuntza emaitzetan eragina izanik (Gargallo, Garfella eta Pérez, 2006; Martín eta Moreno, 2007; Prosser eta Trigwell, 1993). Ikaskuntza ikuspegia testuinguruarekin elkarrekintzan eraikitzen da, beraz, ez da ikaslearen ezaugarri propio bat ezta ere konstruktua aldagaitz bat (Herrmann, Bager-Elsborg eta McCune, 2017). Beraz, zeintzuk dira ikasten ikastea konpetentziaren garapenean eragiten duten aldagaiak? zein da irakasleek egin behar duten lana aldagai horiekin sakoneko ikaskuntza bat errazten duen testuinguru bat eskaintzeko? Gisa honetako galderak erantzuteko, fidagarriak eta baliozkoak diren neurketa tresnak izatea ezinbestekoa da.

Esku artean dugun gaiaren inguruko ekarpen teoriko eta enpirikoak aztertu ondoren (adibidez, Coll, Mauri eta Rochera, 2012; Escamilla, 2015; Gargallo, 2012; Hargreaves, 2005; Jornet, García eta González, 2012; Muñoz-San Roke eta beste batzuk, 2016; Pérez-Gómez eta Pérez-Granados, 2013; Villardón eta beste batzuk, 2013), lan honetan aurkeztuko dugun galdetegia sortzeko adostasun nahikoa aurkitu dugu. Lehenik eta behin, gorputz teorikotik abiatuta, 7 faktoretan (Laguntza mota, Meta-kognizioa, Prestutasun emozionala, Harremanak, Metodologia, Ebaluazioa eta Irakaslearen konpromisoa) multzokatutako item bateria (n=86) proposatu dugu

Jarraian, Delphi metodoa erabilita, itemak baloratzeko eskatu diegu gaien adituak diren hainbat kideri (Olaz-Capitán, 2010). Balorazio hori burutzeko bi talde

osatu dira: alde batetik, Lan taldea (ikerketa taldeko kideak osatuta; n=5) eta bestetik, Aritu Panela (Estatu Espainiarreko zein Hegoamerikatarako hainbat unibertsitatetako irakasle eta ikerlariek osatuta; n=15).

Arituei kontsulta egin ostean, hainbat item aldatu dira eta 18 baztertuak izan dira. Nahasgarriak suertatu diren eta puntuazio baxua lortu duten itemak izan dira baztertu direnak. Nahasgarriak izanik ere, puntuazio altuak lortu dituzten itemak izan dira aldatu direnak. Ondorioz, galdetegiaren 7 faktoretan multzokatutako 68 itemek osatu dute.

Ondoren, galdetegiaren erabilera prozedura zehaztu da eta hainbat elkarrizketa kognitibo burutu dira (Smith eta Molina, 2011). Elkarrizketa kognitiboa galdetegiaren erantzuterakoan ematen den erantzun prozesua aztertu edo neurtzeko balidazio teknika bat da. Irakasle talde heterogeneo batekin 10 elkarrizketa kognitibo burutu dira galdetegiaren zalantzak edo gaizki ulertu semantikoak dituen aztertzeko. Galdetegiaren osatzerakoan, ahozgora pentsamendua partekatzeko eskatu zaie eta interesgarriak irudituz zaizkigun galderak burutu ditugu osagarri gisa. Galdetegiaren erantzuterakoan, arazoren bat balego identifikatzea da helburua (Willis, 2005). Erantzuterakoan, argibideak behar dituzten itemak moldatu dira elkarrizketen ostean.

Jarraian, unibertsitateko 50 irakasleek osatutako lagin adierazgarri bati froga pilotu bat burutu da. Itemen erantzun joeraren azterketa, banaketan oinarritutako indizeak azterketa (bataz besteko aritmetikoa, desbiderapen tipikoa, asimetria eta kurtosia) eta homogeneotasun edo bereizmen-indizearen (r_iX) bidez, galdetegiaren osatzen duten item bakoitzaren eta galdetegiaren arteko harremana azterketa burutu dira. Homogeneotasun indizearen irizpidean oinarrituta 1, 23, 49 eta 63 itemak baztertu dira.

64 itemekin osatutako bertsiorekin eta galdetegiaren dimentsionaltasuna ezagutzeko, faktore-analisi esploratzailea (aurrerantzean FAE) burutu da. Eginiko

analisien ondorioz, osatutako bertsioa 4 faktoretan bildutako 43 itemek osatzen dute. Marko teorikoarekin bat datozen faktore berriak Ikasleekiko zein lanbidearekiko konpromisoa, Giro segurua, Metodologia eta Auto-erregulazioa dira.

FAE-an lortutako 4 faktoreen egituraren egokitasuna frogatzeko, berrezpenezko faktore-analisia (hemendik aurrera, BFA) egin da. Egindako analisiek FAE-an proposatutako lau faktoreak berresten ditu, baina, item batzuk baztertuta, 39 itemek osatutako bertsio berria osatu da.

Fidagarritasun azterketei dagokionean, barne tinkotasuna eta denbora-egonkortasuna aztertu dira. Baita bietan ere, jasotako emaitzek galdetegiaren fidagarritasuna agerian uzten dute. Itemen barne tinkotasunari dagokionean, bereizmenkoefizientearen bidez (r_iX) aztertu da. Azterketako datuak kontutan izanik galdetegiko itemek r_iX oso ona eta ona adierazi dute. Denbora-egonkortasuna kontutan harturik, birtest korrelazioek 0,63 baino handiagoak diren balioak azaldu dituzte faktore guztietan, beraz, bi denbora desberdinetan jasotako neurrien artean komunztadura dago.

Bestalde, beste aldagai batzuekiko harremanean oinarritutako ebidentziak bildu dira hurrengo azterketan. Ebidentzia diskriminatzaileari dagokionean, adinaren, sexuaren, irakasle moduan antzintasunaren eta, ikasten ikastearekiko estrategia zehatzekin lotuta, erakundean egiten den lanaren araberako desberdintasunak aztertu dira. Adinaren eta irakasle moduan antzintasunaren araberako desberdintasunei dagokionean, ez dago desberdintasun esanguratsurik. Sexuaren araberako desberdintasunak aztertu direnean, emaitzak aditzera ematen dute desberdintasun esanguratsuak daudela, baina, batz besteko desberdintasunarekin lotutako efektuaren tamaina urria izan da. Ikasten ikastearekiko estrategia zehatzekin lotuta, erakundean egiten den lanaren araberako desberdintasunak aztertuta, estatistikoki esanguratsua den desberdintasuna dago ikasten ikastearen garapena errazten duen testuinguruen

eskaintzan. Ikasten ikastearekiko estrategia zehatzak martxan jartzen dituzten erakundeetako irakasleen puntuazioak altuagoak izan dira. Ebidentzia konbergentearen azterketa egiteko, Approaches to Teaching Inventory (S-ATI-20) galdetegiaren gaztelerazko bertsioan ateratako puntuazioetan aurreikusi daitezkeen harremanak aztertu ditugu, zehatzago esateko S-ATI-20 galdetegiaren faktore batekiko harremanak aztertu ditugu. Bi frogen arteko puntuazioen arteko Pearson-en korrelazio koefizientea 0,641, $p < 0,01$ izan da. Beraz, ezaugarri bereko neurri konbergenteak lortu ditugu.

Bukatzeko, puntuazioen baremazioa burutu dugu talde normatiboa osatzen duten pertsonen ateratzen dituzten puntuazioak kontutan izanik, puntuazioen posizioa adierazteko. Era berean, galdetegiaren azken bertsioa osatu dugu, bere fitxa teknikoarekin zein erabilera, interpretazio eta instrukzioekin.

LABURPENA

Goi Mailako Hezkuntza Esparruan ikasten ikastea konpetentziaren garapenerako testuinguru erraztatzaileen neurketarako tresna zientifikoak eskura izateak unibertsitateko irakaskuntzaren eskaintzari ekarpen interesgarria egin diezaioke. Egun aurkitu ditzakegun tresnen errebisioa egin ostean aipatutako helbururako aproposa denik ez dugu aurkitu. Beraz, lan honetan galdetegiaren sorkuntzan jarraitutako prozesua aurkezten da. Froga psikometrikoen sorkuntza gidatzen duten nazioartean ezarrita dauden estandarrak jarraituta hainbat teknika erabili dira prozesuan.

Having scientific tools to measure facilitating contexts in the development of the learning to learn competence in the European Higher Education Area can be an interesting contribution for university teaching. After examining the available tools, we did not find any suitable for the measurement of the aforementioned variable. This paper presents the process followed in the creation of a questionnaire, using different techniques, which follow international standards that rule the creation of psychometric tests.

Disponer de herramientas científicas para medir los contextos facilitadores en el desarrollo de la competencia aprender a aprender en el Espacio Europeo de Educación Superior puede ser una aportación interesante para la docencia universitaria. Tras realizar un examen de las herramientas disponibles no hemos encontrado ninguna adecuada para la medición de la variable mencionada. En este trabajo se presenta el proceso de nueva creación de un cuestionario utilizando diversas técnicas siguiendo los estándares internacionales que rigen la creación de pruebas psicométricas.

AURKIBIDEA

IKERKETAREN OINARRI TEORIKOA	6
1.GOI-MAILAKO HEZKUNTZA ESPARRUA. OINARRIZKO ZERTZELADA BATZUK.....	7
1.1. Goi-mailako hezkuntza Europako markoan	7
1.2. Legedia Estatu Espainiarrean	14
1.3. Kalitatea Goi-mailako Hezkuntza Esparruan.....	15
1.4. Erreformaren hezkuntza ondorioak.....	19
1.5. Laburbilduz	21
2.ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO IKASTEN IKASTE.....	22
2.1. Sarrera	22
2.2. Ikaste prozesua	24
2.2.1. Ikaskuntzaren hautematea	26
2.2.2. Ikaskuntza ikuspegiak	28
2.3. Ikasten ikastea kompetentzia.....	31
2.4. Laburbilduz	35
3.IKASTEN-IKASTEAREN GARAPENA: ERAGINA DUTEN ELEMENTU GAKOAK	36
3.1. Sarrera	36
3.2. Gako, aldagai, elementuak	37
3.2.1. Autonomia.....	41
3.2.2. Metakognizioa.....	43
3.2.3. Ikasten ikastearen dimentsio anitzak: kognitibo, afektibo eta soziala.....	46
3.2.4. Ezagutzaren eraikuntza	54
3.2.5. Ezagutzaren transferentzia	55
3.2.6. Auto-eraginkortasuna	55
3.2.7. Irakaste ekintzan eragiten duten aldagaiak.....	58
3.3. Laburbilduz	89
4.IKASTEN IKASTEAREN KONPETENTZIAREN GARAPENEAN ERAGINA DUTEN TESTUINGURU ERRAZTATZAILEEN TRESNEN EBALUAZIOA.....	92
4.1. Tresnen aurkezpena.....	92
4.2. Tresna hautatuen azterketa sakona	103
4.3. Laburbilduz	104

IKERKETAREN ATAL ENPIRIKOA.....	105
5.IKERKETA METODOLOGIA.....	106
5.1. Lan honen garrantzia.....	110
5.2. Helburu eta hipotesiak.....	110
5.3. Ikerketa plangintza.....	112
5.3.1. 1. Fasea.....	112
5.3.2. 2. Fasea.....	112
5.3.3. 3. Fasea.....	112
5.3.4. Ezaugarri orokorrak.....	113
6.TRESNAREN ERAIKUNTZA ETA BALIDAZIO FASEAK.....	117
6.1. I. fasea: marko teorikotik eratorritako galdetegiaren lehen proposamena.....	117
6.1.1. Faktoreen definizioa eta item bateria (1. proposamena)	117
6.1.2. Marko teorikoaren errebisiotik eginiko lana	117
6.1.3. Barne aditu taldearekin 1. kontsulta	133
6.1.4. Tresnaren lehen proposamena	136
6.2. II. fasea: Galdetegiaren edukia eta betetzerakoan jarraitzen den prozesua aztertzen	141
6.2.1. Kanpo aditu taldearekin kontsulta. Delphi aditu taldea.....	141
6.2.2. Barne aditu taldearekin 2. kontsulta.	143
6.2.3. Elkarrizketa kognitiboak	145
6.2.4. Ondorioak eta tresnaren bigarren proposamena	147
6.3. III. fasea: Analisi psikometrikoak	151
6.3.1. Lehenengo azterketa: itemen analisisa.....	151
6.3.2. Bigarren azterketa: Galdetegiaren dimentsionaltasunaren azterketa faktore-analisi esploratzailea (FAE) bidez.	168
6.3.3. Hirugarren azterketa: galdetegiaren dimentsionaltasunaren azterketa berrezpenezko faktore-analisisa.....	195
6.3.4. Laugarren azterketa: CAAREN fidagarritasun azterketa.....	209
6.3.5. Bosgarren azterketa: Beste aldagai batzuekiko harremanean oinarritutako ebidentziak	223
6.3.6. Seigarren azterketa: puntuazioen baremazioa eta interpretazioa.....	237
ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	264
7.ONDORIOAK, INDAR-GUNE ZEIN HOBETZEKOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK.....	265
7.1. Azken ondorioak	265
7.2. Ikerketaren mugak eta aurrera begirakoak	270
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	272

Taulen aurkibidea

1. Taula: <i>Konpetentzia orokorrak unibertsitatean.</i>	8
2. Taula: <i>ESG: kalitatea ziurtatzeko irizpideak.</i>	17
3. Taula: <i>Ikastea: korrante teorikoak eta auto-erregulazio eta ikasten ikastearekiko ikuspuntua.</i>	33
4. Taula: <i>Ikaste estrategien sailkapena autore desberdinen arabera.</i>	54
5. Taula: <i>Irakaskuntza ebaluazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	93
6. Taula: <i>Ikaskuntza ikuspegiekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	94
7. Taula: <i>Motibazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	95
8. Taula: <i>Ikaste estrategia eta motibazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	96
9. Taula: <i>Ikaste estrategiekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	97
10. Taula: <i>Auto-erregulazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.</i>	98
11. Taula: <i>Ikasleei zuzendutako galdetegiak, aldagai desberdinekin lotutakoak</i>	100
12. Taula: <i>Irakaskuntza hautemateekin lotutako eta irakasleei zuzendutako galdetegiak</i>	101
13. Taula: <i>Irakaskuntza ikuspegiekin lotutako eta irakasleei zuzendutako galdetegiak</i>	102
14. Taula: <i>Irakaskuntzarekin loturiko eta irakasleei zuzendutako galdetegiak: hainbat aldagai.</i>	103
15. Taula: <i>Balioetasun ebidentziak.</i>	109
16. Taula: <i>Barne aditu taldeen ekarpenak eta erabakiak</i>	134
17. Taula: <i>Galdetegiaren lehen bertsioa</i>	136
18. Taula: <i>Kontsultarako itemak.</i>	144
19. Taula: <i>Kanpo zein barne adituekin kontsulta egin ondoren item kopuruak</i>	145
20. Taula: <i>Galdetegiaren bigarren bertsioko itemak</i>	148
21. Taula: <i>Itemen banaketan oinarritutako indizeak, itemekiko erantzun joera, aldagai</i> <i>bakarreko normaltasuna eta homogeneotasun indizea</i>	158
22. Taula: <i>Galdetegiaren hirugarren bertsioko itemak</i>	165
23. Taula: <i>Bigarren azterketako laginaren banaketa ikasle kopuruaren arabera</i>	172
24. Taula: <i>Ereduaren doikuntzaren egokitasunerako indizeak</i>	174
25. Taula: <i>CAAren dimentsioak, osatzen dituzten itemak eta faktoreekiko kargak</i>	175
26. Taula: <i>Bigarren azterketa: itemen banaketan oinarritutako indizeak, itemei emandako</i> <i>erantzun joera, aldagai bakarreko normaltasuna eta homogeneotasun indizea.</i>	180
27. Taula: <i>Hirugarren azterketako laginaren banaketa ikasle kopuruaren arabera</i>	200
28. Taula: <i>CAAren dimentsioak, osatzen dituzten itemak eta faktoreekiko kargak</i>	201
29. Taula: <i>Galdetegiaren seigarren bertsioa osatzen duten itemak hasierako zenbakikuntzan</i>	206
30. Taula: <i>Aldagai bakarreko estatistiko deskribatzaileak</i>	211
31. Taula: <i>Korrelazio polikorikoen matrizea</i>	215
32. Taula: <i>Neurketa ereduaren emaitza nagusiak</i>	216
33. Taula: <i>Itemen deskribatzaileak, gaitasun bereizlea eta eskalaren barne trinkotasuna</i>	218
34. Taula: <i>Denboran duen egonkortasuna kalkulatzeko faktoreen arteko korrelazioak</i>	222
35. Taula: <i>Laginaren banaketa adin tartearen arabera</i>	224
36. Taula: <i>Laginaren banaketa sexuaren arabera</i>	225
37. Taula: <i>Laginaren banaketa lan esperientziaren arabera</i>	226
38. Taula: <i>Bosgarren azterketako laginaren banaketa fakultate eta sexuaren arabera</i>	228
39. Taula: <i>Laginaren banaketa adin tartearen arabera</i>	228
40. Taula: <i>Laginaren banaketa buruturiko ikasketa mailaren arabera</i>	229
41. Taula: <i>Laginaren banaketa ikasle kopuruaren arabera</i>	230

42. Taula: <i>Laginaren banaketa antzinatasunaren arabera</i>	230
43. Taula: <i>CAA galdetegian zein ikasten ikastearen garapena errazten duten testuinguruak neurtzen dituzten dimentsioetako bataz besteko puntuazioak eta desbideratze tipikoa</i>	231
44. Taula: <i>Laginaren banaketa adin tartearen arabera</i>	234
45. Taula: <i>Laginaren banaketa buruturiko ikasketa mailaren arabera</i>	235
46. Taula: <i>Laginaren banaketa ikasle kopuruaren arabera</i>	236
47. Taula: <i>Laginaren banaketa antzinatasunaren arabera</i>	236
48. Taula: <i>CAA eta CCCE-ren arteko korrelazioak</i>	237
49. Taula: <i>Pertzentilak eta hein kualitatiboen arteko korrespondentzia</i>	248
50. Taula: <i>T puntuazioak eta perfil kualitatiboak</i>	248
51. Taula: <i>Pertzentila, hein kualitatiboa, perfil kualitatiboak eta T puntuazioa</i>	249
52. Taula: <i>Baremazioa: Puntuazio osoen taula normatiboa</i>	250
53. Taula: <i>Baremazioa: 1. faktorearen taula normatiboa</i>	253
54. Taula: <i>Baremazioa: 2. faktorearen taula normatiboa</i>	255
55. Taula: <i>Baremazioa: 3. faktorearen taula normatiboa</i>	257
56. Taula: <i>Baremazioa: 4. faktorearen taula normatiboa</i>	259
57. Taula: <i>A subjektuaren emaitzak. Adibidea</i>	261
58. Taula: <i>B subjektuaren emaitzak. Adibidea</i>	262

Irudien aurkibidea

1. <i>irudia: Ikaskuntza hautemateak</i>	27
2. <i>irudia: Ikasten-ikastea: aldagai eta kontzeptuen arteko loturak</i>	41
3. <i>irudia: Irakaskuntza hautemateen kategoriak</i>	65
4. <i>irudia: Aditu panelek itemei emandako puntuazioen bataz bestekoak</i>	143
5. <i>irudia: Lehenengo azterketako laginaren banaketa sexuaren arabera</i>	152
6. <i>irudia: Lehenengo azteketako laginaren banaketa adinaren arabera</i>	153
7. <i>irudia: Lehenengo azteketako laginaren banaketaburuturiko ikasketa mailaren arabera</i>	153
8. <i>irudia: Lehenengo azteketako laginaren banaketa irakaskuntza jarduten diren tituluaren arabera</i>	154
9. <i>irudia: lehenengo azteketako laginaren banaketa unibertsitatean irakasle lanean duen antzinatasunaren arabera</i>	155
10. <i>irudia: Bigarren azteketako laginaren banaketa sexuaren arabera</i>	169
11. <i>irudia: Bigarren azteketako laginaren banaketa adin tartearen arabera</i>	170
12. <i>irudia: Bigarren azteketako laginaren banaketa buruturiko ikasketa mailaren arabera</i>	170
13. <i>irudia: Bigarren azteketako laginaren banaketa irakaskuntza jarduten diren tituluaren arabera</i>	171
14. <i>irudia: Bigarren azteketako laginaren banaketa unibertsitatean irakasle lanean duen antzinatasunaren arabera</i>	172
15. <i>irudia: Hirugarren azterketako laginaren banaketa sexuaren arabera</i>	197
16. <i>irudia: Hirugarren azteketako laginaren banaketa adin tartearen arabera</i>	197
17. <i>irudia: Hirugarren azteketako laginaren banaketa buruturiko ikasketa mailaren arabera</i>	198
18. <i>irudia: Hirugarren azteketako laginaren banaketa irakaskuntza jarduten diren tituluaren arabera</i>	199
19. <i>irudia: Hirugarren azteketako laginaren banaketa unibertsitatean irakasle lanean duen antzinatasunaren arabera</i>	200
20. <i>irudia: Berreztuzko faktore-analisia eredu erresultantea</i>	205
21. <i>irudia: Bosgarren azterketako laginaren banaketa sexuaren arabera</i>	234

22. <i>irudia</i> : Puntuazio osoen puntuazio banaketa.....	252
23. <i>irudia</i> : Puntuazio eta zentilen mailen arteko harreman.....	252
24. <i>irudia</i> : Puntuazio banaketa.....	254
25. <i>irudia</i> : Puntuazio eta zentilen barrutien arteko harremana	254
26. <i>irudia</i> : Puntuazio banaketa.....	256
27. <i>irudia</i> : Puntuazio eta zentilen barrutien arteko harremana	256
28. <i>irudia</i> : Puntuazio banaketa.....	258
29. <i>irudia</i> : Puntuazio eta zentilen barrutien arteko harremana.....	258
30. <i>irudia</i> : Puntuazio banaketa.....	260
31. <i>irudian</i> : Puntuazio eta zentilen barrutien arteko harremana	260
32. <i>irudia</i> : T puntuazioen banaketa galdetegi osoan zein faktoreka A adibidean.....	261
33. <i>irudia</i> : T puntuazioen banaketa galdetegi osoan zein faktoreka B adibidean.....	263

1. atala

Ikerketaren oinarri teorikoa

GOI-MAILAKO HEZKUNTZA ESPARRUA. OINARRIZKO ZERTZELADA BATZUK

1.1. Goi-mailako hezkuntza Europako markoan

Egun, unibertsitatea irisgarriagoa da, elite edo talde batzuentzako pribilegio izatetik, guztion eskura dagoen esparru bihurtu da. Europako gobernuek lehentasunen artean ezarri dute hezkuntza hobetzea, eta ondorioz, hainbat proiektu bultzatu eta diruz lagunduak izan dira. Anitzak dira azken urte hauetan martxan jarritako erreforma zein estrategiak, baina, azpimarragarriena Bolognako prozesua da.

1998. urtean Sorbonako deklarazioan goi-mailako hezkuntza esparruaren beharra jaso zen eta 1999. urtean Bolognako deklarazioarekin bat egin zuten hogeita bederatzi estatuk eta Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparruaren (EGHE hemendik aurrera) oinarriak ezarri zituzten. Oinarri hauek kalitate, mugikortasun, aniztasun eta lehiakortasun printzipioen arabera antolatu ziren eta bi helburu estrategikoren lorpenera begira zehaztu ziren. Alde batetik, Europar Batasunean enpleguak sortzea, eta, bestetik munduko beste ikasle eta ikertzaileak erakartzeko Europako goi-mailako formakuntzaren konbertsioa ematea. 2010. urtea jarri zen data muga EGHEren ezarpenerako. Bere sorreratik maiztasun zehatz batekin ebaluatua izan da eta hezkuntzarako egiturak ere sortu izan ditu. 2000. urtean Tunning proiektua martxan jarri zen. Proiektu hau Europako unibertsitate talde batek eraman zuen aurrera eta Bolognak ezarritako hainbat ekintza burutzeko ardura izan zuen. Bereziki, titulazioak erraz aitortu eta antolatzen lagunduko duen sistema bat sortzea izan zen beraien egitekoa. Tartean, diziplina bakoitzeko kompetentzia orokor eta espezifikoen erreferentziak argitzen zituzten prozesuak proposatu zituen talde honek. Tunning proiektuaren baitan, 2002an kompetentzia orokor eta espezifikoak zehazten dira. Izan ere, EGHE kompetentzietan oinarritutako esparru moduan aurkeztu zen. Europako markoak kompetentziak testuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarreraren arteko konbinazioa direla

esaten du. Tunning proiektua berrartuz, bertan proposatu ziren konpetentziak erreferentzia izan ziren ikasketa planak osatzeko. Malgutasunez proposatuak izan ziren eta hizkuntza bateratzeko helburuarekin. Argitze aldera, konpetentzia espezifikoak lanbideari erreferentzia egiten diotenak eta ondorioz, gradu bakoitzak berezkoak izango dituenak dira. Zeharkako konpetentziak edo konpetentzia orokorrak, aldiz, edozein gradu eginda ere lortu beharreko konpetentziak dira (Rychen eta Salganik, 2006). Hiru irizpide gakoren araberrakoak dira. Alde batetik, ekarpena egin behar dute bai maila pertsonal zein sozialean. Bestetik, testuinguru aniztetan aplikagarriak izan behar dira. Azkenik, bizitzan gerta daitezkeen egoera konplexuei aurre egiteko garrantzitsuak dira.

1. Taulan ikus dezakegu Hué-k (2008) bere lanean aurkeztutako proposamena.

1. Taula:

Konpetentzia orokorrak unibertsitatean.

KONPETENTZIA OROKORRAK	ZEHARKAKO KONPETENTZIAK
INSTRUMENTALAK	Analisi eta sintesi gaitasuna Antolatze eta planifikatzeko gaitasuna Atzerriko hizkuntza baten ezagutza Ezagutza informatikoak Arazoen ebazpena Erabakiak hartzea
PERTSONALAK	Talde lana Diziplinarteko izaerako talde lana Nazioarteko testuinguruetan lana Pertsonen arteko harremanetako gaitasuna Aniztasun eta kultura-aniztasunaren aitortza Pentsamendu kritikoa Konpromiso etikoa
SISTEMIKOAK	Ikaskuntza autonomoa. IKASTEN IKASTE Egoera berrietara egokitzea Sormena Lidergo Beste kultura eta ohituren ezagutza Ekimena eta ekintzailetasuna Kalitatearekiko motibazioa Ingurugiro gaiekiko sentikortasuna

Oharra: "Competencias genéricas y transversales de los estudiantes universitarios" Hué C., 2008, ICE de la Universidad Zaragoza-tik jasoa.

Kompetentzia orokor hauek oinarrian dituzte Europako Batzordeak derrigorrezko hezkuntzarako proposatzen dituen oinarrizko kompetentziak. Pertsona guztiok garapen eta errealizazio pertsonalerako beharrezko ditugunak dira eta ezinbestekotzat jotzen dira ezagutzaren jendartean. Zortzi oinarrizko kompetentzia ezartzen ditu erreferentzia markoak eta ikasten ikastea nabarmentzen da (Eurydice, 2002). 2006ko abenduaren 18ko Europako parlamentuaren eta kontseiluaren etengabeko ikaskuntzarako oinarrizko kompetentzien inguruko gomendioan jasotzen dira oinarrizko kompetentzia horiek.

Gomendio honetan etengabeko ikaskuntza programa edo estrategia pertsonaren bizitzako edozein momentutan aukerak eskaintzeko sortu zela gogorarazten da. Era berean, horren aldakorra den egungo errealitateari aurre egiteko pertsonok egokitzeko eta aurrera egiteko gaitasun anitzak behar ditugula nabarmentzen da.

Etengabeko ikaskuntza da kompetentzien ereduak ekarri duen kontzeptu bat eta ikasleen garapena testuinguru zabal batean kokatzen du. Estevek (2003) bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaz hitz egiterakoan subjektuak informazioa erabiltzeko gaitasuna ezinbestekoa izan behar duela esaten digu. Ez hori bakarrik, ezagutza erabili, eguneratu, testuinguru konkretu baterako egokia dena hautatu, etengabe ikasten egotea eta ikasten dena ulertzea ezinbestekotzat jotzen ditu, etengabe eta modu bizkorrean aldatzen diren egoera berrietara egokitu ahal izateko.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza edo etengabeko ikaskuntza aipatzen da, eta kontzeptua lehenengoz 1995. urtean azaltzen da Teaching and Learning Towards a Learning Society, Europako Batzordearen liburu zurian (Muñoz-San Roque, Martín-Alonso, Prieto-Navarro eta Uros-Sanz, 2016). Egun oso hedatua dago etengabeko ikaskuntza edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntza kontzeptua eta kompetentzien garapenekin erabat lotuta dator. Definizio desberdinak daude kontzeptu honen inguruan, eta lan honetarako hainbat autoreren (Bolívar, 2009b; Kumar, 2004; Lee, 2014; Smith

eta Spurling, 1999) ekarpenak barnebiltzen dituen definizioa osatu da. Autore guztiak bat datoz esaterakoan bizitza osoan ematen den ikaskuntza dela, baita, hezkuntza formala eta ez-formala kontutan hartu behar direla. Bolívar-ek (2009b) guztion behar eta eskubidea dela aipatzen du eta ikaskuntza indartzen du. Lee-k (2014) jendartean eragiteko ahalmena aipatzen du.

Bizitza osoan zehar zabaltzen den ikaskuntza prozesu bat da. Ikaskuntza iraunkorraz gain, erakundetik at gertatzen diren ikaskuntzak ere barnebiltzen dituen kontzeptua da. Heziketa eta ikaskuntzaren arteko bereizketa argiena da. Indarra ikaskuntzan jartzen da, irakaskuntzan jarri beharrean, subjektuak nahita burutzen du eta estrategia pertsonala eskatzen du. Helburua, besteak beste, ikaskuntza hobetzea, ikaskuntza aukerak sortzea, ikaskuntza jendarte bat sortzea litzateke. Guztion behar eta eskubide bat da.

Unibertsitateari ere badagokio ikaslea bizitza osoan zeharreko formazioan gaitzea, ikaslea baldintza hoberenetan kokatuko duen ikaskuntza eskaintzea, bizitza guztian ikasten jarraitzeko (Villardón eta Yániz, 2011). Unibertsitatean ikasteko prestatu behar da ikaslea, bizitzan zehar modu jarraian ikasteko beharrezko diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak bermatzea eskatzen du honek (Villardón, Yániz, Achurra, Iraurgi eta Aguilar, 2013).

Bolognako prozesuaren ibilbide kronologikoa berrartuz, 2015ean berrogeita zortzi herrialdetan martxan zegoen prozesua eta Europako Batzordearekin batera Bolognako prozesuaren kideak dira (Europako Batzordea/EACEA/Eurydice, 2015). Europar Batasunak prozesuaren inguruan hainbat gako aipatu izan ditu (Europako Batzordea/EACEA/Eurydice, 2015) eta jarraian datoz 2015ean azaldutakoak, proposatu diren ildoak eta bilatu diren helburuak ikusteko:

- Titulu akademikoak erraz alderatu eta errekonozitu daitezken sistema bat

eratzea; ikasle, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzea; eta, kalitatezko ikaskuntza eta irakaskuntza bermatzea du xede prozesu honek.

- Prozesuan arlo gako gisa identifikatuta daude: ikaskuntza iraunkorra, enplegarritasuna, finantziarioa, titulazioen egitura, nazioartera irekitzea eta kalitatea bermatzea.
- Prozesua ez da inposatua gobernu zein unibertsitateei. Gobernuen arteko konpromiso eta borondatezko jarrera bat da, gobernu bakoitzak hartua norbanakoaren hezkuntza sistema hobetzeko helburuarekin.

Aurrez esan bezala, Bolognako prozesua bere sorreratik maiztasun zehatzarekin ebaluatua izan da. Aipatutako txostena kontuan izanik, lan honetarako esanguratsuak diren urte hauetako helburuen lorpen maila edo lorpenaren inguruko balorazioa zein aurrera begirako erronkak hauek dira (Europako Batzordea/EACEA/Eurydice, 2015 txostenean luze eta sakon aztertzen dira aldagai desberdinak).

Alde batetik, curriculumaren garapenerako ikaskuntza emaitzen erabilera gora egin du, beraz, Europako markoak bilatzen zuen hastapeneko aldaketa hainbat herrialdetan eman da. Hala ere, ebaluazioak adierazi du ikaste emaitzen erabilera ez dagoela horren hedatua. Honenbestez, lan lerroa oraindik irekita dago.

Beste alde batetik, herrialdeen artean desberdintasun handiak daude ikaskuntzan oinarritutako ereduarekiko urratsetan. Eredua ezartzeko lanetan dabilten herrialdeetan azaltzen diren muga aipagarrienak ikasleek ebaluazioaren inguruan duten igurikapena eta ematen dioten balioa eta ikaskuntza autonomoaren garapena eta ikaste emaitzen erabilera dira.

Hirugarrenik, EGHEak unibertsitateko ikasle kopuruarekin lotuta jarritako helburua dago. Goi-mailako ikasketak lortu dituzten ikasle kopuruak gora egin du EGHEaren baitan, nahiz eta oraindik asko diren titulua lortu gabe ikasketak bertan

behera uzten dutenak.

Bukatzeko, enplegarritasunari dagokionez, aurreikuspenekiko emaitzak negatiboak izan dira, langabezia tasak gora egin du nabarmen krisi ekonomikoaren ondorioz.

Bolognako prozesua Europako Batzordearen Europa 2020 estrategiarekin lerrokatzen da, lanpostuak sortzeko eta hasteko. 2017ko abenduan Europako Batzordeko Egunkari Ofizialean jasotzen dira Europar Batzordeko Kontseiluaren ondorioak. Bertan, Goi-mailako Hezkuntzarako agenda berri bat aurkezten du eta Europar Batzordeko kide diren herrialdeak ondorengo lehentasunezko eremuetan arreta jartzera bultzatzen ditu. Besteak beste, hauek dira aipatzen diren eremuak (Europako Batzordeko Kontseilua, 2017):

- Prestakuntzen garapenean bikaintasunera jotzea: ikasle guztiak jendartean arduraz eta hiritar aktibo gisa jokatzeko hobeto prestatuak egon daitezen talentu eta potentziala bultzatzea, lan merkatuan zein etengabeko prestakuntzan parte-hartzea bultzatzea; prestakuntza gabeziari edota prestakuntzaren desegokitasunari aurre egitea; tokiko komunitateekin harreman sendoagoak eraikitzea; goi-mailako hezkuntza erakundeen planteamendu berritzaileetan murgiltzea, bereziki formakuntza digitala kontuan hartuz.
- Ikasle multzo anitzaren beharrei erantzutea: ekitatea bilatzea, ikasle guztientzat arrakasta eta kalitate altuko eskaintza ziurtatzea; goi-mailako hezkuntza eskaintza bizitzako edozein etapatan dagoen edozeini irekitzea; irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntzari arreta jartzea; bikaintasuna eta berrikuntza aitortzea
- Ekonomia orokorraren berrikuntzari ekarpenak egitea: Goi-mailako hezkuntza erakundeak sektore desberdinetako erakundeekin sareak eraikitzeko

laguntza ematea; transferentzia helburu duten lan akademikoak bultzatzea; sorkuntza eta ekintzailetasuna bultzatzen dituzten hezkuntza erakundeak laguntzea.

- Goi-mailako Hezkuntza sistemaren eraginkortasuna bultzatzea eta kalitate bermea maila altuago batean garatzea.

Prozesu honetan, baina, hainbat dira sortutako eztabaida eta gorabeherak (Bolívar, 2008; Díaz, 2006; Escudero, 2007; Fernández, 2006; Zabalza, 2006). Orokorrean, unibertsitateak eguneratzeko, jardun pedagogikoa astintzeko eta hezkuntza eskaintza hobetzeko aukera moduan ikusi da prozesua gure unibertsitateetan (Goñi, 2005; Hinojosa, Barrero, Romero eta Crisol, 2010; Morales, 2008; Zabalza, 2006).

Arestian aipatu dugu, Europako Batzordearen gida-lerrotako bat enplegarritasuna eta lehiakortasuna izan direla eta horri begira hezkuntza sistemak, tartean unibertsitateak, aldaketak egitearen garrantzia azpimarratzen du: jendarte lehiakor eta prestatuago bat izateko estrategiak eraikiz eta garatuz. Badira, baina, kompetentzietan oinarrituko hezkuntzarekin bat egin arren, Europatik proposatzen den prozesuari ohar eta kritikak jarri dionik. Adibidez, Bolívar-en (2008) arabera, kompetentzietan diseinatutako tituluen eztabaida ez da kontu tekniko bat, politiko eta ideologikoa baizik. Kompetentziak enpresa munduarekin lotu izan dira eta unibertsitatea enpresa eta ekonomiaren menpe jartzeko arriskua ikusten da (Rué, 2007), benetan ez bada unibertsitatearen funtzioa garbi izaten.

...cuál debe ser la función de la Universidad en relación con la formación (formar para empleo o introducir en un ámbito cultural) y el tipo de profesionalidad requerida. El discurso de las “competencias” supone redefinir la profesionalidad como la regulación de un listado de competencias para la enseñanza, que los estudiantes han de adquirir para conseguir el título. En un plano general, lo que se

discute es el mismo modelo de Universidad, que debe mediar entre modelo académico (Humboldt) y el profesionalizador (anglosajón o neoliberal). (Bolívar, 2008, 16)

Lan honetan bat gatoz Chisholm-ekin (2005) esaten duenean unibertsitatean jasotako prestakuntza transferigarria izan behar dela eta gizartean eragiteko balio behar duela. Ezagutzaren erabilera aktiboa bilatu behar du unibertsitateak (Perkins, 2008), baina, ezin dugu alde batera utzi duen funtzio ikertzaile-intelektuala. Unibertsitateak pertsonaren garapenean kritikotasuna eta jakintza hauspotu behar ditu lanbiderako prestakuntzarako jakintza eraikitzeke aukera ematen duelarik (Bolívar, 2008).

1.2. Legedia Estatu Espainiarrean

Unibertsitatea arautzen duen legediaren azterketarekin hasteko 1983an Unibertsitate Erreforma izeneko legea dago, 11/1983 Lege Organikoa, 1978ko konstituzioaren ondoren etorria. Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa etorriko da berau ordezkatzera eta Unibertsitateen 4-2007 Lege organikoak ordezkatu du aurrekoa. Azken hau da indarrean daukaguna. Ezarpen garaian Unibertsitate egitura eta antolaketan erreforma sakonak proposatu zituen EGHEra egokitzeko. Hala ere, ez da soilik egitura aldaketa proposatzen, baizik eta honekin batera, irakaskuntza metodologietan aldaketak eskatzen dira, ikaslearen ikaskuntza prozesua izanik helburua eta ikaskuntza bizitza osora hedatzen den prozesu moduan ulertu behar dela kontutan izanik (4/2007 Lege organikoa, apirilak 12koa).

Lehenengo atalean aipatu moduan, Europatik Bolognako prozesuaren parte diren herrialde guztientzat agenda bat proposatu zen unibertsitateen berrikuntzarako. Izan ere, hainbat herrialde ez dira nahikoa lekutu lehiakortasunari dagokionez nazioarte mailan. Estatu Espainiarrean Estrategia Universidad 2015 (EU2015) izenarekin ezagutzen da. Estrategia hauetan unibertsitatearen eraginkortasun eta berrikuntzan arreta jartzen da.

Etorkizunari aurre egiteko ikerketa, formazio eta prestakuntza akademikoan bikainak izatea da helburua, eta nazioartekotzean aitzindari izatea.

Bolognako prozesuak proposatzen duen formazio eredua kompetentzietan oinarritutakoa izan behar da. Espainiarrari dagokionez, eta gure unibertsitateak arautzen dituen esparrura etorriz, dagoeneko, araututa dago unibertsitatean kompetentzietan oinarritutako formazioa eskaini behar dela eta Unibertsitateko Irakaskuntzen Inguruko Ordenantzarekin lotutako 1393/2007 Errege Dekretuan jasotzen da “los planes de estudios conducentes a la obtención de un título deberán, por tanto, tener en el centro de sus objetivos la adquisición de competencias por parte de los estudiantes”. Arestian aipatutako kompetentzia orokor eta espezifikoek atala ere arautua dago eta Unibertsitateko Irakaskuntzen Inguruko Ordenantzarekin lotutako 1393/2007 Errege Dekretuan honela jasotzen da: “...los objetivos son: competencias generales y específicas que los estudiantes deben adquirir durante sus estudios y que sean exigibles para otorgar el título”.

1.3. Kalitatea Goi-mailako Hezkuntza Esparruan

Unibertsitatean kalitateaz hitz egiterakoan bertako aktibitate guztiei egin behar zaie erreferentzia, hau da, irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa aktibitateei. Alabaina, lan honetan irakaskuntzaren kalitateaz arituko gara.

Europar Batzordeak goi-mailako kalitatezko hezkuntza ikasleek ikasketak amaitzerakoan lanerako beharrezkoak dituen ezagutza, gaitasun eta transferigarriak diren oinarritzko kompetentziak bermatzen dituen dela dio. Definizio orokor honek zehaztasunak behar ditu unibertsitateetan burutzen den hezkuntza kalitatezkoa den edo ez aztertzerakoan.

Egido eta Hang-en (2006) arabera Goi-mailako hezkuntza kalitatearen inguruko hautemate desberdinak daude eta ez dago definizio bakar bat, estatu bakoitzak, eta bere

baitan, unibertsitate bakoitzak, kalitaterekiko ulerkera desberdinak dituztela nabarmentzen dute. Definizio bakar bat ez badago ere, beharrezkotzat jotzen dute kalitatearen alderdi desberdinak jasotzen dituzte irizpideak zehaztea. Izan ere, EGHEren nahia esparru bateratu bat eskaintzea izan da eta esparru bateratu honek bateragarriak diren unibertsitate eskaintzak ditu oinarrian. Hori horrela, bateragarriak diren akreditazio sistemak ezartzea eskatuko luke konbergentziak. Baina, Europar Batasunak ez du modu argian sistema bateraturik plazaratu eta ondorioz, estatu bakoitzak ezarri ditu bere bideak. Hala ere, kalitatea ziurtatzeko sistemari buruzko adostasuna lortzea herrialde desberdinen helburuetako bat. ESG-ak (European Standards and Guidelines) sortu ziren 2005ean eta 2012an errebisatuak izan ziren kalitatea ziurtatzeko sistemen garapenean. ENQA-k (European Association for Quality Assurance in Higher Education) 2015ean plazaratutako dokumentuan honela jasotzen da ESG-ak zer diren:

“ESG-ak goi-mailako hezkuntzan kalitatea ziurtatzeko irizpide eta jarraibide multzoa dira. ESG-ak ez dira kalitatea definitzeko irizpideak, eta ez dute ezartzen kalitatea ziurtatzeko prozesuak nola finkatzen diren, izan ere, orientabide gisa baitira baliagarriak, kalitatezko eskaintza baterako funtsezkoak diren arloak eta goi-mailako hezkuntzarako ikaskuntza-ingurune egokiak eskainiz. ESG-ak testuinguru zabalagoan hartu behar dira kontuan, kualifikazio-esparruak, ECTS-ak eta titulurako gehigarriak ere biltzen dituen, EGHE-an goi-mailako hezkuntzan gardentasuna eta elkarren arteko konfiantza sustatzen ere laguntzen duena.”

Kalitatea ziurtatzeko adostutako irizpideak aurkezten dira dokumentu berean. **2. Taulan** ikus daitezke zeintzuk diren eta nola banatuta dauden. Hiru eremutan banatuta daude, baina, ENQA-k (2015) azaltzen duenez, hiru eremuak lotuta daude, eta bata bestearen oinarria da. Kalitatearen barne ziurtapena, kalitatearen kanpo ziurtapenaren

oinarria da. Era berean, kalitatea ziurtatzeko agentzien oinarrian egongo da kalitatearen barne ziurtapena.

2. Taula:

ESG: kalitatea ziurtatzeko irizpideak.

EREMUA	IRIZPIDEA
KALITATEAREN BARNE- ZIURTAPENERAKO IRIZPIDEAK	Kalitatea ziurtatzeko politika
	Programak diseinatu eta onartzea
	Ikaslea dago irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta ebaluazioaren erdian
	Ikasleak hartzea, haien bilakaera, haiek onestea eta ziurtatzea
	Irakasleak
	Ikasteko eta ikasleei laguntzeko baliabideak
	Informazioaren kudeaketa
	Informazio publikoa
	Programen etengabeko jarraipena eta aldizkako ebaluazioa
	Kalitatearen kanpo-ziurtapen ziklikoa
KALITATEAREN KANPO- ZIURTAPENERAKO IRIZPIDEAK	Kalitatearen barne-ziurtapenaren garrantzia
	Bere xedeetara egokitutako metodologiak diseinatzea
	Prozesuen ezarpena
	Binakako ebaluatzaileak
	Emaitzak oinarritzeko irizpideak
	Txostenak
	Erreklamazioak eta errekursoak
EUROPAKO IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK KALITATEAREN KANPO- ZIURTAPENEN AGENTZIEN INGURUAN.	Kalitatea ziurtatzeko jarduerak, politika eta prozesuak
	Estatus ofiziala
	Independentzia
	Gaien azterketak
	Baliabideak
	Kalitatearen barne-ziurtapena eta etika profesionala
	Agentzien kanpo-ziurtapen ziklikoa

Oharra: ENQA, Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area, Unibasque, 2015 -etik egokitua.

Akreditazioa kanpotik burutzen den prozesu bat da eta barne ebaluazioaren emaitza da. Estatu Espainiarrean ANECA da akreditazioaren ardura duen agentzia eta kalitatearen marko legala ezartzen du. Kalitatearen ebaluazioa erregulatzen duen marko legala ezinbestekoa da, baina, ez da nahikoa unibertsitateko irakaskuntza kalitatea bermatzeko.

Irakaslearen kalitatea, hezkuntza helburuaren lorpenean eta ezagutzaren eraikuntzan egingo duen laguntza ajustatuaren araberakoa izango da (Mauri, Coll eta Onrubia, 2007). Izan ere, ikaskuntzan oinarria duen unibertsitateko irakaskuntzan, irakaskuntzaren kalitatea ikaskuntzan dago (Bain, 2007; Biggs, 2006; González, 2014; Mérida, 2006; Morales, 2008, 2012). Irakaskuntza ez da kalitatezkoa izango, ikaskuntzarik eragiten ez badu. Beraz, unibertsitateak bere ikasleen ikaskuntzan jarri behar du arreta, kalitatea neurtzeari dagokionean. Bowden eta Martonek (2012) diote irakaskuntza eta ikerketaren unibertsitatetik, ikaskuntzarako unibertsitatera salto egin behar dugula, mundua interpretatzeko eta beste modu batean ikusi ahal izateko ikaskuntza sortzen duen erakunde sozial eta kolektibo moduan ikusten baitute unibertsitatea. Izan ere, orain gutxira arte irakaskuntza bere horretan, ez da izan unibertsitateentzat berebiziko garrantzia izan duen gaia (Zabalza, 2006).

Arbeláez-ek (2004) honela definitzen du kalitatea Unibertsitate eremuan:

La calidad académica en la universidad, se puede entender como capacidad de transformación y cambio en el proceso permanente de construcción de respuestas a las exigencias de la ciencia, de la sociedad circundante y la satisfacción de los miembros de la comunidad académica, en particular de los estudiantes como personas, profesionales, científicos y ciudadanos. (148 or.)

Kalitatezko hezkuntza bat lortzeko gakoetako bat irakasle taldean dago, ezinbestean orekan egon behar dira jardungo den diziplinaren inguruko gaitasuna eta gaitasun pedagogikoa. Bologna prozesuan irakasleen formazioa lehentasun gisa jasoa dago kalitatearen irizpide moduan.

1.4. Erreformaren hezkuntza ondorioak

Erreformak unibertsitatearen eta irakasleriaren berrantolaketa ekarri ditu. Irakaskuntza birpentsatu eta birplanteatzea eskatzen du EGHE-ak, irakasleek zein ikasleek hezkuntzarekiko ikuskera berri bat izatea eskatzen du.

EGHEak definizioz, baditu hainbat eskakizun eta unibertsitateak urteetan izan duen egiteko modutik, oro har, aldentzen dira. Izan ere, curriculum proposamen malguagoak izan behar dira; ikasleak ikaskuntza autonomoan kokatuagoak egon behar dira; konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza proposamenak eta lanbidean gaitzeko hastapenak ziurtatzen dituztenak izan behar dira eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko aukera eskaintzen duten proposamenak eskaini behar dira (Cid, Perez eta Zabalza, 2009).

Beraz, eta arestian aipatu bezala, konpetentzietan oinarritzen den ikaskuntzak ezinbestean eskatzen du unibertsitateko formazioaren ikuskera berrikustea. Formatzea ez da transmititzea, ezta ezagutzak pilatzea; konpetentziek ezagutza aplikatuaz hitz egiten digute (Fernández, 2006). Aurreko hamarkadetan, Unibertsitateak pentsamendu bateratzailea aldarrikatu izan du, izan ere, erantzuna errepikatzea errazagoa da erantzuna bilatzeko jarraitu beharreko prozesua ulertzea baino (Moral, 2008). Baina, eredu honetan konpetentziak bihurtzen dira helburu eta edukien barneratzea konpetentzien garapenean ezinbestekoa izango den beste baliabide bat izango da, hau da, edukiak ez dira helburu izango, baizik eta bide (Bolívar, 2008; Escudero, 2007; McCormick eta James, 2007). Eduki edo esanahiak ez dira modu zuzenean transmititu edo irakasten, baizik eta ikasleek dituzten ikaskuntza ekintzen bidez sortzen dira (Biggs, 2006). Hori guztia lortzeko, baina, ezagutza ahularen sindromea gainditu behar da (Escamilla, 2015), hau da, ezagutza ahaztua, alferrikako ezagutza (beste egoera batzuetan aplikagarria ez dena), ezagutza bakuna eta ezagutza errituala (ekintza

konkretu bati bakarrik erantzuteko balio duena). Aipatutako guztiak inplikazio nabari batzuk ditu unibertsitatearen funtzionamenduan (Bolívar, 2008; Mérida, 2006), besteak beste, helburuetan eragina duelako, irakaslearen paperean ere eragiten duelako, ikaskuntzarako eskaintzen diren ekintza-testuinguruetan ere eragiten duelako (Yániz, 2006; Zabalza, 2009) eta, ebaluazioan ere eragina duelako. Ikaslea erdigunean kokatzea eredu aldaketan aldagai garrantzitsu bat da (García-San Pedro, 2010).

Irakasleari lan egiteko aurkezten zaion testuinguru edo eredia aldatzea eskatzen zaio. Izan ere, eredu indibidualista eta espezialitatean oinarritutako eredu batetik, lan egiteko modu kolaboratibo eta diziplinartekoago batera jauzi egin behar da. Eredu aldaketa honek antolaketa eta egiteko modu desberdinak eskatzen dizkio irakasleari. Hainbat lanetan, (García-San Pedro, 2010; Rosário eta beste batzuk, 2014; Trías eta Huertas, 2009) irakasleen formazio beharra azpimarratzen da konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza bermatzeko testuinguruak eskaintzeko. EGHE eremuan, irakaslearen perfil berri batez hitz egiten da (Villarroel eta Bruna, 2017; Zabalza, 2009), unibertsitateko irakaskuntzaren fokua aldatu da, eta honek irakaslearen lana galdera ikur ugarirekin utzi du eta ondorioz irakasle bakoitzaren eredu eta estiloa aldatzea eskatzen du (Mérida, 2006). XXI. mendeko erronkei erantzun behar die irakasleak geletan eta honek eskatzen dio aldaketa esanguratsuak bere irakasle lanean, erronka berriei erantzuteko prestatu behar dira. Ez da posible hezkuntza kalitatea hobetzea irakasten dutenen kalitate profesionala hobetu gabe (Monroy, 2013).

Badira urte batzuk martxan beharko lukeela formazio eredu berri honek, eta oraindik ere, zailtasunak nabariak dira (Biscarri, Fililla eta Jové, 2006; Cid eta beste batzuk, 2009; De Miguel, 2006; Lledó eta beste batzuk, 2010; Zabalza, 2006).

Konpetentzietan oinarritutako ikuspegia da ondorio nagusietako bat eta aukera bat, konpetentzietan oinarritzeak formazioa egiteko beste molde batzuetan aritzera

“behartzea” eskatzen baitu. Formazioa konpetentzietan oinarritzeak ikaskuntza testuinguru aldakorretan egokitzeko gaitasunari bide emango dioten gaitasun konplexuen garapenari begira jartzea baimentzen du (Bolívar, 2008). Beraz, etengabeko ikaskuntzara begira jarri behar da unibertsitatea, bizitza osoan formatzen eta ikasten jarraitzeko baldintzak eskaini behar dizkio ikasleari (European Commission/EACEA/Eurydice, 2015). Etorkizuneko lehentasunak baldintzatzen dituzten erronken artean bizitza osorako ikaskuntza edo etengabeko ikaskuntza estrategia orokorren beharra dago jasoa ET2020an (Hezkuntza eta formazioa 2020).

Unibertsitateko erreforma honek unibertsitateko ikasketak etorkizunerako gaikuntza epe gisa kokatzen du, bizitzan egoera konplexuen aurrean erantzuteko gaitasuna duen herritarra formatzeko epe gisa. Etorkizunerako gaikuntza honetan, ikasten ikasteak arreta berezi bat eskatzen du hainbat autorek oinarritzotzat jotzen baitute (Bolívar, 2009a; García eta Iñurrategi, 2013; Gargallo, 2012; Hoskins eta Fredriksson, 2008; Martín eta Moreno, 2007; Sagasta, Bilbatua eta Arregi, 2004; Villardón eta Yániz, 2011). Xedeetako bat ikasleak bere kabuz ikaskuntza esanguratsua egitea baimenduko dioten gaitasunak garatzea da, hau da, ikasten ikastea eta pentsatzen ikastea (Aznar-Minguet, 1992; Herrera, Jiménez eta Castro, 2011). Dimentsio afektibo, kognitibo eta konatiboek harreman estua dute konpetentzia honekin (Deakin, Broadfoot, Claxton, 2004).

1.5. Laburbilduz

Goi mailako hezkuntzan aldaketak eman dira azken hamarkadetan. Aldaketa hauek Europar Batzordeak bultzatuak izan dira, hezkuntza hobetzea helburu moduan planteatuta.

Hori dela eta, Bologna prozesuarekin erreforma prozesu bat martxan jarri zen mende hasieran. Prozesu honek unibertsitateko formazio ereduan aldaketak ekarri

zituden eta gobernuek legedi eta gomendio desberdinen bitartez prozesua arautu zuten.

Eredu berri honek aldaketak ekarri ditu antolaketa eta funtzionamenduan, baina, batez ere, unibertsitatea ulertzeko moduan. Konpetentzietan oinarritutako eredua da proposatu dena, eta nahiz eta ekonomia eta enpresen menpe erortzeko arriskua ikusi izan zaion, konpetentzietan oinarritutako ereduak unibertsitatea formazioa egiteko beste modu batzuetara bultzatu du. Unibertsitatea gaikuntza epe gisa ulertzeak eskatzen du ikasleari bermatu behar zaiola egoera konplexuen aurrean erantzuteko gaitasuna garatzeko aukera. Horretarako unibertsitateak ikaskuntza aplikatua izan behar du oinarri eta ikaslea ekarri behar da ikaste irakaste prozesuaren erdigunera, sinetsiz irakaskuntzaren helburua ikaslearen ikaskuntza dela eta hezkuntza kalitatea lotuta egongo dela ikasleak esanahiak eraikitzerakoan irakasleak egiten duen esku-hartze ajustatuan. Gogoan izan behar dugu erreformaren zutabeetako eta helburuetako bat bizitza osorako ikaskuntza dela, bizitza osoan zabaltzen den ikaskuntza. Ikaslea ikaskuntza baldintza egokienean kokatu behar du unibertsitateak bizitza guztian ikasten jarraitzeko, etengabeko formakuntza posible izateko (Villardón eta Yániz, 2011). Konpetentzia orokorreari egiten zaie erreferentzia, eta klabeetako bat ikasten ikastea izango da.

2. ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO IKASTEN IKASTEA

2.1. Sarrera

Ikasten ikastea konpetentzia orokorra da, edozein delarik ere ikasleak hautatutako bide akademikoa eskuratu eta garatzeko aukera izan beharko luke. Aurrez aipatu bezala, konpetentzia orokorrak hainbat egoeratan, ez soilik zuzenki ikasketa eremu konkretuetan, erabili daitezken gaitasun eta trebetasunak dira (Bolívar, 2008).

Garai bateko erakunde zein balioen erortzeak ekiteko modu ezegonkorrak ekarri ditu. Norbanakoa behartuta dago egin behar duenaren gainean pentsatzera (eta

erabakitza) eta, testuinguru honetan ikasten ikasteak norbanakoak bere ikaskuntza prozesuaren jabe egiteko prestatzea eskatzen du. Testuinguru konkretu berri baten aurrean gaude (Bolívar, 2009a). Testuinguru hau Beck, Giddens eta Lash-ek (1997) eraberritze gogoetatsu izendatu zuten.

Beraz, ikasten ikasteak pentsatzen ikastea eskatzen du (Beck, 2002) eta honek eskatzen du ikaskuntza bera eta ikaskuntzan parte-hartzen duten subjektuak ulertzeko modu konkretu bat. Subjektuak aukera izan behar du jarrera mental aktiboa izateko, horretara bideratzen duen eskaintza jaso behar du, horrela ardatza izango baita eta eduki kulturalen inguruan esanahiak eraikitzea baimenduko zaio (Bruner, 1991). Ikasten ikasteko borondatea egotea ezinbestekoa da (Corno, 1993), subjektua ikaskuntza prozesuan aktiboki inplikatzeko, jarduerari aurre egiteko moduari dagokionean kontrol kontziente bat burutuz. Auto-kontrol honek ikasteko moduen inguruko hausnarketa eskatzen du. Rué-k (2007) ikaskuntza irakasleok sortzen dugun testuinguru konkretu gisa definitzen du, ikasleek ezagutzaren barneratze prozesuan zein ikasle moduan egiten duten garapen pertsonalean pentsatzeko aukera daukaten testuinguru konkretua.

Gaitasun hauek garatzeak autonomia pertsonala handitzea ekarriko du, baita pentsamendu kritikoaren eta norberaren ikaskuntza prozesuaren inguruko hausnarketa bultzatzea (Benthan, 2002; Brockbank eta McGill, 1998; Escamilla, 2015; Martín eta beste batzuk, 2002; Mayer, 2004; Zimmerman, 2000). Beste era batera esanda, hezkuntza erakunde baten oinarritzko helburuetako bat ikasleak ikastun autonomoak bihurtzea da, hau da, modu auto-erregulatu eta autonomo batean ikasteko gai izatea. Villardón eta Yániz-ek (2011) ikaskuntza autogestionatua deitzen diote. Ikaskuntzaren autogestioa ezinbesteko aldagai bat da ikaskuntzarako (Solzbacher, 2006), eta bizitza osoan zehar garatuko den ikaskuntzarako lagungarria da. Autonomiak baina, ez du esanahi prozesua bakardadean eraman behar denik (Coll, 2010) ez eta bakoitzak nahi duena

egitea, baizik eta momentu bakoitzean egokiena zer izan daitekeen aurreikusteko gaitasuna izatea (Rué, 2007). Ikasten ikasten duen ikasle batek eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzen duen ikasle batek argi izango du, bere garapen/formakuntza profesionala etengabeko ekintza bat dela ezagutzaren jendarte honetan (Hernández-Pina eta Maquilón-Sanchez, 2010). Ikasten ikasteko gakoa ezagutzaren eraikuntzarekin lotutako prozesuan hausnarketa eta kontrol pertsonala izatea da. Ikaskuntzarako eta estrategien erabilerarako ezinbestekoa da ikasteko dugun moduarekiko hausnarketaren bidez norberaren prozesu mentalen kontrola izatea (Nisbet eta Suchcksmith, 1987). Pentsatzen ikasteak estrategia eta gaitasun metakognitiboen ikaskuntza eskatzen du elkarrekintza sozialeko prozesuetan, kognizioa prozesuon motorra da eta alderdi afektibo eta emozionalak motor honen bueltan ardaizten dira.

Atal honetan, ikasten ikastea konpetentzia ezaugarritzeko aipatutako aldagaiak sakonago aztertuko ditugu. Ikaskuntza eta ikaskuntzan parte-hartzen duten subjektuen ulkeran sakontzeko ondorengo lerroetan ikasleen ikasteko baldintzen inguruan sakonduko dugu.

2.2. Ikaste prozesua

Urteetan zehar ikerketek fokua ikaslearengan jarri dute, batez ere ikasketa emaitzak arrakastatsuak izan ez direnean, ikasleari egotziz bere errendimendu negatiboaren ardura. Baina, badira testuinguruari eta ikaste irakaste prozesuko elkarrekintzei arreta jarri dioten ikerketak ere, batez ere, 70. hamarkada amaieran ebidentziak daude ikaskuntza berau gertatzen den testuinguruaren menpe dagoela (Biggs, 1979). Izan ere, ikaskuntza harremanetan dago hainbat aldagaiekin, batzuk, ikasleari atxikitzen zaizkionak eta beste batzuk ikaskuntza giroari. Deakin eta beste batzuren (2004) lana kontuan izanik ikaskuntzari eragiten dioten 4 kategoria orokor daude. Kategoria hauek elkarreragiten duten eta metagarriak diren dimentsioak dira, eta

ikasleari berari dagozkionak zein ikaste irakaste prozesuko elkarrekintza zein beste aldagai batzuk barnebiltzen dituzte.

- Ikaskuntza gaitasunak: gaitasun, sentsibiltate eta gogoia.
 - Ikaskuntza identitatea: ikaslearen sinesmen, ikaskuntzarekiko balore eta jarrerak, nia eta auto-ezagutza.
 - Ikaskuntza historia: denboran jaso duen formazio soziokulturala.
 - Ikaskuntza harremanak: ikaskuntzan ematen diren harremanen kalitate eta funtsa
- Lan honetarako duen interesagatik, Deakin eta beste batzuren (2004)

sailkapeneko ikaskuntza identitateari egin diogu erreferentzia, batez ere.

Ikasleek nola ikasten duten edo ikasteen eragina duten aldagaien inguruan asko ikertu da urteetan. Azterketa egiterakoan hertz desberdinak urratu dira, baina, bi ikuspegi nagusitatik definitu izan da. Alde batetik, emaitza kantitatean oinarritu den ikaskuntza, beraz, zenbat ikasi duen neurtzea helburu izan duen ikuspegia. Bestetik, ikastearen inguruko deskripzioak bilatu dituen, alderdi kualitatiboari erreferentzia eginez eta ikaste irakaste prozesuetan gertatzen dena bilatzen duen ikuspegia. Lehenengo ikuspegiaren arabera, alegia, kantitateari erreparatzen dion ikuspegiaren arabera, ikastea transferentziarekin lotzen da eta dagoeneko lan honetan aipatu dugu Goi-mailako Hezkuntzak ez duela bat egiten ikastearen ikusmolde honekin. Izan ere, edukien transmisio soila ez da kontenplazten kompetentzietan oinarritutako ikuspegiaren. Edukiez baino, ezagutzaz hitz egin behar dugu. Ezagutzaren transmisioak, beraz, ez dauka lekurik. Izan ere, ezagutza eraikuntza da eta dagoeneko ez dago ezagutza bakarra. Benetako ezagutza (Chomsky, 2001) ez da ezagutza bakarraren inposaketa. Izan ere, inposaketak ez du pentsamendu kritiko eta independente baten garapena bultzatzen.


Bigarren ikuspegiari dagokionez, prozesura gerturatzeko erabilitako metodologiak zein prozesua deskribatzeko definitutako arreta puntuak kontutan hartuta,

ikerketa ildo desberdinak daude. Ikuspuntu honetatik, hainbat dira ikastearen inguruan aurkeztu diren sailkapen zein kontzeptuak. Atal honetan, zehazki ikaskuntza hautematean eta ikaskuntza ikuspegian sakonduko dugu, lanarekiko duten interesa dela eta, alegia fokua ikasleen ikastearekiko usteak (ikaskuntza hautematea) arakatzean zein ikasleek ikaskuntzari nola egiten dioten aurre izan dutenak. Komenigarria da argitzea kontzeptualki zein den egiten den erabilera, izan ere, ikerketen errebisioek adierazten dute, hainbat kontzeptu gauza bertsuak izendatzeko erabili izan direla.

Era berean, erreferentzia egingo diogu kapitulu honetan ikasten ikastearen definizioari.

2.2.1. Ikaskuntzaren hautematea

Ikastearekiko usteak biltzen dira, ikasteak inplikatzeko duenarekiko usteak. Bizi ditugun esperientzien ondorioz, pertsonok ikaskuntzarekiko hautemateak eraikitzen ditugu eta eragina izango dute gure ikasteko moduetan. Ikerketek (Säljö, 1979; Van Rossum, Deijkers eta Hamer, 1985) ikuskera honen baitan bost maila bereizi daitezkeela baieztatu dute: hautemate kuantitatiboaren baitan sartzen direnak (ikastea edukiak kuantitatiboki jasotzea da; ikastea buruz ikastea da; ikastea behar denean erabiltzeko datu, metodo, prozedurak jasotzea da), eta hautemate kualitatiboaren baitakoak (ikastea edukien esanahia ulertzeko baliagarria da; ikastea errealitatea ulertzea helburu duen interpretatze prozesu bat da). Badago beste kategoria bat gehitu izan zaiona zerrenda honi Marton, Dall’Alba eta Beaty-k (1993) eginiko lanaren ondorioz. Seigarren kategoria hau “ikastea pertsona gisa aldatzea” da. Oso antzekoak diren hainbat sailkapen daude argitaratuta, lan honetan 1. irudian jasotzen den sailkapenarekin egiten dugu bat.



1. irudia: Ikaskuntza hautemateak.

Enfoques de enseñanza y de aprendizaje de los estudiantes del Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria. Monroy, F., 2013, lanetik egokitua.

Marton eta beste batzuk (1993) hautemate kualitatiboek kuantitatiboak bere barne hartzen dituztela diote. Hautemate kualitatiboak berez dakar aurreko kategoria bere baitan egotea.

Ikasleak ikastearekiko duen hautemateak eragina dauka ikasteari aurre egiteko moduan (Biggs, 1990). Ikasleak ikaskuntzarekiko duen hautematea denborarekin aldatu dezake, dituen esperientziek edota testuinguruko aldagaiek horretan laguntzen badiote (Van Rossum eta beste batzuk, 1985), izan ere, ikaskuntza hautemateak ez dira aldagaitzak. Beraz, ez da subjektuaren ezaugarri propio bat, testuinguruarekin elkarrekintzan sortzen da, nahiz eta subjektuak tendentzia edo lehentasuna markatua izan, testuinguruaren arabera alda dezake (Herrmann, Bager-Elsborg eta McCune, 2017).

Aldaketan eragin dezaketen aldagaien artean ikaskuntza esperientziak zein norbanakoak ezartzen dituen helburuak daude (García, 2011), baita, ikaskuntza ikuspegia, orientazio motibo-emaileak eta ikaskuntzaren erregulazioa (Heikkilä eta Lonka, 2006).

2.2.2. Ikaskuntza ikuspegiak

Marton eta Säljö-ren (1976) lanetan dauka oinarria eta ikaskuntza prozesu konplexuari aurre egiteko moduari egiten dio erreferentzia. Esperientzien bizipena ezagutzan bilakatzeko bidean pertsonak egiten duen lehentasun hautua da ikaskuntza ikuspegia. Ikaskuntza ekintzei aurre egiteko modua. Testuinguruak ikaskuntza ikuspegia baldintzatzen duela dioten ikerketak ugariak dira (Biggs, 1996; Entwistle eta Ramsden, 1983; Hassal eta Joyce, 2001; Marton eta Säljö, 1976; Ramsden, 1989; Trigwell eta Prosser, 1991; Van Rossum eta Schenk, 1984). Ikaskuntza ikuspegiatan eragiten duten faktoreen artean, besteak beste, ezagutzaren izaerarekiko sinesmenak, eta testuinguruko aldagaiak daude. Azken honekin lotuta, ebidentziak daude esateko ikaskuntza eskaintzen den testuinguruaren menpe dagoela. Are gehiago, ez litzateke testuinguru soilik izango, baizik eta testuinguru horren hautematea da baldintzagarria (Biggs, 1979, 1996; Entwistle eta Ramsden, 1983; Entwistle eta Tait, 1990; Ramsden, 1989; Säljö, 1979; Trigwell eta Prosser, 1991; Van Rossum eta Schenk, 1984).

Ikaskuntza ikuspegiaren eragina duen beste aldagai batzuk dira ebaluazioa eta lan karga (Diseth, 2007; Struyven, Dochy, Janssens, eta Gielen, 2006); ikasteko askatasuna (Entwistle, 1986) eta irakaslearen irakaskuntza estrategia egokia (Gargallo, Gargafella, Pérez eta Fernández, 2010).

Era berean, zereginak edo edukiaren izaerak eragina izan dezake ikaskuntza ikuspegiaren. Badaude ikerketak (Entwistle eta Ramsden, 1983; Trigwell eta Prosser, 1991) aditzera ematen dutenak harremana dagoela azaleko ikuspegiaren eta lan karga handiaren hautematearekin (Diseth, 2007; Wang, 2013).

Hainbat orientazio definitu dira baina batez ere bi erabiltzen dira, alde batetik, esanahiari lotutako orientazioa, eta bestetik, erreproduzio edo errepikapenera bideratutako orientazioa. Esanahiari lotutako orientazioa ikaskuntza auto-erregulatu eta

ikaskuntzaren sakoneko ikuspegiaren arteko konbinazioa da. (Lonka eta Lindblom-Ylänne, 1996; Richardson, 1997; Valle eta beste batzuk, 2008; Vermunt eta Van Rijswijk, 1988).

Ikasleek modu desberdinetan ikasten dute, adituek prozesatze mailak izendatzen dituzte modu desberdin hauek: maila sakona eta azalekoa. Entwistle-k (1991) maila deitzetik ikuspegi deitzera ekarri zuen. Ikerketa nagusien arabera bi ikuspegi definitzen dira (Biggs, 1993; Entwistle, 1991; Gargallo, Garfella eta Pérez, 2006; Hernández Pina, 2000; Marton, 1983):

- **Azaleko ikuspegia:** kanpo motibazioan oinarritua dago eta ikaskuntza helburu bat lortzeko bitartekaria da. Eskaera “betetzea” eta porrota ekiditea bilatzen da, ikaslearen asmoa eskakizunei erantzutea da. Erabiltzen diren estrategiak ikaskuntza mekanikoarekin lotuta daude eta prozesuak ikaskuntza memoristikora bideratuta, auto-erregulazio txikiko jokabideak izan ohi dituzte. Ikaslea pasiboa da ideia eta informazioa jasotzerakoan eta hala onartzen du. Ardura bakarra azterketak edo frogak gainditzea da. Emaitza, memorizazio eta azaleko edo baliogabea den ulermena da. Ikaskuntza hautemate kuantitatiboa dago atzetik.
- **Sakoneko ikuspegia:** barne motibazioan oinarritzen da eta funtsean gaiarekiko edo edukiekiko interesa dago, baita ikaskuntza esanguratsua izateko nahia. Ikaslearen jakin-mina asetzeko eta ulermena lortzeko erabiltzen dira estrategiak eta auto-erregulazio izaerakoak izan ohi dira. Prozesuari dagokionean edukiak, aurrezagutza eta esperientziak elkarrekintzan jartzen ditu ikasleak, emaitza edo ebidentzia ondorioekin lotzen ditu eta arrazoen logika aztertzen du. Emaitzei dagokionean ulermen maila sakona lortzen da, oinarritzko printzipioak ondo barneratuz. Ikaskuntza hautemate kualitatiboa dago atzetik.

Sakoneko ikuspegia ulermenarekin lotzen da eta azalekoa gainditzearekin. Biggs-ek (1990) intentzioa eta motiboak gehitzen dizkio sailkapen honi.

Hainbat ikerketek ikuspegi estrategikoa ere aipatzen dute, baina, Monroy-ren (2013) lanean hainbat ikerketek esandakoa jasotzen du eta ikuspegi hau dagoenik ezin daitekeela esan dio, ez baita ebidentziarik jaso.

Ikuspegi biak continuum batean kokatu behar dira, bakoitza mutur batean eta tarteko perfilei aukerak emanez. Horrela bada, tartean kokatuko diren perfilak izango ditugu, bi ikuspegietatik izango dutenak, nahiz eta bietako bat lehenetsi edo nagusitu (García, 2011).

Biggs-ek izendatutako ikaskuntza ikuspegiaren barneko motibo eta estrategiei buruz Monroy-k (2013) jasotzen du hainbat ikerketen arabera bat datozela motiboa eta erabiliko den estrategia. Hala ere, gerta daiteke, sakoneko ikuspegi bat duen ikasle batek azaleko strategiak erabiltzea testuingurura egokitzeko, baina, kontrako egoera gertatzea zailagoa da, alegia, azaleko ikuspegia izan eta estrategia sakonak erabiltzea.

Laburbilduz, ikaskuntza ikuspegia aurre egin behar duen ekintzarekiko, ikasi beharreko edukiekiko eta ikaskuntza testuinguruarekiko duen hautematea da. Nola ikasten den zehaztuko luke. Ikasleak ekintza konkretu bat testuinguru konkretu batean burutzerakoan duen hautemateak baldintzatutako ikasteko modu konkretua da (Marton eta Säljö, 1976). Ikaskuntza emaitzetan eragina dauka ikasleak eraikiko duen hautemateak (Gargallo eta beste batzuk, 2006; Martín, 2008; Prosser eta Trigwell, 1993) eta aldi berean, ikasleak testuinguruarekiko duen hautemateak ikuspegia baldintzatuko du. Izan ere, ikaskuntza hautematea eta ikaskuntza ikuspegia lotuta daude. (Biggs, 1990; Brownlee, Purdie eta Boulton-Lewis, 2003; Ruiz Lara, Hernández Pina, Ureña Villanueva eta Argudo Iturriaga, 2011; Säljö, 1979b; Van Rossum eta Schenk, 1984).

Säljö-ren (1979) lanean jasotzen da ikaskuntza ikuspegia hainbat aldagairen elkarrekintzaren ondorioz eraikitzen duela ikasleak, alegia, ikaskuntza ikuspegia ez da ikaslearen ezaugarri pertsonal bat, baizik eta ikaslearen eta ikaskuntza testuinguruaren arteko elkarrekintzaren ondorioz eraikitzen den konstruktua bat da (García, 2011). Testuinguruak, gainera, pisu handia hartzen du elkarrekintza honetan eta baldintzatzaile handia izango da ikasleak ikaskuntzari aurre egiteko hautatuko duen ikuspegiari dagokionean.

2.3. Ikasten ikastea kompetentzia

Aztertutako hainbat lanetan (Bolívar, 2009a; Hoskins eta Fredriksson, 2008; Martín eta Moreno, 2007) Oinarrizko Konpetentzien Europako Markoan, Europako Batzordeak 2005ean adostutako definizioa jasotzen da eta honela azaltzen da ikasten ikastea:

Ikasten jarraitu eta mantentzeko eta norbere ikaskuntza antolatzeko gaitasuna da, eta bakarka zein taldean, denbora eta informazioaren kontrol eraginkor bat eskatzen du. Helburua ikastea arrakastatsua izatea da, horretarako ikaskuntza prozesuaren eta beharren kontzientzia, aukeren identifikazioa zein trabak gainditzeko gaitasuna barne hartzen ditu... ikasleak aurretik izandako esperientzietatik abiatuta ezagutza eraikitzen konprometitzen dira, testuinguru desberdinetan ezagutza eta gaitasunak berrerabili eta aplikatzeko. Ezinbestekoak dira motibazioa eta konfiantza.

Ikasten ikasteak Europako Batzordearen testuetan hainbat ikuspegi-tako elementuak barnebiltzen ditu tradizio soziokulturalekoak zein kognitibo-takoak. Hona, Hoskins eta Fredrikssonek (2008) bere lanean jaso duten bi paradigmen arteko azalpena:

- Paradigma kognitiboa: barne prozesu kognitiboak kontuan izanik pertsonok informazioa nola prozesatu edota eraikitzen dugun aztertu du historikoki. Perspektiba honetatik burmuina prozesatzaile moduan ulertzen da; gure memorian informazioa batu, prozesatu, gorde eta bilatu/berreskuratu. Dimentsio afektiboa kontutan hartzen da, jarduera burutzeko onarpen eta motibazio moduan ulertzen da. Piageten ekarpena da azpimarragarriena.
- Paradigma soziokulturala: ezagutza, gaitasunak eta jarrerak nola eraikitzen diren ditu aztergai. Kognitiboarekiko desberdintasunetako bat da ikuspegi honek arreta gehiago eskaintzen diola ikaskuntzaren dinamika sozialari barneko prozesu kognitiboari baino. Bernstein eta Vigotsky-k garatu dituzte besteak beste teoria soziokulturala. Printzipio nagusia da ikaskuntza testuinguru sozial batean garatzen dela elkarrekintza sozialaren bidez. Paradigma honen baitan ikasten ikastea ezin da ulertu ez ikaskuntza testuingurutik at, ezta ere ikasle eta ikaskuntza erraztatzailearen arteko harreman eta elkarrekintzatik at. Beraz, diziplina honetatik ikasten ikastea uler daiteke ikaskuntza testuinguruarekin dagoen elkarrekintza prozesu gisa. Horrela bada, dimentsio afektiboak pisu handia hartzen du. Izan ere ikaskuntza testuinguru sozialaren identifikazio eta neurri hartzea eskatzen baitu eta honek balioak, jarrerak eta ikaskuntza harremanak neurtzea eskatzen du.

Ikasten ikastearen definizioa edo ulerkera oinarrian dagoen paradigmak baldintzatuko du. Hori horrela, ikastea azaltzeko eraiki diren korrante teorikoak kontutan hartuko ditugu ikasten ikastearen definizioa kokatu eta ulertzeko. Izan ere, literaturan hainbat definizio daude, eta nahiz eta elementu batzuk komunak izan, funtsean badituzte desberdintasun esanguratsuak. Ikastearen ulermenarekin lotuta aztertutako korrante teorikoek ikasten ikastea eta auto-erregulazioarekin duten

ikuspuntua azaltzen da **3. Taulan**. Salmerón eta Gutiérrez-en (2012) lanean jasotako korronteak kontutan izanik eta beste ekarpen batzuk gehituz osatu da taula.

3. Taula:

Ikastea: korronte teorikoak eta auto-erregulazio eta ikasten ikastearekiko ikuspuntua.

Teoria	Definizioa	Ikasten ikastearen garapena
Teoria kognitiboak. Informazioaren prozesamenduan oinarrituak.	Informazioa berria hartu kodifikatu, epe luzeko oroimenean integratuta dagoen informazioarekin erlazionatu eta bertan gorde	Perspektiba honetan metakognizioak rol gakoa dauka.
Ikuspuntu fenomenologikoa	Ikaskuntza niarekin estuki lotua dago (Moll, 2001). Nia konstruktua dinamikoa da eta testuinguru sozio-historikoarekin harremanetan eraikitzen da. Ni errearen eta ni idealaren arteko distantzia txikitzeko motibaziotik abiatzen den barne prozesu bat da ikaskuntza.	Auto-erregulazioa nia modu jarraian eraikitzen den prozesu gisa ulertzen da, helburua izanik etorkizuneko eta desiratutako identitateak lortzea. (Oyserman, Bybee, Terry eta Hart-Johnson, 2004; Oyserman eta Destin, 2010). Esku-hartzeak kompetentzien eta estrategien zein auto-estima eta auto-kontzeptuaren garapenera bideratuak izan behar dira. Eskaini beharreko testuinguruak egungo identitate eta etorkizuneko arteko zubiak egitea erraztu behar dute (McCombs eta Marzano, 1990).
Borondatezko ikuspuntua. Corno, 2001	Helburuaren lorpen bidean ekintza burutzerakoan dagoen motibazioak sortzen dituen inpultso eta intentzioak kontrolatzeko prozesu gisa ulertzen du. Borondateak ekintza bat aurrera eramateko intentzioa dakar.	Borondatea sistema auto-erregulatuaren integratzen da, bere barne hartzen ditu motibazioa eta prozesu kognitiboak. Azken bi hauek emaitza akademiko onak eta helburuak lortzeko baldintza positiboak dira, baina, ez nahikoak.
Epistemologia genetikoan oinarrituak duten korronte eraikitzaile kognitiboak (Piaget, 1987)	Ikastunak, modu aktiboan, besteekin eta testuinguruarekin elkarrekintzan esanahiak eraikitzen dituen prozesua.	Auto-erregulazioa orekatze prozesu bat da. Ikuspuntu sozio-eraikitzailetik auto-erregulazioa konstruktua multidimentsional moduan ulertzen da: kompetentzien kudeaketa eta kontrola, ikaskuntza estrategien erabileraren erregulazioa zein hipotesien formulazio eta ebaluazioa barnebiltzen ditu. Ikaskuntza estrategiak oinarritzko konstruktua bat dira. Korronte eraikitzailearen alde honek planteamendu sozio-eraikitzaile baterantz jo du eta garapen kognitiboan testuinguruari, ikaskuntza inguruari eta elkarrekintzei gero eta garrantzia handiagoa eman zaio (Alexander, 2006; Paris, Byrnes eta Paris, 2001; Paris eta Paris, 2007; Pressley, 2002).

Ikuspuntu soziokulturala	Goi-mailako funtzio psikologikoak fenomeno psikologiko auto-erregulatuak dira. Modu kontziente eta borondatezkoan ematen dira eta jatorri soziala daukate.	Auto-erregulazioa goi-mailako funtzio psikologikoen kontrol gisa ulertzen da. (Díaz, Winsler, Atencio eta Harbers, 1992; Espinosa, 2008; Henderson eta Cunningham, 1994). Testuinguru sozialean edozein goi-mailako funtzio psikologiko eraikia da eta besteen ekintza eta ideiek esanguratsuki eragiten diote (Lacasa eta Herranz, 1989; McCaslin eta Hickey, 2001; Vygotsky, 1995; Wertsch, 1990)
Banduraren Ikaskuntza sozialaren teoria (1977), teoria sozio-kognitiboa	Ikaskuntza auto-erregulatua soziala den prozesu bat da. Ikasleak ikaskuntza helburuak ezartzen ditu eta bere kognizioa, emozioak, motibazioak eta jarrerak kontrolatu eta erregulatzen ditu testuinguruko ezaugarriak eta helburuak kontutan izanik.	Auto-erregulazioaren konstruktua inguruan gehien garatu den ikuspuntua da (Puustinen eta Pulkkinen, 2001). Bandurak (1997) erregulazioarekin lotuta hiru prozesu definitu zituen: Auto-behaketa edo auto-kontrola, auto-epaiketak eta auto-erreakzioak. Jokabidea, ingurunea eta pertsonalak (kognizioa eta emozioa) diren alderdien proposamen teoriko integratzaile bat eskaintzen da.
Escamilla, 2015	Ikasleek jarduera/tresna kulturalen eta esperientziadun kideekin dituzten elkarrekintzaren bidez ikasten dute.	Ikaskuntzarako ekintza eta testuinguruaren garrantzia nabarmentzen da (García-San Pedro, 2010) Ikastea eta egitea etengabeko elkarrizketan ulertu behar dira, ikasleek testuinguru pertinentean ikasi behar dute, “benetako” ikaskuntza praktiketan.

Lan honetan kompetentzien ikaskuntza egokien oinarrizko duen ikaskuntza kokatu eta eraikitzailearekin (Bolívar, 2009a) bat egiten dugu. Izan ere, Escamilla-k (2015) esaten duena kontutan hartuta ikaskuntza kulturaren geureganatze prozesu multidimentsionala da. Ikaskuntza subjektuen parte-hartze eta ulerkeran aldaketak ematea da. Pentsamendua, afektibitatea eta ekintza barnebiltzen dituen esperientzia da (Baquero, 2002). Testuinguru batean kokatua dagoenez inguruko aldagaien eraginpean dago, hala nola, ikaslearen inguru sozio-historikoa, tresna kulturalak, tradizio eta kosmobisioak, eskolaratzea eta beste hainbat praktika kultural (Deakin eta beste batzuk, 2004).

Ikastea modu desberdinetan ulertzen da, tartean tekniken entrenamendu gisa. Bolívar-ekin bat eginez, lan honetan ikastea ez da ulertzen hobeto ikasten laguntzen

duten tekniken edo metodoen erabilera (Bolívar, 2009b), hau da, prozesatzen lagunduko diguten tekniken entrenamendua soilik. Metodo zein teknikak bitartekoak dira helburua lortzeko eta hala ulertzen dira lan honetan. Ondorengo aipuak bitartekoen eta helburuen arteko harremana azaltzen du.

Aprender como entusiasmo por aprender, aprender a aprender, incluye, por supuesto, aprender a usar los libros. Pero los hombres [sic] que aprenden a usar telescopios y microscopios no aprenden a mirarlos. Aprenden a mirar a través de ellos para ver mejor otras cosas, y las cosas que aprenden a ver son las cosas que existen y actúan en el mundo común a su alrededor ... pero que sin la ayuda de estos dispositivos pasan desapercibidos. (Dewey, 1944, 8)

2.4. Laburbilduz

Goi-mailako ikaskuntzak duen helburua kontutan izanda, sakoneko ikuspegia da egokiena (Biggs, 1999; Trigwell, Prosser eta Waterhouse, 1999). Ikaskuntza sakona bultzatu behar da ikasleek hobeto eta gehiago ikasten dutelako (Gargallo eta beste batzuk, 2006; Prosser eta Trigwell, 1993). Izan ere, goi-mailako ikaskuntzak prozesatze esanguratsu bat eskatzen du, subjektuaren adimenaren ekintza da eta ezinbestean subjektua aktiboa izan behar da. Era berean, aurretiko kontzeptu egiturak kontutan hartzea eskatzen du eta arreta handiagoa eskatzen du.

Hala izanik, testuingurua manipulaturik ikasleek modu positiboan hautematen dute eta ondoren ikaskuntzari aurre egiteko moduan eragina dauka. Baina, Marton eta Säljö-k (1976) egin zuten saiakera bat eta ez zituzten esperotako emaitzak lortu. Epe motzean errazagoa da azaleko ikaskuntza bultzatzea edo probokatzea, sakonekoa baino (Ramsden, 1985; Van Rossum eta Schenk, 1984). Hala ere, aurretik aipatutako continuumaren ideia berreskuratuz, ikasleei eskaintzen zaien testuingurua lasaia bada (Fransson, 1977), eskaintzen zaizkien edukiak esanguratsuak (Entwistle eta Tait, 1990;

Fransson, 1977), ikaskuntza testuinguruaren hautematean eragin ezker (Trigwell eta Prosser, 1991), besteak beste, sakoneko ikuspegia indartzeko aukerak daude.

Ikaskuntza ikuspegi batean eragiteko ez da nahiko izango inoiz ikasleei ikaskuntza estrategiak irakastea ezta irakasleek irakaskuntza teknikak aldatzea, ezinbestekoa izango da irakasleen zein ikasleen ikaste irakaste prozesuaren hautematea aldatzea (Kember eta Gow, 1989).

3. IKASTEN-IKASTEAREN GARAPENA: ERAGINA DUTEN ELEMENTU GAKOAK

3.1. Sarrera

Orain arte azaldu den bezala, ikasten ikastea konpetentzia ulertzeko ertz desberdinak daudela ikusi ahal izan dugu. Claxton-ek (2002) bere lanean, lau belaunaldi deskribatzen ditu ikaskuntza helburu duen irakaskuntza praktikarekin lotuta. Belaunaldi bakoitzak ikaskuntza ikuskera bat dauka, eta ondorioz, ikuspegi horrek praktika bat bultzatzen du. Egiten dituen definizioetan lehenengo belaunaldiarentzat irakaskuntza ona ezagutza-edukiak modu egokian ematea dela defendatzen du eta lorpenak goratzen ditu. Bigarren belaunaldi bati erreferentzia egiterakoan, aldiz, gaitasunak garatzearekin lotzen da ikaskuntza eta lorpena ere goratzen da. Ikasleari teknikak eta aholkuak ematea izango da irakaskuntza. Hirugarren belaunaldian faktore sozial eta emozionalek lekua hartzen dute eta ikaskuntza moduak ezaugarritzen dituzte. Kezka dago ondo irakastearekin, nola irakatsi horrek kezka sortzen du. Azkenik, laugarren belaunaldi batek prozesuan ikasleen parte-hartzearen garrantzia azpimarratuko du. Belaunaldi honek daukan kezka ikasleak bere burua lagun dezan zein laguntza eskaini behar zaion izango da. Irakaslea bera ikasle hobe bat izateko prozesuan sartuta dago. Ikaskuntza prozesua garapenezkoa da eta metagarria.

Azken belaunaldian kokatzen dugu lan honetan egin dugun ikasten ikastearen definizioaren hautua. Ikasteari eskainitako atalean ikasten ikastearekiko hainbat

kontzeptu azaldu ditugu. Ikusi dugun moduan, konplexua den kontzeptu bat da eta barnebiltzen ditu hainbat aldagai. Ondorengo lerroetan aldagai horietan sakondu eta hezkuntza inplikazioak azaleratuko ditugu.

3.2. Gako, aldagai, elementuak

Ez dago orokortasunera eraman gaitzakeen kontzeptuarekiko hausnarketarik (Díaz, 2006), eta egoera honek zaildu egiten du ikerketen arteko konparaketak egitea zein kontzeptuaren garapenaren inguruko lanik egitea. Alabaina, badira definizioek, oro har partekatzen dituzten hainbat ezaugarri. Jornet, García eta Gonzalezek (2012) beraien lanean jasotzen dituzte partekatzen diren elementuak, eta lan honetan, elementu horiek aipatzen dituzten beste lanen azterketa egin eta jaso da. Ondorioz, autore desberdinen (Bolívar, 2009a; Coll, Mauri eta Rochera, 2012; Deaking, 2006; Deakin eta beste batzuk, 2004; Escamilla, 2015; García, 2011; Gargallo, 2012; Hautamaki eta beste batzuk, 2002; Hoskins eta Fredriksson, 2008; Jornet eta beste batzuk, 2012; Martín eta Moreno, 2007; McCormick, 2006; Muñoz-San Roque eta beste batzuk, 2016; Nisbet eta Shucksmith, 1987; Pérez-Gómez eta Pérez-Granados, 2013; Segura, 2009; Smith eta Spurling, 1999; Stringher, 2006; Villardón eta beste batzuk, 2013; Villardón eta Yániz, 2011) definizioak aztertuta, hainbat alderdiren integrazioa burutu eta honako oinarritzko ideien zerrenda osatu dugu:

- Goi-mailako prozesua da. Oinarritzko kompetentzietan oinarritukoena. ikaskuntzaren oinarria da, hau da, ikaskuntza berrien egikaritzea errazten du.
- Ikasleak egiten duen prozesua da, **esanahiak eraiki** eta zentzua ematen dio ikasteari. Ikaskuntzaren inguruko aurkikuntza prozesu bat da. Ikastea zerbait automatikoa izan beharrean, ikastunaren aldetik kontzientzia maila altua eta **borondatezko** kontrola eta nahia (**motibazioa**) eskatzen du, ikaskuntza **auto-kudeatzeko** gaitasuna eta ardura.

- **Autonomia**, ikastun konpetenteago helburu. Modu autonomo batean aritzea.
 - Konpromisoa eskatzen duen prozesua da. Ikaskuntzarekiko eta pentsamenduarekiko konpromiso pertsonala, ikaskuntza berriekiko errespetua. Ikaskuntza ikasgarria dela dago oinarrian. Ikasleek izan dezaketen ikaskuntzarako edozein aukeren aurrean azaltzen den konpromiso pertsonalari forma ematen dion hainbat elementuren nahasketa konplexua da.
- Denboran garatzen da jasotako estimulazioaren bitartez eta estimulazioaren nolakotasunak eragina dauka. Izaera ebolutiboa dauka eta etapa bakoitzean ñabardura zehatzak ditu.
- Bizitza osoan zehar gauzatzen da, bizitza osoan zeharreko (LLL, Life Long Learning) ardatz nagusia da.
- Testuinguru anitzetan aritzeko eta sortzen diren erronkei erantzuteko gaitasuna da. Eremu desberdinen arteko eskakizun desberdinak ulertzea, inguru konkretuetara edo beharretara egokitzea, momentuko beharrei erantzuteko egokiak diren baliabideak erabiltzea eskatzen du. Testuinguru berrietarako aurretik izandako esperientzietan jasotakoa transferitzea eskatzen du, **ezagutzaren transferentzia**, alegia.
- Dimentsioaniztuna da. Aldagai kognitibo, afektiboak zein sozialek eragiten dute. Prozesuen kontrol aktiboa eskatzen du.
 - Kognitiboak: oinarrizko gaitasunen trebetasuna ezagutza berriak jaso eta prozesatzeko (**arreta**, memoria, informazioa aukeratzea...). Azpimarra jartzen da **auto-erregulazio** mekanismoetan (pertsonak ikastun gisa duen ezagutza pribilegiatua litzateke). Era berean, metakognizioa


azpimarratzen da, meta-ikaskuntzaren baitan (nola ikasten dugun eta nola ikasi behar dugun).

- Afektiboak: motibazioa eta auto-eraginkortasuna gisako ezagutzak daude bertan. Ezinbestekoa da ikaskuntza egoeraren kontrola izatearen sentsazioa, eta **auto-eraginkoratsun** sentimendua garatzen laguntzea. Metakognizioan ikasleak bere prozesua autonomoki bideratzea da, bere prozesuaz boteretzea, alegia. Prozesuaren boteretze horretan, ezinbestekoa da burua aldaketak egiteko gai ikustea, bere gaitasun eta esfortzuaren bidez.
- Sozialak: ikastea ekintza kolektiboa da. Ikasten ikastea prozesuan konfiantza eta segurtasuna duen eta laguntza eskatzeko zein eskaintzeko gai den pertsona sentitzea bezain garrantzitsua da identitatea ematen duen talde bateko partaide sentitzea. Beste batzuekin ikasten ikasteak eskatzen du ezagutzen, hitz egiten, entzuten, iritziak elkarbanatzen ikastea.
- Meta-ezagutza (**metakognizioa**) eskatzen du, pertsonarena (**ikastun gisa norbere burua ezagutzea**: ikastearen hautematea, nire gaitasunen kontzientzia hartzea, borondatea, autoestimua eta auto-kontzeptu akademikoa) ekintzarena (testuinguruak egiten dion eskaeraren kontzientzia hartzea eta balorazioa) eta estrategiena (**ikaste estrategia** errepertorioaren ezagutza izatea eskaerei egokitzea). Era berean gainbegiratze metakognitiboa, erregulazio eta kontrola (ikaskuntzaren gaineko ekintza bat, meta-ikaskuntza bat. Norberaren adimena ulertzea, alderdi indartsu eta hobetzeko enabaketa egitea).

Oinarrizko zerrenda honi, Bolívar-ek (2009a eta 2009b) bere lanetan aipatzen duen ideia hau gehitzen zaio, honekin bat egiten dugu eta. Bere hitzetan, ikasleak berak eman behar dio zentzua bere iraganari, hartutako erabakiak argudiatu beharko ditu, nolakoa izan eta nola jokatu erabaki beharko du eta modu horretan identitatea eraikitzen joango da modu hausnartu batean.

Pérez-Gómez eta Pérez-Granados-ek (2013) bat egiten dute ikasten ikastea norbanako bizi proiektua garatzeko gaitasun gisa aurkeztearekin. Norbanakoak bizi proiektua garatzeko kontutan izan beharko du non dagoen eta zein den jokatzen duen rola, bai gertuko testuinguruan zein testuinguru orokorrean, norbere identitatea ulertu eta birpentsatuz. Ikasten ikastea kontziente izatea da, nola ikasten dugun eta nola ikasi behar dugun kontziente izatea. Pertsonalki gai garela sentitzea eskatzen du eta motibazioan, norbanako bakoitzak bere buruarengan duen konfiantzan eta ikastearekiko gustuan izango du eragina.

Aipatutako autoreen lanetan ikus daiteke, ikasten ikastea konpetentziaren zein berarekin lotura duten aldagaien garapenean, irakaskuntzak erabat eragiten duela. Definizioan jasotako aldagai zein testuinguruarekin edo irakaskuntza egoerarekin zerikusia duten aldagai edo kontzeptuen arteko loturak 2. irudian ikus daitezke.



2. irudia: Ikasten-ikastea: aldagai eta kontzeptuen arteko loturak.

Ikasten-ikasteak dituen ertzak sakonago aztertuko ditugu ondorengo lerroetan, aldagai bakoitza aletu eta dagokion ikerketen aipamenak eginez. Atal eta azpiataletan antolatu ditugu kontzeptuak eta horretarako zenbakien hierarkia erabili badugu ere, horrek ez du adierazten kontzeptuen arteko orden edo lehentasunezko posizioirik. Ulergarriago egin nahia dago antolaketaren atzean.

3.2.1. Autonomia

Norberaren irizpideak kontutan izanik egoera berrietara egokitzeko, antzemandako beharrei erantzuteko zein inguruan aldaketa eta hobekuntzak bultzatzeko erabakiak hartzeko gaitasun eta prestutasuna da (Escamilla, 2008; Villardón eta Yániz, 2011).

Autonomiak norbanakoaren ezagutzari bide ematen dio. Escamilla-ren (2008) arabera autonomiak autoestimua orekatu eta gaintzeko nahia dakartza. Printzipio etikoetan eta besteen eta inguruaren ezagutza, errespetua eta estimuan oinarritutako balio eta arau moral pertsonalei ere bide ematen diotela dio autore berberak.

Hortaz, autonomia litzateke hezkuntzaren helburua eta ikasten ikastea berau lortzeko ekintza. Izan ere, norbanakoak bere ikaskuntzaren ardura beregain hartu behar du eta bere kabuz eta besteekin ikasteko estrategiak garatu behar ditu (McCormik eta James, 2007). Goi-mailako hezkuntzan arrakastarako gakoa da (Palazón, Gómez, Gómez, Pérez eta Gómez, 2011).

Rué-ren (2007) arabera autonomia printzipio politiko, etiko, (sozio)kognitibo eta teknikoaren ikuspegitik uler daiteke. Autonomiaren izaera politikoa prozesuaren kontrol osoaren garapena da eta ikaskuntza objektuak oso esanguratsua den aldaketa kognitibo eta pertsonala ekarri behar dio pertsonari. Izaera etikoari erreparatzen badiogu, hartutako erabakien aurrean ardura-hartze eta kontu-ematea litzateke. Dimentsio (sozio)kognitiboak norbanakoaren ikaskuntzaren eraikuntzari egiten dio erreferentzia, bere ikaskuntzaren ardura zehatz bat aktiboki bere egiten duenean edo transferitzen zaionean. Eta, azkenik, autonomiaren izaera teknikoari dagokionean, baliabide instrumentalen menperatzeaz ariko gara, ikaskuntza alderdi zehatzetan indartzeaz, hala nola, edukietan zein prozeduretan.

Autonomia garatzen den gaitasun bat da, alegia, testuinguruko baldintzetan eraginda irakaslearen esku-hartzeak erraztu dezake autonomiaren garapena. Maila goreneko garapena ikaskuntzaren sakoneko ikuspegiarekin lotzen da (Rué, 2007). Horretarako baina, kontutan izan beharreko baldintza batzuk daude: helburu eta emaitzen ebidentziak aztertzeke eta harremanak eraikitzeke aukerak izatea; helburu, prozedura, irizpide, denbora eta espazioen inguruko informazioa eskura izatea; zein, ikaskuntzaren inguruko ebidentziak biltzeko sistema bat eskura izatea. Kontutan hartu beharreko beste baldintza bat, egiantzeko edo egiazko egoeratan aplikatzeko aukerak izatea da eta beste batzuekin kolaborazioan egotea. Bukatzeko, espezializatutako laguntza eskura izateak garapenean eragin positiboa izango du eta, ikaskuntzaren

erregulazio edo auto-erregulaziorako baliabideak eskuragarri izatea edo berauetara jotzeko aukera izatea baldintzatzailea izango da.

3.2.2. Metakognizioa

Norbanakoak bere prozesu edo produktu kognoszitiboetaz (Segura, 2009) edo harremana duten beste aldagai batzuetaz duen ezagutza (Flavell, 1979) metakognizioa deitzen da. Metakognizioa ez da kognizioaren isla zuzena, baizik eta kognizioaren funtzionamenduaren kontrolaren bidez eraikitzen den eredu bat da (Efklides, 2009).

Metakognizioa norbere pentsamendu eta sentimenduen kontrol, erregulazio eta auto-balorazioan oinarritzen da (Segura, 2009; Van der Stel eta Veeman, 2010), ikaskuntza prozesuaren inguruko kontzientzia hartzea eskatzen du eta hipotesiak baieztatzea, aurreikuspenak egitea zein hartutako erabakien ondorioak neurtzea baimentzen du (Aznar-Minguet, 1992).

Pentsamenduaren ganean pentsatzeak (Efklides, 2006; Moral, 2008; Suárez eta Fernández, 2011), ikaskuntza prozesuaren kontzientzia izateak eta ikaskuntza berrietan erabiltzeak (Aznar-Minguet, 1992; Coll eta beste batzuk, 2012), norbanakoaren ikaskuntza prozesuen inguruko hausnarketa eta kontzientzia hartze bat eskatzen du (nola ikasten dut?).

Metakognizioak apurka-apurka erantzukizuna norberarengan hartzea errazten du eta ikaskuntza autonomia sustatzen du. Denborarekin garatzen eta hobetzen joan daiteke (Van der Stel eta Veenman, 2010).

Escamilla-k (2015) hiru dimentsiotan garatzen dela proposatzen digu. Dimentsio bat dakigunaren eta ez dakigunaren gaineko ezagutzarekin lotuta egongo da, baita, ikasteko gai garen eta ikasi nahi dugunaren edota interesatzen zaigunaren gaineko ezagutzaz. Bigarren dimentsioa gai, eduki zein eskakizunen gaineko ezagutzarekin dago

lotuta. Azkena, berriz, eskakizunari aurre egiteko ditugun estrategia aukeren ezagutza izango litzateke.

Efklides-ek (2009), aldiz, metakognizioak ondorengo oinarriko trebetasun hauek barnebiltzen dituela jasotzen du bere lanean: orientazio estrategiak (helburuak ezartzearekin lotuta, ekintzaren zentzua ulertu eta eskakizuna neurtzeko balio dutenak), planifikazio estrategiak (ekintzari aurre egiteko sekuentziarekin lotuta, azpi-helburuak ezartzea zein kronograma bezalako estrategiak), prozesatze kognitiboa erregulatzeko estrategiak (hasierako prozesu kognitiboek nahi beste aurreratzen ez dutenean martxan jartzen dira), planifikatutako ekintzaren martxan jartzea egiaztatzeko estrategiak (planifikatutako sekuentzia zein kronogramak aurrera eramaten ari diren ziurtatzeko estrategiak, baita, behar berriak detektatzeko zein akatsak ikusteko), ekintzak burutzerakoan lortutako emaitzak ebaluatzeko estrategiak (eginiko prozesuak ezarritako kalitate irizpideak betetzen dituzten kontrolatzeko estrategiak, baita erabili den planifikazioa zein kontrolerako erabilitako estrategia aztertzeko estrategiak) eta auto-erregulazio estrategiak (prozesu osoa kontutan izanik eginiko esfortzu guztia, gertatu den guztia, indar-gune eta ahulguneak, emaitzekin loturiko arrazoiak eta aurrera begira kontutan izan beharrekoak ebaluatzeko estrategiak).

Arazoaren ebazpenean, hau da ekintza burutzerakoan martxan jartzen ditugun beste estrategia metakognitibo batzuk ondorengo hauek dira: ebazpenaren zehaztasunaren epaia (erantzunaren kalitateari egiten dio erreferentzia; zuzena edo okerra), konfiantza sentsazioa (nola iritsi den ebazpenera; arintasunez edo etendurekin) eta asebetetze sentimendua (ebazpena irizpide eta estandarrekin bat datorren kontrolatzen da emaniko erantzunaren kalitatea kontutan izanik).

Metakognizioa eta aldagai desberdinen arteko erlazioa ikertua dago. Alde batetik, transferentzia eta estrategia metakognitiboen artean lotura dagoela jasotzen dute

hainbat ikerketek (Beltrán, 1998; Halpern, 1998; Renninger eta Wozniak, 1985). Bestalde, metakognizio eta ikaskuntza kooperatiboen arteko harremana ikertua dago eta erlazio positiboa azaltzen da (King, 1998; Palincsar eta Brown, 1984; Rogoff, 1990), baita, ikaskuntzaren arrakastarekin (Herrera eta beste batzuk, 2011). Era berean, metakognizioa eta emozioen kontrolaren artean korrelazio positiboa ere jasota dago (Bortoletto eta Boruchovitch, 2013). Gainera, sakoneko ikuspegian aritzeko beharrezkoa da metakognizioaren bidez ikaskuntzaren auto-erregulazioa (Aznar-Minguet, 1992). Metakognizioa eta afektuaren arteko harremana agerian uzten du Efklides-ek (2006) bere lanean. Ekintza batek zailtasun sentsazioa edo ezaguna izatearen sentsazioa sor dezake. Zailtasun sentsazioa afektu negatiboekin eta ezagun sentsazioa afektu positiboekin lotuta dagoela azaltzen du autore berak. Zailtasun sentsazioa ekintza burutzerakoan mantendu edo alda daiteke, prozesuan zehar eginiko auto-kontrolaren bidez. Efklides-ek (2006) aipatzen digu, zailtasun sentsazio honek laguntzen digula denbora zein esfortzua bezalako aldagaien estimazioa egiten.

Bukatzeko, metokognizioaren baitan, gure lanerako aipagarriak diren bi aldagai nabarmenduko ditugu. Alde batetik, **ikastun gisa norbere burua ezagutzea** dago. Auto-kontzeptu erreal batek ikaskuntza helburu errealak ezartzeko aukerak sortzen ditu, baita, itzarobide errealak izateko, estrategia eraginkorrak hautatzeko, motibazio maila egokiak mantentzeko zein etengabe hobetzen joango den bizitza osoan zeharreko ikaskuntza proiektu bat eraikitzeko (Bornholt, 2000). Villardón eta beste batzuk (2013) auto-kontzientzia izendatzen dute. Núñez eta beste batzuk (1998) eginiko ikerketa kontutan izanik, ondorioztatzen dute auto-kontzeptua eta auto-estimua zuzenki erlazionatuta daudela ikasten ikastearekin. Bestalde, **ikaskuntzaren auto-kudeaketa** legoke. Definizioz, helburuak ezarri, hauen lorpenerako prozesuak planifikatu,

prozesuen garapena erregulatu eta ebaluatzeko gaitasuna litzateke. Metakognizioan oinarritzen da (Villardón eta beste batzuk, 2013).

3.2.3. Ikasten ikastearen dimentsio anitzak: kognitibo, afektibo eta soziala

Dimentsio afektiboa eta soziala beste aldagai batzuk aztertzerakoan aipatuak izan dira, hala nola, harremanak zein motibazioa lantzerakoan. Gainera, dimentsio kognitiboaren baitan azalduko ditugun elementuak dimentsio afektibo eta sozialetik ere aztertu daitezkeela argituko dugu. Baina, literaturan duten erreferentzia moduagatik eta aztergai dugun konstruktuekin duten esanguratasunagatik eta ikerketetan, batez ere, azken biek duten islagatik jarraian datozen hauek sakonduko ditugu: arreta, ikaskuntza auto-erregulatua eta ikaste estrategiak.

3.2.3.1. Arreta

Ekintza psikikoa objektu zehatzetan erdiratzeko zein ekintza burutzeko eta kontrolatzeko gaitasuna da (Ortiz, 2009). Ikasten ikasterako ezinbestekoa da. Prozesuak hasi eta mantentzeko motibazioarekin lotuta dago (Escamilla, 2015). Ekintzak sortzen duen emozioak arreta baldintzatzen du (Moral, 2008).

3.2.3.2. Ikaskuntza auto-erregulatua

Hainbat dira ikaskuntza auto-erregulatuaren inguruan aurki daitezken definizioak (Pintrich eta De Groot, 1990). Bertan hiru osagai nagusi aipatu daitezkeela nabarmentzen dute. Lehenengoz, ikaskuntza auto-erregulatuak estrategia metakognitiboak barnebiltzen dituela diote. Ikasleek estrategia hauek behar dituzte bere kognizioa planifikatzeko, kontrolatzeko eta aldatzeko. Bigarrenegoz, ekintza akademikoetan ikasleek daukaten esfortzuaren kontrol eta kudeaketa legoke. Hirugarrenegoz, benetako estrategia kognitiboak leudeke, ikasleek materialak ikasteko, oroitzeko eta ulertzeko erabiltzen dituztenak.

Alabaina, definizio hau osatua izan da, izan ere, ikaskuntza auto-erregulatuak ez baitu soilik kontutan hartzen prozesu eta elementu kognitibo eta metakognitiboak (Gargallo, 2012), ikaskuntza auto-erregulatuak eragina dauka osagai kognitibo eta afektibo-emozionalen arteko harremanetan (Gil, Bernarás, Elizalde eta Arrieta, 2009). Auto-erregulazioaren oinarritzko elementu hauek proposatzen ditu Moralek (2008): ikaskuntza estrategiak, ezagutza mota desberdinen nahasketa, motibazioa, borondatea edo nahia eta emozioa.

Garapenari dagokionez, ekarpen desberdinak daude literaturan. Schunk eta Zimmerman-ek (1997) auto-erregulazioaren garapenerako lau maila proposatzen dizkigute (1) behaketa, (2) emulazioa, (3) auto-kontrola eta (4) auto-erregulazioa. Lehenengo bietan eragin sozial maila altua da. Azken bietan, aldiz ikasten duen subjektuarengana pasatzen da eragin maila.

Maila hauei hiru fase gehitu behar zaizkie. Modu honetan osatzen da ikaskuntza auto-erregulatuaren eredu ziklikoa: Lehenengo fasea, aurreikuspena; bigarrena, jardueraren kontrola eta hirugarrena, auto-hausnarketa.

Ikaskuntza auto-erregulatuak ikasten ikastearen baitan prozesu klabe bat da, kompetentziaren menperatze maila gorena lortzea berak erraztuko baitu (Rosário eta beste batzuk, 2014; Salmerón eta Gutiérrez, 2012). Prozesu honetan ikasleak bere ikaskuntza gidatuko du eta helburuak zehaztuko ditu, hots, aktiboa izango da (Boekaerts, 1996 eta 1999; Boekaerts eta Corno, 2005; Pintrich, 2000; Schunk eta Ertmer, 2000; Winne, 2004; Zimmerman, 1998 eta 2008). Aktibo izate horretan ekintza burutu behar duenean motibazioa, jarrera eta kognizioa gidatu eta kontrolatzen ditu (Bortoletto eta Boruchovitch, 2013; Heikkilä eta Lonka, 2006; Moral, 2008; Rosario eta beste batzuk, 2014; Salmerón eta Gutiérrez, 2012; Tavakolizadeh eta Ebrahimi, 2011). Prozesu honetan ikasleak transformatu egiten dira (Zimmerman, 2008), autokritika eta

norberarekiko kontzientzia maila altua eskatzen duten prozesuak dira eta (Jaafar, Awaludin, Bakar, 2014). Ikaskuntza auto-erregulatu batean ikasleak inizatiba, iraunkortasuna eta egokitzeko gaitasunak adierazten ditu (Zimmerman, 2008). Ezinbestean beharrezkoa da ikaslea kalitatezko ikaskuntza esperientzietan pertsonaia nagusia izatea (Popper, 1995).

Escamilla-k (2015) auto-erregulazioa planifikazioan, gainbegiratzean eta ebaluazioan gauzatzen dela dio. Ezinbestean planifikaziorako estrategiak (zeintzuk dira lortu nahi diren ikaskuntza ekintza eta helburuak), gainbegiratze estrategiak (helburuaren lortze bidean ekintzen egokitzapenak) eta ebaluazio estrategiak (prozesu eta emaitza aztertzeko) menperatzea eskatzen du honek. Ikaskuntza eraginkorragoak lortze bidean ezinbesteko prozesuak dira aipatutako hiru hauek.

Moral-ek (2008) mota desberdineko ezagutzen nahasketa eta borondatea ikaskuntza auto-erregulatuaren oinarriko elementu gisa aipatzen ditu. Lehenarekin lotuta, ezinbestean ikaskuntza iraunkor eta estrategiko bat lortzeko mota hauetako ezagutzak landu behar direla aipatzen du: ikasle moduan norbanakoaren ezagutza; burutu beharreko ekintza akademikoen ezagutza; ezagutza berria jasotzeko, integratzeko eta erabiltzeko estrategien ezagutza eta ikaskuntzarako testuinguruaren ezagutza. Bigarrenari erreferentzia eginez, bereizten ditu borondatea eta motibazioa (aurrerago helduko diogu aldagai honi). Borondateak ekintza mantendu egiten du, mantentzen den egoera da, eta motibazioa, aldiz, konpromisoaren aurretik dagoen egoera litzateke, ikasleak katigatzea lortzen duena litzateke.

Ikaskuntza auto-erregulatuaren inguruko ikerketak 80. hamarkadan hasi ziren (Rosario eta beste batzuk, 2014; Tavakolizadeh eta Ebrahimi, 2011) eta hainbat ertzetatik aztertu da aldagai hau. Lan honetan ikaskuntza auto-erregulatuaren markoan kokatutako ikasleen inguruko ikerketen ekarpenak aipatuko ditugu. Hori horrela, esan

dezakegu, ikaskuntza auto-erregulatuak lotura daukala autonomia eta ardurarekin (Gargallo, 2012) eta Heikkilä eta Lonka-k (2006) eginiko ikerketan ondorioztatu zuten ikasleek sakoneko ikuspegia, ikaskuntzaren auto-erregulazioa eta estrategia baikorrak elkarrekin azaltzen dituztela, beraz, lotura dutela. Era berean, azaleko ikuspegia, ikaskuntzaren erregulazioan arazoak eta estrategia ezkorak lotuta azaltzen dira. Ikaskuntza auto-erregulatuaz azaltzen den kasuetan ikasleen autoestimua esanguratsuki hazten da (Perry, 1998). Gainera, esfortzuan, interesean, ikaskuntzarako orientazioan eta auto-eraginkortasun hautematean gorakada adierazten dute ikasleek (Stoeger eta Ziegler, 2007). Barne motibazioa, auto-eraginkortasuna, esfortzua, arreta, auto-motibazioa eta denbora galtzarekin lotutako puntuazioei dagokionean emaitza hobekak lortzen dituzte auto-erregulatuagoak diren ikasleek (Schmitz eta Wiese, 2006; Schunk eta Ertmer, 2000). Auto-erregulazioak ikaskuntza arrakastan zuzeneko eragina daukala hainbat ikerketek adierazi dute (Bartels eta Magun-Jackson, 2009; Efklides, 2009, 2011; Pintrich eta Scharuben, 1992; Suárez eta Fernández, 2011; Tavakolizadeh eta Ebrahimi, 2011; Weinburhg eta Englehard, 1994; Zimmerman, 2000, 2008). Bestalde, ikasleek beraien prozesuen kausen egozpenak egiterakoan eragina ikusten da; barneko kontrol lekunean kokatuago eta egozpen ezkorren moldaketak egiteko aukera gehiago dituzte auto-erregulazioa garatuago duten ikasleek (Shahrara eta Soleimannegad, 2002; Tavakolizadeh eta Ebrahimi, 2011).

3.2.3.3. Ikaste estrategiak

Ezagutzaren eraikuntzak informazioa baino zerbait gehiago eskatzen du (Gargallo, 2012; González, 2014). Informazio kantitate handietatik egokia aukeratzea, iturri desberdinak kontutan izan eta konparatzea, informazioa sakon aztertu eta bereiztea, kritikoki baloratzea eta modu esanguratsuan egitura kognitiboetan barneratzea eskatzen du ezagutzaren eraikuntzak.

Aipatutako urrats edo ekintzak gauzatzeko ikaskuntza estrategiak lagungarriak dira. Ikaskuntza estrategia dimentsio-anitzekoa, polisemikoa eta sarritan nahasgarria den konstruktua bat da (Gargallo, 2012). Garapena izan duen kontzeptu bat da (Escamilla, 2015) eta definizio desberdinak daude. Jarraian hauetariko batzuk islatuko ditugu.

Ikaskuntza prozesua errazten duen edozein jarrera zein pentsamendu gisa definitzen dute Hoskins eta Fredriksson-ek (2008) aldiz, pentsamenduaren tresna gisa aurkezten digu Moral-ek (2008) bere lanean. Sáiz, Montero, Bol-Arreba eta Carbonero-k (2012) informazioa jaso eta lantzeko prozesuetan oinarritzko zutabe direla diote. Buruko ekintza (kognitibo eta metakognitibo) gisa uler daitezke, ezinbestekoa informazioa ezagutza bihurtzeko, hots, ikasteko. Gargallo-ren (2012) lanean ikaste estrategiekin lotutako hainbat aldagai aurkituko ditugu. Hala nola, borondatea, helburuen kontzientzia eta intenzionalitatea, ikasleak bere ekintza kognitiboaren kontrola zein aukeran dauden ibilbideen balorazioa egin ondorengo testuinguruari egokitzen zaizkion erabaki hartzeak. Aipatutako aldagai guzti hauek egoera konkretu batean (Monereo, 1990) ikaskuntza arrakastatsua izateko ekintzak mobilizatzea baimentzen dute (Pintrich eta De Groot, 1990). Elementu guzti hauek autonomiarekin erlazionatuta daude. Izan ere, erabakiak hartzeko prozesu kontziente eta intenziozko bat da. Villardón eta beste batzuren (2013) lanean ikaste estrategiak helburuen lorpena bideratutako ekintza gisa definitzen dira eta ikaskuntza egoerak baldintzatuta daudela gehitzen dute. Bortoletto eta Boruchovitch-en (2013) ikerketaren ondorioetako bat da ikaste estrategiak eta erregulazio emozionalak harremana dutela, bere emozioen gainean ekiteko edo eragiteko gai diren ikasleek errendimendu akademiko hobea adierazi baitzuten.

Ikaste estrategien hainbat sailkapen aurkitu ditzakegu autore desberdinen arabera. Jarraian azalduko ditugu autore desberdinek egindako sailkapenak, baina, **4. Taulan** ikus daitezke guztiak bilduta.

Alde batetik, Bortoletto eta Boruchovitch (2013), Pintrich eta García (1993) eta Pintrich, Smith, García eta McKeachie-n (1991) lanetan oinarrituta hiru ikaskuntza estrategia mota bereiz daitezke. Estrategia kognitiboak (informazioa erreparatzea, sortzea eta antolatzea, zein pentsamendu kritikoa), estrategia metakognitiboak (ekintzen planifikazio, kontrol eta erregulazioa) eta baliabideak erregulatzeko estrategiak (denbora eta ikaste giroa antolatzea, esfortzua erregulatzeko, berdinkideen arteko ikaskuntza eta laguntza bilatzea). Weinstein eta Mayer-ek (1986) egiten duten sailkapenaren arabera, aldiz, ondorengo hiru estrategia bereizten dira. Estrategia afektiboak (arreta jartzeko, estutasuna gutxitzeko eta motibazioa mantentzeko estrategiak), ikaskuntza bideratzeko estrategiak (auto-galdeketa eta akatsen identifikaziorako estrategiak) eta informazioa antolatzeko estrategiak. Rhee eta Pintrich-ek (2005) eginiko lanean lau estrategietan aurkezten du sailkapena. Batetik, kognizioaren erregulaziorako estrategiak (kognizio akademikoaren norabidea, kontrola eta erregulazioa ziurtatzeko dira eta errepikapenezko, sorkuntzarako eta antolaketarako estrategiak, zein estrategia metakognitiboak barnebiltzen ditu). Bigarrenik, motibazio eta afektuaren erregulaziorako estrategiak daude (zentzua, eraginkortasun pertsonala, sari pertsonalak zein hobetzeko nahia leudeke). Hirugarrenik, jokabidea erregulatzeko estrategiak (adierazten den jokabidea zuzendu, kontrolatu eta erregulatzeko erabiltzen dira, hala nola, denboraren kontrola edo esfortzuarena). Azkenik, testuinguruaren erregulaziorako estrategiak (ikaskuntzarako giroa eta testuingurua erregulatzeko erabiltzen dira).

Sailkapenekin jarraituz autore batzuen (Ayala, Martínez eta Yuste, 2004; Corno, 1994; García eta Pintrich, 1991; Gargallo, 2000) lana kontutan hartuz, ikaskuntza estrategiek hainbat elementu barnebiltzen dituztela ikus daiteke. Alde batetik, afektibo-emozionalak eta laguntzazkoak (nahi izatea), bestetik, metakognitiboak (erabaki hartzeak eta ebaluazioa) eta, azkenik, kognitiboak (gaitasuna edo ahalmena). Elementu hauek kontutan izanik, Gargallo-k (2012) ikaste estrategien ondorengo sailkapena luzatzen du:

- Estrategia afektiboak, gogozkoak eta laguntzazkoak (NAHI IZATEA). Prozesua martxan jarri eta mantentzen dute. Alde batetik, estrategia afektibo-emozionalak eta motibaziozkoak daude (prozesu motibatzaileak, jarrera egokiak, autokontzeptu eta autoestimua, auto-eraginkortasuna, gaitasun sentimendua, antsietatearen kontrola, estresa gutxitzea...). Bestetik, testuingurua kontrolatzeko, elkarrekintza sozialerako eta baliabideen hobekuntzarako estrategiak ditugu (inguruko baldintza egokiak eta espazioaren, denboraren, materialen zein pertsonen arteko harremanen kontrola).
- Estrategia metakognitiboak, erregulaziozkoak eta kontrolezkoak (ERABAKI HARTZEAK ETA EBALUAZIOA). Jarritako helburuak eta momentuko testuingurua kontutan izanik erabiltzen diren estrategia eta prozesu kognitiboen ebaluazioaren ardura. Ezinbestekoak dira, alde batetik ezagutza (persona beraren, eskuragarri ditugun estrategien, trebetasun eta mugen, ekintzaren helburu eta ekiteko testuinguruaren ezagutza) eta kontrola (planifikazio estrategiak zein ebaluazio, kontrol eta erregulazio estrategiak)
- Informazioa bilatzeko, biltzeko eta aukeratzeko estrategiak.
- Jasotako informazioa prozesatzeko eta erabiltzeko estrategiak: materiala ulertzeko, integratzeko eta erabilera eraginkorra lortzeko erabiltzen direnak.

Zehatzago esanda, informazioa jasotzeko estrategiak (arreta jartzea, oharrak eta apunteak hartzeko teknikak, ...), informazio kodifikazio, lanketa eta antolaketa estrategiak (berregituraketa prozesuen kontrola, informazioaren lanketa eta antolaketa norbanakoa egiteko eta estruktura kognitiboan hobeto barneratzeko teknikak, hala nola, azpimarra, goiburuak, laburpenak...), sormenezko estrategiak (pentsamendu kritiko, norbanakoaren sormenezko proposamenak...), errepikapen eta biltegitratze estrategiak (epe ertain eta luzeko oroimenaren prozesuen kontrola; kopia, errepikapen, baliabide mnemoteknikoak...), informazioa berreskuratze estrategiak (oroimen eta berreskuratze prozesuak, oroimen ariketak) eta komunikazio, jasotako informazioaren erabilera eta transferentzia estrategiak (jasotako informazioa modu eraginkorrean erabiltzea; txostenak eraikitze teknikak, ikasitakoaren laburpenak, ikasitakoa erabili eta transferentzia egiteko ariketak...)

Sáiz eta beste batzuk (2012) bost fase edo kategoria aipatzen dizkigute: informazio biltzeko fasea, kodifikazio fasea, berreskuratze fasea, fase metakognitiboa eta prozesatzeari laguntzeko fasea. Azken biak ikasten ikastearekin lotuago daudela gaineratzen dute.

4. Taula:

Ikaste estrategien sailkapena autore desberdinen arabera.

Autoreak	Urtea	Sailkapena	Estrategiak
Pintrich eta García Pintrich, García eta McKeachie Bortoletto eta Boruchovitch-en	1993 1991 2013	Hiru ikaskuntza estrategia	Estrategia kognitiboak Estrategia metakognitiboak Baliabideak erregulatzeko estrategiak
Weinstein eta Mayer	1986	Hiru ikaskuntza estrategia	Estrategia afektiboak Ikaskuntza bideratzeko estrategiak Informazioa antolatzeke estrategiak
Rhee eta Pintrich	2005	Lau ikaskuntza estrategia	Kognizioaren erregulaziorako estrategiak Motibazio eta afektuaren erregulaziorako estrategiak Jokabidea erregulatzeko estrategiak Testuinguruaren erregulaziorako estrategiak
Gargallo	2012	Lau ikaskuntza estrategia	Estrategia afektiboak, gogozkoak eta laguntzazkoak Estrategia metakognitiboak, erregulaziozkoak eta kontrolzkoak Informazioa biltzeko, biltzeko eta aukeratzeko estrategiak Jasotako informazioa prozesatzeko eta erabiltzeko estrategiak
Sáiz, Montero, Bol- Arreba eta Carbonero,	2012	Bost fase edo kategoria	Informazioa biltzeko fasea Kodifikazio fasea Berreskuratzeko fasea Fase metakognitiboa Prozesatzeari laguntzeko fasea

3.2.4. Ezagutzaren eraikuntza

Ezagutzaren eraikuntza forma publiko eta komunitarioan ulertu behar da. Izan ere, errealitateari egozten zaion esanahia, eraikuntza eta negoziazio prozesu luzeen ondorioa da (Aznar-Minguet, 1992). Banakoaren esperientzia bere horretan izango da “zentzua” daukanean, eta ezinezkoa izango da zentzua izatea kultura erreferentziarik gabe. Izan ere, kulturaren sakon ezarrita daude interpretaziorako testuinguruaren adierazpide diren esanahiak (Bruner, 1991). Ikaskuntzan erabiliko ditugun materialei esanahiak egoteko elkarrekintza egoerak sortzea beharrezkoa da interpretazio modu desberdinak partekatzeke.

Ezagutza eraikitzea, sortzea da eta burutu beharreko ekintzen gaineko subjektuaren hausnarketa kontzienteak eta elkarrekintza egoerek baimentzen duten

ekintzen gaineko zentzu egozpenek, informazioa sortzea eta informazio berri hau egitura kognitiboan egoki barneratzea errazten dute. Horrela, subjektua modu esanguratsu batean bere esperientzien mundua antolatzen joango da (Aznar-Minguet, 1992).

Ezagutza berri oro aurretiko ezagutza gainean eraikitzen da, daudenak gaindituz. Honek esan nahi du subjektuak bere prozesua egituratu eta zuzendu behar duela. Villardón eta beste batzuk (2013) identifikazioa, arrazonamendua, kontzeptualizazioa eta pentsamendu kritikoarekin lotzen dute.

3.2.5. Ezagutzaren transferentzia

Ekintza berri baten aurrean ezagutza eta trebetasunak ekintza horren eskakizunen arabera egokitzen dira. Egoera berri hauetan ikasteko gaitasunari deitzen zaio transferentzia (Villardón eta beste batzuk, 2013). Konpetentzien ereduen ezaugarrietako bat da.

3.2.6. Auto-eraginkortasuna

Igurikimenaren osagaia da eta egoera bati aurre egiterakoan ikasleak bere gaitasunekiko duen sinesmenei egiten dio erreferentzia (Pintrich eta DeGroot, 1990), hau da, ikasleek bere gaitasunekiko duten sinesmen subjektiboa da (Tang eta Neber, 2008).

Pertsonak egoera bati aurre egiterakoan lortuko diren emaitzak positiboak izateko jarraitu beharreko bidea erraza edo zaila izango den aztertzen du. Azterketa hau gaitasunaren inguruko sinesmenekiko auto-ebaluazioa litzateke. Hainbat elementu pertsonalek eragiten dute, baina, ez datoz pertsonaren baitan, testuinguruan sortzen dira. Ikaskuntza esperientzia berak laguntzen du auto-eraginkortasun sentimendua garatzen (Bandura, 1997).

Ikasleak gero eta eraginkorrago sentitu eta gero eta konfiantza gehiago izan etorkizunean eragiteko are eta altuagoak izango dira beraien buruari ezarriko dizkioten erronkak eta baita berauekiko konpromisoa (Martín eta Moreno, 2007). Gaitasun motibo-emailea ere badauka, eta beraz, ekintza burutzerakoan egingo den esfortzu maila eta jokabideen ekina mugatuko du (Efklides, 2011; Hoffman eta Spataru, 2008). Era berean, auto-eraginkortasunak ikasleak barneratzeko egingo duen ekintzen aukeraketan eragiten du (Schunk, 1995; Schunk eta Ertmer, 2000). Auto-eraginkortasuna lantzeak ikasleen estrategia kognitiboen erabilera indartzen du, auto-erregulazioa kasu (Pintrich eta De Groot, 1990; Schunk eta Ertmer, 2000).

3.2.6.1. Motibazioa

1990. hamarkada amaieran motibazio eta kognizioaren arteko harremanarekiko interesa nabarmen hasi zen (Järvelä, 2001) eta aldagai honen inguruko ikerketak norabide hau hartu zuten. Egun, ez dago aldagaiaren inguruan definizio bakar eta adosturik (Mas eta Medina, 2007). Aurretik aipatu dugu, adibidez, Moral-ek (2008) motibazioa eta borondatea bereizten dituela, baina, hainbat autore kontutan izanik osatu dugu ondorengo definizioa. Motibazioa, pertsonen barne egoera bat da eta jarrera aktibatu, gidatu eta mantentzen dute (Green, 2002). Ikasleak ekintza burutzeko gai direla sinestea dakar eta beraien ekintzaren erantzukizuna dutela (Pintrich eta De Groot, 1990). Pentsatzeko moduan garrantzi handia dauka (Alonso, 1995), izan ere, ekintzaren barruan izango duen inplikazioa zehazten du (Wolters eta Pintrich, 1998). Era berean, ekintzak sortzen dion ezinegon maila zein auto-efikazia hautemateak definituko ditu (Pintrich eta beste batzuk, 1991; Pintrich eta García, 1993). Motibatzeak lehentasunak aldatzea, mugiaraziko gaituzten indar berriak sortzea zein mugimendu kognitiboaren norabidea aldatzea esan nahi du Claxton-entzako (1984).

Hainbat dira egiten diren sailkapenak (Mas eta Medina, 2007), eta horietako bat barne eta kanpo motibazioarena da. Desmotibazioa ere aipatzen dute sailkapen honetan.

- Desmotibazioa: motibazio eza da, ekiteko intentzio eza. Barne zein kanpo motibaziotik bereizten da (Mas eta Medina, 2007). Ikasle desmotibatu batek ez dauka intentziorik eta ez dio zentzurik aurkitzen ekiteari. Ondorioz, egoera akademikoetan sortzen diren ekintzen aurrean ilusiorik ez izatea dakar, eta, kasu batzuetan ikasketak alde batera lagatzea (González, 2005).
- Kanpo motibazioa: ekintzarekin zuzeneko lotura ez duen ordain batek eragindako motibazioari deitzen zaio. Kanpo pizgarriak dira, asebetetze sentimendua sortzen dute baina, ekintzarekin zuzeneko harremana ez dute, beraz, asebetetzea eta ekintza independenteak dira (Rosselló, 1995).
- Barne motibazioa: ez du kanpo pizgarrien beharrik, ekintza beraren baitan dago pizgarritasuna (Rosselló, 1995). Berezko interesa sortzen dute ekintzek eta ez dute kanpo errefortzurik behar. Berritasuna, erronka, norbanakoaren gaitasunen handitzea, miatzea eta ikaskuntza bilatzeko berezko joera bat da (Mas eta Medina, 2007).

Bestalde, Paris eta Cross-ek (1983) motibazioa ondorengo aldagaien arabera baldintzatua egongo dela aditzera ematen digute: helburuei egozten zaien balioa, hautematen den zailtasuna eta egoerari aurre egiteko gaitasun pertsonalen hautematea. Burón-en (1995) hitzetan, ikaskuntzaren kontrola ere definitzen du ikastunaren motibazioak. Ikastea esfortzua eskatzen duen prozesu bat da eta horrek ezinbestean motibazioa eskatzen du (Efklides, 2011) eta arretarekin lotutako prozesuetan zuzenean eragiten du eta barne zein kanpo motiboak norabide batean ekiteko indarrak dira. Barne motibazioak botere handiagoa dauka arreta mantentzerakoan (Pozo, 2008; Nieto, 2011).

Motibazioaren garapena eta ikaskuntza arrakastak erlazioa dute hainbat ikerketen arabera (Heikkilä eta Lonka, 2006; Hoffman eta Spartariu, 2008; Paris eta Cross, 1983; Pintrich eta Schrauben, 1991; Pintrich eta Schunk, 2002; Suarez eta Fernández, 2011; Zimmerman, 2000), izan ere, motibazioa baldintzatzaile erabakigarria da ikaskuntza eta errendimendu akademikoan (Mas eta Medina, 2007).

Ikasten ikastearekin lotuta, barne motibazioa aipatu behar da. Izan ere, barne motibazioak norbanakoaren gaitasun eta autodeterminazio sentimendua handitzen du. Sentimendu honek autoestimua eta asebetetzean eragina dauka. Era berean jokabidearen auto-erregulazio eta barne-egozpenerako estiloak indartzen ditu eta konpromiso kognitibo altuagoak lortzen dira (Mas eta Medina, 2007; Pintrich eta De Groot, 1990). Honek guztiak autonomiarantz bideratzen du ikaslea (Mas eta Medina, 2007).

3.2.7. Irakaste ekintzan eragiten duten aldagaiak

Irakaslea ikaste irakaste prozesuan gako garrantzitsuetako bat da. Irakaslea edo irakaskuntza, ikaskuntza moduan, bi tradiziotatik egon da definituta, batez ere, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Argia da bigarrenaren aldeko hautua lan honetan, baina, oraindik, herrialde askotan irakaskuntza modu neurgarrian planteatzen da.

Beraz, nahiz eta tradizio kualitatiboa goi-mailako hezkuntzan aproposagoa dela literaturan zein estrategia orokorretan argi dagoen, martxan jartzen diren praktikak beste era batekoak dira. Irakasleek ikasle kritiko eta aktibo bat nahiko lukete ikasketak amaitzerakoan, baina, praktika tradizio kuantitatiboan kokatua dago.

Irakaskuntza ikuspegiekin lotutako ikerketa ikaskuntza ikuspegiekin alderatuta oso murrizta da. Hala ere, 80. hamarkadan irakaslearen pentsamenduak eta sinesmenek irakaskuntzan duen eraginarekiko interesa azaltzen da.

Irakasleen sinesmenak, hautemateak, balioak zein ideologiak beraien jokabidean eragina dutela eta beraien irakasteko moduan eragina dutela hedatzen joan den

baieztapen bat da. Hainbat dira irakasleen ulermen markoa edo irakaste estiloa definitzeko eginiko lanak. Ulermen markoari erreferentzia egiteko erabilitako terminologia anitza da literaturan, oraingoa ikuspegi eta hautematea izango ditugu hizpide, bien arteko koherentzia izanik arrazoibide, hainbat eta hainbat autorek (Cid-Sabucedo eta beste batzuk, 2009; Kember, Charlesworth, Davies, McKay, Stott, 1997; Kember eta Kwan, 2000; Prosser eta Trigwel, 1999; Ramsden, 2003; Vermunt eta Verloop, 1999) baieztatzen duten bezala. Esanahiak argitze aldera, irakaskuntza ikuspegia nola irakasten den da eta irakaskuntzaren hautematea irakaskuntzarekiko eraikitako ezagutza eta ustea dira.

La tarea del docente, que también es aprendiz, es placentera y a la vez exigente. Exige seriedad, preparación científica, preparación física, emocional, afectiva. Es una tarea que requiere, de quien se compromete con ella, un gusto especial de querer bien, no solo a los otros, sino al propio proceso que ella implica. Es imposible enseñar sin ese coraje de querer bien, sin la valentía de los que insisten mil veces antes de desistir. Es imposible enseñar sin la capacidad forjada, inventada, bien cuidada de amar.” (Freire, 1994, 8).

Santos Guerra-k (2007) irakastea elkarrekin gizarte jakintsu eta justuago bat eraikitzea dela esaten digu.

El aprendizaje de los educandos está relacionado con la docencia de los maestros y de las maestras, con su seriedad, con su competencia científica, con su capacidad de amar, con su humor, con su claridad política, con su coherencia, así como todas estas cualidades están relacionadas con la manera más o menos justa o decente en que son respetados o no”. (Freire, 2005, 107)

Lan honetan ikasten ikastea konpetentziaren garapenean irakasleak martxan jartzen dituen erraztatzaileak definitzea da nahia. Erraztatzaileak aipatzerakoan testuinguruaz ere ari gara, eta ulertzen dugu testuinguruan barnebiltzen direla irakaskuntzan martxan jartzen diren dispositibo guztiak. Dispositibo hauek ez daude lotuta soilik gelan egiten denarekin edo gelarako prestatzen den horrekin, hori ere bai,

baina, badaude beste hainbat aldagai eguneroko ekintza pertsonal eta profesionaletan eragiten dutenak (López de Maturana, 2010a). Beraz, atal honen ahalegina izango da aldagai horiek zehaztea.

Ikasten ikastea konpetentziara bueltatuz, konpetentzia honek ikaslea gaitzen eta boteretzen du bere garapen pertsonal eta profesionalean. Ikaskuntza autonomoak eskatzen du ikaslea izatea bere prozesuaren arduraduna, eta honek ikaskuntzaren autogestioa eskatzen du eta ikasle bakoitzak bere ikaskuntza proiektua garatzea, hau da, ikaskuntzarekin konprometitzea eskatzen du. Helburua, hazkuntza bideratzea da eta irakasleak honetan lagundu nahi badu zeregin konplexu baten aurrean kokatzen da. Ikasleak autonomoagoak izatea bada helburua hainbat alderditan kontzientzia hartzen laguntzea ezinbestekoa da, hala nola; ikasle moduan hartzen dituzten erabakietan, martxan jartzen dituzten ezagutzetan, zein ikasteko zailtasunetan eta hauek gainditzeko moduetan (Villardón eta Yániz, 2011).

Konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza ikuskerak eskatzen du testuinguru konkretu batzuen eskaintza, hau da, ikasleak bere ikaskuntzarekiko kontrol handiagoa izan dezaketen testuinguruak, zein prozesuan sakontasun handiagorekin ikasteko aukerak eskaintzen dituen testuinguru estimulagarriak (Zabalza, 2009). Sakoneko ikaskuntza bultzatzen duten aukera desberdinak biltzen dituen prozesu konplexuak antolatzea eta prozesu honetan ikasle bakoitzak jarraitzen duen banakako ibilbidea kontutan hartzea eskatzen du.

Irakaskuntzak automatikoki ikaskuntza dakarrela pentsatzea hezkuntzan gertatu den eta gertatzen den fenomeno arriskutsu bat da. Ikaskuntzak baldintza batzuk betetzea eskatzen du, besteak beste, ikaslearen prestutasuna, izan ere ikasi nahi duenak soilik ikasten du (Santos, 2015). Ikaskuntza ekintza boluntario bat izan behar da, irakasleak ezin du ikaslea ikastera behartu, ikasleak ikasteko nahia izan behar du hori gertatu ahal

izateko. Irakaskuntza ekintzak bere horretan soilik ezin dezake ikaskuntza lortu nahiz eta bikaina eta akatsik gabea izan (Zabalza, 2009), ikasleak ikasteko prestutasuna izan behar du.

Ikasle-irakasle elkarrekintza egoera definitzeko moduak, hau da, sortuko den testuinguru motak ikaskuntza bultzatu edo eragotziko du. Elkarrekintza egoera guztiak ez dira funtzioen sorkuntza erraztatzaileak (Aznar-Minguet, 1992).

Ikaskuntza erraztatzaileez hitz egiten hasterako irakaslea arduradun nagusia izango da ikaskuntza errazten duten testuinguruen eskaintzan (Biggs, 2006). Irakasleak martxan jartzen dituen irakaskuntza moduek eragina dute ikasleen ikasteko moduetan (Bolívar, 2013; Gargallo eta beste batzuk, 2010). Izan ere, zer irakatsi garrantzitsua da, baina, garrantzitsuagoa da nola irakatsi. Bere eremuko ezagutzan aditua eta ezagutza hau ikasleei transferitzeko gai izan behar du kalitatezko irakasleak (Lucas, 2014).

Ondorengo lerroetan, testuinguru erraztatzaileen eskaintzarekin harremana duten aldagaiak azalduko ditugu.

3.2.7.1. Testuinguruaren nolakotasuna

Nahiz eta aurretik aipatu dugu testuinguru erraztatzaileaz hitz egiterakoan lan honetan martxan jartzen ditugun dispositibo guztiei egiten diegula erreferentzia, literaturan elkarrekintza pedagogikoa gertatzen den une-espazio gisa ezagutzen dugu testuingurua (Carrascal eta Sierra, 2015). Atal honetan, beraz, testuinguruaz hitz egiterakoan une-espazio horretaz arituko gara.

Ikaskuntza testuingurua izatez ez da objektiboa, ikasleengandik hauteman, behatu eta interpretatua izaten da (Heikkilä eta Lonka, 2006). Ikerketek adierazten dute (Carrascal eta Sierra, 2015; Cope eta Staehr, 2005; Entwistle, 1997; Gordon eta Debus, 2002; Hernández eta beste batzuk, 2002; Hernández, Martínez, Da Fonseca eta Rubio, 2005; Ramsden, 1979) ikasleek aukeratzen duen ikaskuntza ikuspegia eta ondorioz

ikasleek ikaskuntzari aurre egiteko modua baldintzatua dagoela testuinguruagatik eta eskakizunengatik. Ondorioz, testuinguruko aldagaiak kontutan hartzen baditugu ikasleen ikaskuntzan eragin dezakegu (Trigwell eta beste batzuk, 1999).

Era autonomo eta esanguratsuan pentsatzea baimentzen duen testuinguru batek ondorengo ezaugarriak izan behar ditu Jauregi-ren (2011) hitzetan: izan behar ditu dibergentzia (ikuspegi, interes ... anitzak), benetakotasuna (zintzotasuna, sentitutakotik hitz egitea ...), koherentzia (esan eta egiten denaren arteko adostasuna ...), elkarrizketa (hausnarketa konpartitua, elkarren berri sakona ...) eta ekintza praktikoari lotutakoa izan (jarduera profesionala ipar). Pentsamendu autonomoa sustatzeko praktika errealetan egotea ezaugarri gako gisa planteatzen da hainbat autoreren (Coll eta beste batzuk, 2012; García, 2011; Pérez-Gómez, 2007; Redondo eta beste batzuk, 2015) lanetan. Benetakoak, autentikoak diren materialen erabilerak eta ekintza sozialak, hau da, arazoen ebazpenean testuinguru sozial batean parte-hartze gidatu eta kolaboratiboak ikasleen arrazanamenduan lagundu dezaketela gaineratzen dute Coll eta beste batzuk (2012). Autentikoak diren materialak erabiltzeak eskatzen du, adibidez, dagokion kulturaren esanguratsuak diren adibideak, analogiak, eztabaidak eta erakustaldiak egin ahal izatea. Gainera, ikaskuntza kokatuaren aldarrikapena, alegia, testuinguratzearen garrantzia hainbat lanetan jasota dago (Beltrán, 1998; Escamilla, 2015; Gargallo, 2012; Gómez eta beste batzuk, 1991; Main, 1985; Selmes, 1988).

Pérez-Gómez-ek (2007) eta Bolívar-ek (2009b) gehitzen dute, oinarrizko kompetentzien garapenerako, ikasten ikastea barne, baldintza bat dela ziurgabetasun egoeratan eta etengabe aldatzen dauden prozesuetan ikastea, hau da, bere kabuz erabakiak hartu behar dituzten egoeretan ikastea.

Kitzikagarri eta ikaskuntza sortzaileak izan daitezke errealitatera gerturatzen diren eta goi-mailako pentsamenduaren aktibazio eskatzen duten testuinguruak baldin

eta ikaslea horri aurre egiteko prest badago (Heikkilä eta Lonka, 2006). Aldiz, ikaskuntza testuinguru hauek mehatxagarriak izan daitezke beste ikasle batzuentzat (Vauras eta beste batzuk, 2001), bereziki, bere ikaskuntza erregulatzeko zailtasunak dituzten ikasleak erabat baldintza sentitu daitezke. Beraz, beharrezko laguntzak eskaintzea kontutan hartzeko baldintza garrantzitsu bat da. Ezinbestekoa izango da, adibidez, ikaslearentzako ohikoa ez den hezkuntza ereduaren inguruko formazioa jasotzea (García eta beste batzuk, 2008; Gargallo, 2012; Sagasta eta Bilbatua, 2006).

Testuingurua bera baldintzatzailerak dela ikusi dugu eta hainbat dira eragiten duten aldagaiak. Hernández Pina eta beste batzuk (2002) bere lanean jasotzen dute, badagoela joera bat ikasleek bere ikaskuntza ikuspegiarekin bat ez datozen estrategia eta motibazioak aukeratzeko, testuinguruak hala eskatzen dielako. Hala nola, parte hartzea gertatzeko behar-beharrezkoak dira egiturak edo aukerak, ez dira nahikoa jarrerak. Horietako bat denbora da. Parte hartzeari denbora eskaini behar zaio eta ezin da denbora galtze gisa hauteman, izan ere, parte hartzea lortzen bada arrazionaltasunean, motibazioan, konpromisoan eta koherentzian irabazten da (Santos, 2015). Parte hartzearekin jarraituz, eragina duen beste aldagai bat ikasle kopurua da (García, 2011). Beraz, parte hartzea sustatu nahi bada kontutan hartu beharko da bai ikasle kopurua zein denbora, bestek beste.

Bestalde, McCormik eta James-ek (2007) aipatzen dute testuinguruak irakaslearen sinesmen eta balioen kontra ere eragin dezaketela. Hau da, testuingurua baldintzatzailerak izango dela irakaslearen praktika burutzerakoan. Izan ere, bere praktika estututa sentitu dezake, hala nola, ikasketa planaren exigentziak edo azterketaren kulturagatik eta bere eskaintza edo ekiteko modua bere sinesmen edo ikuspegitik urrundu. Hau da, irakasleak ere testuinguruaren arabera bere ikaskuntza ikuskera edo irakaskuntza estiloa aldatu dezakeela (Lindblom-Ylänne, Trigwell, Nevgi eta Ashwin,

2006; Prosser eta Trigwell, 1999), horregatik komeni da ikerketak egiterakoan irakaslearen praktika eremu zehatz batera akotatzea. Izan ere irakaskuntza estiloa ez da zerbait estatikoa, baizik eta testuinguruarekin erlazionatuta dago, testuinguruarekiko hautematearen arabera ikuspegi batean edo bestean kokatu daitezke (Feixás, 2010).


3.2.7.2. Ikaskuntza irakaskuntza hautemate eta ikuspegiak

Irakaskuntza hautemateak irakasleak irakaskuntzaren inguruan dituen sinesmenak dira eta irakasleak egoerarekiko egingo duen irakurketa baldintzatuko dute, ondorioz bere jardunbideari forma emanez (Lam eta Kember, 2006).

Literaturan hainbat dira irakaskuntza hautemateekin lotuta proposatzen diren kategoriak; Kember eta Gow-ren (1994) bi kategoriatik, Samuelowicz eta Bain-en (1992) azaltzen duten zazpi kategoriatako sailkapenera. Terminologiak bereizten badira ere, guztietan kategoriek deskribatzen dute ezagutzaren transmisioak edo ikaslearen garapen eta eraikuntzak duten garrantzia, hau da, protagonista ikaslea edo irakaslea den (Hernández eta Maquillón, 2010).

Hori dela eta hainbat autorek (Dell'Alba, 1991; Dunkin, 1990; Fox, 1983; Martin eta Balla, 1990; Martin eta Ramsden, 1992; Samuelowicz eta Bain, 1992; Trigwell, Prosser eta Taylor, 1994) eginiko lanak kontutan izanik bi kategoria nagusi aipa daitezke: “irakaslean oinarritutako” irakaskuntza hautematea eta “ikaslean oinarritutako” irakaskuntza hautematea. Azken honek ikaskuntza sakona (sakoneko ikuspegi) errazten du, eta aurrerago aipatuko dugun moduan, kalitatezko ikaskuntza baten oinarrian egongo da ikasleak sakoneko ikuspegi batean mugitzea.

Kember-ek (1997) ordura arteko ikerketa guztiak kontutan izanik irakaskuntza hautemateen inguruan 3. irudian azaltzen zaigun sailkapena aurkezten digu:



3. irudia: Irakaskuntza hautemateen kategoriak.

Enfoques de enseñanza y de aprendizaje de los estudiantes del Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria. Monroy, F., 2013, lanetik egokitua.

Irudian azaltzen den mailaketak irakaskuntza ulertzeko hiru modu azaltzen dizkigu. Hona bakoitzaren ezaugarriak eta zehaztapenak:

Irakaskuntza transmisio edo komunikazio gisa ulertuta: hainbat irakaslerentzat irakaskuntza edukien transmisioa edo prozeduren erakustaldia da. Irakaslearen ezagutza ikasleari irakatsi behar zaio. Saio magistrala da erabiltzen den metodoa eta irakaslea informazio emaile bakarra. Ikasleak hartzaile pasiboak dira eta irakaslearentzat nahikoa da material aditua izatea. Ikasleak ahalik eta informazio gehien dakiela erakusten duenean ikaskuntza lortu dela esango da. Irakaslearentzat ikaskuntza porrotaren arduraduna ikaslea da. Ikaskuntza kalitatea ikaslearen gaitasun eta nortasunarekin lotzen da, beraz, ikasteko gaitasuna eta jarrera azaldu behar du ikasleak, horrela ez bada arrakasta izateko aukerak txikiagoak dira.

Irakaskuntza ikaslearen ekintzaren antolaketa gisa ulertuta: Ikaslea erdigunean kokatzen da. Irakaskuntza gainbegiratze prozesu bat da, ikasleak ikasten duela ziurtatzeko diseinatutako teknikak erabiltzea eskatzen du. Ikaslearen ikaskuntza arazo konplexua dela ulertzen da. Ekintza ugari proposatzen dira, ikaskuntza elkarrekintzaren ondorioz gertatuko dela uste baita. Metodologiaren baitan ikaslearen motibazioa ere kontutan hartzen da. Eztabaida zein ezagutza teorikoa esperientziarekin lotzeko saio praktikoak bultzatzen dira. Irakaskuntza, beraz, ez da informazioaren

transmisioa, ikasleek ikasteko beharrezko duten trataera edo tratatzeko modua baizik: metodologia anitzak erabiliz, taldean lan eginez... irakaskuntzaren hobekuntza lotzen da estrategia eta teknika kopuru gehiago jakitearekin edo menperatzearekin eta ez horrenbeste irakaskuntza sinesmenen inguruan hausnartu eta hauek aldatzearekin. Eredu honetan ikaskuntza ziurtatzeko baldintza batzuk daudela baieztapen bat da, eta horiek eskaintzea da irakaslearen lana. Behin horiek eskainita ikaskuntza ez bada arrakastaz gertatzen ikaslearengan geratzen da ardura eta berak dauka arazoa.

Ikaskuntza aukerak sortzen dituen irakaskuntza: ikasleek materiarekiko duten ulermena aldatzeko laguntza gisa ulertzen da irakaskuntza, ikasleen hautemate aldaketak gidatzea izango da irakaskuntza, gidaritzza hau ikasleekin lankidetzan egiten da. Ikasleak dituen zailtasunak eta ulertzeko ezintasunak ezagutzea eskatzen du eta horiek aldatzeko esku-hartzea, baita, ikasleari aktiboki inplikatzeko eskatuko dion testuinguruak sortzea. Ezagutza ikasleak eraikitzen du eta bere ideiak erabili eta eraldatzetik egingo du eraikuntza. Beste bi puntuekiko edo ereduakiko desberdintasun nabaria ikaslearen protagonismoan legoke. Izan ere, eredu honetan ikasleak berak egin behar du eraldaketa. Irakaskuntza ekintza hausnartzaile gisa ulertzen da, lankideekin batera egiten dena eta etengabe ikasleen beharrei erantzutera bideratua dagoena.

Hiru ikuspuntuek egitura hierarkiko eta mailakatua adierazten dute. Azken ikuspuntuak aurrekoen alderdiak barnebiltzen ditu, alegia, irakastea ezagutzak aurkeztea da, ikasleak motibatuz eta ikasteko aukerak sortuz.

Irakaskuntzaren ikuspegiaren baitan irakaslearen sinesmenek hartzen dute forma eta irakasleek intentzio eta estrategia batzuk jartzen dituzte martxan.

Bi irakaskuntza ikuspegi nagusi azaltzen dira literaturan: irakaslearen oinarritutako irakaskuntza ikuspegia eta ikaslearen oinarritutako irakaskuntza ikuspegia. Ikuspegiak azaltzeko baina, literaturan kontutuan hartzen dira irakasleek erabiltzen dituzten

estrategiak eta hauek hautatzeko intentzioak. Hortaz, kategoria nagusien baitan, azpi eskalak banatzen dira estrategia eta intentzioekin lotuta. Trigwel, Prosser eta Taylor-ek (1994) eginiko ikerketaren ostean ondorengo ikuspegiak definitu zituzten (Monroy, 2013):

- A. Irakaslean oinarritutako estrategia eta informazioaren transmisioa intentzioa.
- B. Irakaslean oinarritutako estrategia eta intentzioa ikasleak ezagutza eskuratzea.
- C. Ikasle irakasle elkarrekintza estrategiak eta ezagutza arloko kontzeptuak eskuratzea intentzioa.
- D. Ikaslean oinarritutako estrategia garapen kontzeptuala intentzioa. Ikasleak protagonismo gehiago dauka, ezagutza propioa eraiki behar du bere hautemateak garatzeko.
- E. Ikaslean oinarritutako estrategia ikaslean aldaketa kontzeptualak sortzea intentzioa. Ikaslea da protagonista eta irakaslea mundu ikuskera aldaketan bidaide da. Ikasleak bere ezagutza berreraiki behar du munduari dagokion ikuskera garatzeko.

Kasu honetan ere, sailkapena egin zuten autoreek ikuspegiaren artean egitura hierarkiko eta mailakatua dutela adierazten dute.

Ikaskuntza hautemateetan gertatu zen bezala, nahiz eta bost ikuspegi definitzera iritsi baziren ere autoreak, bi multzo nagusitan banatu daitezke, aurretik aipatu ditugun multzoak, alegia. Informazioaren transmisioan edo irakaslean oinarritutako ikuspegia, bere barnean hartzen dituela A-B-C ikuspegiak, eta, kontzeptu aldaketa edo ikaslean oinarritutako ikuspegia, bere barne hartzen dituela D-E ikuspegiak.

Irakasleak hartzen duen ikuspegia irakasle horrek testuinguru horretan duen elkarrekintzaren eta esperientziaren emaitza ere izango da (Feixás, 2010). Izan ere, ikuspegiak ez dira estatikoak eta testuinguruaren arabera aldatu daitezkeela hainbat

autorek baieztatzen dute (Kember eta Kawn, 2000; Lindblom-Ylänne eta beste batzuk, 2006; Samuelowics eta Bain, 2001; Trigwell eta Prosser, 1991). Ikaste irakaste egoera konkretuetan irakasleak ikuspegi batetik burutu dezake bere ekintza egoerak hala eskatuta, nahiz eta bere berezko ikuspegia beste bat izan (Kember eta Kwan, 2000). Elkarrekintza horretan ondorengo faktoreak dira ikuspegia baldintzatzen dutenak: testuingurua, irakaslearen etengabeko formazioa eta garapenerako eginiko programak, ikasgelako ikasle kopurua, ikasketa diziplina edo titulazioa eta ebaluazio prozedura.

Irakasleak dituen ikaskuntza irakaskuntza hautemateak ikasleei eskaintzen dizkien ikaskuntza esperientziak baldintzatuko ditu (Kember eta beste batzuk, 1997; Trigwell eta Prosser, 1991; Trigwell, Prosser eta Ginns, 2005; Trigwell eta beste batzuk, 1999). Irakasleek irakaskuntza bizi eta ulertzeko moduak ikasleen ikasteko modua baldintzatuko duela esan daiteke Ramsden-en (1993) lana kontutan hartuta. Alegia, hainbat ikerketek (Prosser eta Trigwell, 1993; Trigwell eta beste batzuk, 1999; Ventura, 2016; Zhang, 2008) agerian utzi duten moduan, irakaslearen irakaskuntza ikuspegiak eragina daukala ikasleen ikaskuntza ikuspegietan.

Irakasleak duen ikaskuntza eta irakaskuntza hautemateak eragina dauka bere ekiteko moduan, hala nola, ikastea ulertzeko moduak, irakaslearentzat inteligentziak duen esanahiak, banakakoen desberdintasunen inguruko jatorriak ulertzeko moduak... Era berean, ikasleek ere ikaskuntzarekiko hautemateak izango dituzte. Batzuen eta beste batzuren hautemateak baldintzatzaileak direla aipatu dugu arestian eta erraztatzaileetan pentsatzen jartzerakoan kontutan hartu behar dira. Hori horrela, ikasleari pentsatzen duena edo dituen sinesmenen inguruko kontzientzia hartzen lagundu behar zaio, irakasleak berak lan hori egin ostean. Agerian utzi behar da gelan ikastea zer den (Martín, 2008).

Ikaslearen aldetik, eta aurreko kapitulutan azaldu moduan ekintzari aurre egiteko bi modu daude: azalekoa eta sakonekoa (Selmes, 1988). Ekintzari modu batean edo bestean aurre egitea baldintzatuko du ekintzaren jatorriak, ekintza aurkezteko eta gidatzeko moduak, elkarrekintza egoeren planteamenduak eta ikasleak hori guztia hautemateko erak (Aznar-Minguet, 1992; Herrera eta beste batzuk, 2011).

Ikaskuntza irakaskuntza hautematea erraztatzaile izateko, kontuan hartu behar dugu ikerketek diotena. Alde batetik, ikaskuntzan oinarritzen diren irakasleen ikasleek hobekuntzak izaten dituzte ikaskuntza estrategietan, ikaskuntzarekiko jarreran, ikaskuntzarekiko ikuspegian eta errendimendu akademikoan (Bolívar, 2013; Gargallo, Garfella, Pérez eta Fernández, 2010; Lucas, 2014; Suk, 2005;). Era berean, ikuspegi eraikitzaileak eragina dauka ikasleen motibazioan eta auto-kontrollean (Suk, 2005). Bestalde, ikasleak aukeratuko duen ikuspegia batez ere ebaluazio prozedurek, lan bolumenak, ikasteko askatasunak eta irakasleak erabiltzen dituen irakaskuntza estrategia onek baldintzatu dezakete (Monroy, 2013). Hala ere, aldagai edo faktoreek ez dute berez ikuspegiaren aukeraketan eragiten, baizik eta aldagaien gaineko hautemateek (Biggs, 1996; Ramsden, 1985;).

Bukatzeko, sakoneko ikaskuntza ikuspegia erlazionatuta dago irakaskuntza onaren hautematearekin (irakastea ikasleen hautematea aldatzea dela sinestearekin), helburu argiekin, ikaskuntza independentziarekin eta ebaluazioaren feedback apropos eta bidezkoarekin. Azaleko ikaskuntza ikuspegia aldiz lotuta dago lan karga eta ebaluazioaren hautemate altuarekin (Entwistle, 1997; Entwistle eta Ramsden, 1983; Feixás, 2010; Prosser eta Trigwell, 1999; Ramsden, Prosser, Trigwell eta Martín, 1997; Trigwell eta Prosser, 1991).

3.2.7.3. Irakaslearen ezaugarriak

Testuinguru erraztatzailerekin lotzen diren ezaugarrietako bat irakaslearen **konpromisoa** da. Pertsonok erakunde, ekintza edo beste pertsona batekin dugun identifikazio edo lotura psikologikoa da (Bolívar, 2013). Irakasleen konpromiso politikoaren ezaugarriak dira pasioduna izatea eta bere lanera emana, zein, egiten duenarekin eta ondo egitearekin ondo sentitzea. Irakasle konpromisodunek beraien lana plazerez, sormenez, alaitasunez bizi dute; irakastea profesio bat baino gehiago da beraietzat (Bain, 2007; Cid eta beste batzuk, 2009; Hargreaves, 1998; López de Maturana, 2004 eta 2010b; Lucas, 2014). Ikasleentzat ikaskuntza aukera egokienak sortzea da beraien kezka, ikasleek modu esanguratsuan ikastea da nahia (López de Maturana, 2004 eta 2010b; Lucas, 2014).

Irakaskuntzak etengabeko konpromisoa eskatzen du (Santos, 2015). Bultzatu nahi den ikaskuntza ikuspegia sakonekoa bada, proposatzen den testuingurua kitzikagarria izan behar da eta horretarako irakasleak materiarekiko duen konpromisoa adierazi behar du (Cope eta Staehr, 2005), ikasleengan ikastearekiko ilusioa, gogoia eta interesa garatzeko (Bain, 2007; Cid eta beste batzuk, 2009). Alabaina, irakasleak egunero azaltzen duen grina lanbidean duen identitateak baldintzatuta dago (Day, 2006). Irakaskuntza eraginkor batek irakaslearen inplikazioa eskatzen du bai afektiboki zein intelektualki (Bolívar, 2013). Konpromisoa irakaslearen eraginkortasun mailan eragina duen aldagai gako bat da (Day eta Gu, 2012). Konpromisoa adierazten duten irakasleek beraien ikasleengan eragin handiagoa dute konpromisorik adierazten ez dutenek baino (Day, 2007). Irakaslearen lanak erabat asebetetzea, egiten denarekin gustura egotea eta askatasunetik ekiteak irakaskuntzarekiko konpromisoan eragina dauka (López de Maturana, 2010a).

Bolívar-ek (2013) beste autore batzuen lanak kontutan izanik, konpromisoarekin lotutako lau dimentsio aurkezten ditu. Alde batetik, konpromisoa ikasleekin, beraien zaintza eta eskaerei begira (banakako arreta eskaintzeak ikaskuntza handitzea dakar, baita ikasleek beraien ikaskuntzarekiko ardura hartze handiago bat. Ikaslea da irakasle izateari zentzua ematen diona), konpromisoa irakasle lanarekin (lanean parte hartzeko gogoarekin lotzen da eta psikologikoki bere lanarekiko identifikazioarekin), konpromisoa lanbidearekin, irakaskuntzagatik erakarria (bizitzan burutzen duen lanarekiko asetasun eta identifikazioa) eta konpromisoa eskolarekiko, erakunde eta lan leku gisa (erakundeko helburu eta balioekin bat; lankideekin giro eta harreman ona; erakundean esfortzu handia egiteko joera, legeetatik haratago; erakundean mantentzeko desioa).

Beste ezaugarri bat **irakaslearen formazioa** da. Irakasleak dagokion arloaren testuinguru epistemologiko eta soziokulturalean kokatutako irakaskuntza lantzea dagokio, honetarako gaitasuna adierazi behar du (GIFD, 2011; Zabalza, 2009). Pedagogikoki ondo prestatuak eta ikaskuntzan aitzindari izan behar dute eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestutasuna izan behar dute. Hobetzeko grina eta hobetzeko jarrera ezinbestekoak dira, formazioarekiko ardura beharrezkoa da (Bain, 2007; Cid eta beste batzuk, 2009; Gomendio, 2017; López de Maturana, 2004 eta 2010b; Lucas, 2014; Zabalza, 2009). Irakasleari bere garapen profesionalean lagunduko dion formazioa ekintza ikerketaren baitan ulertzen da, izan ere, irakaskuntza praktiken aldaketa irakaslearen ekintza hausnarketa eta oinarri teoriko sendo batetik etorriko da soilik (Biggs, 2006).

Irakasleen praktika aztertzeak irakaskuntzarekiko emozio eta gogo-berotasuna pizten dute, eta askotan, lotura zuzena daukate jarrera, jokabide eta ikaskuntzaren hobekuntzan. Ikaslearengan zentratutako ikaskuntzarekin bat etortzeko aukera gehiago

adierazten dute irakasle hauek, ikaslearen ahotsa finago entzunez (Hall, Leat, Wall, Higgins eta Edwards, 2006). Irakaskuntza eraginkorra burutzen duen irakasleak bere praktika hobetzeko asmoz aztertzen du, besteekin, sinetsiz bata bestearengandik ikasten dugula, bai ikasleengandik zein lankideengandik (López de Maturana, 2010a). Irakasleen arrakasta lotuta egongo da pentsamendu gogoetatsurekin eta ekintzen ardura hartzearekin. Kanpo egozpenak egin beharrean bere praktika aztertu eta ikasleen ikaste esperientzia hobetzen saiatzen diren irakasleak eraginkorragoak dira (McCormik eta James, 2007).

Bestalde, eta hirugarren ezaugarria **pentsamenduarekin lotutako elkarrekintzak** dira. Ikasleentzat erraztatzaileak diren irakasleek pentsamenduarekin lotutako trebetasunetan indarra jartzen dute eta irakurketa erabiltzen dute galdetzeko, hausnartzeko, harremanak eraikitzeko, loturak egiteko eta aztertzeko. Komunikatzaile bikainak dira eta eztabaidak ezinbestekotzat jotzen dituzte prozesu hauetan (Gomendio, 2017; López de Maturana, 2004 eta 2010b; Lucas, 2014; Zabalza, 2009).

Laugarrenik, **ezaugarri pertsonalak** daude. Alde batetik, autonomia adierazten dute erabakiak hartzerakoan eta ardurak hartzeko prest azaltzen dira (Gomendio, 2017; López de Maturana, 2004 eta 2010b). Bestetik, bizitzarekiko ikuspegi humanista batekin irakasten dute, ikasleak banaka ezagutzeko ardura hartzen dute. Ikasleekiko errespetua adierazten dute (López de Maturana, 2004 eta 2010b; Lucas, 2014). Bukatzeko, pertsonalki justuak, enpatikoak, baikorrak, praktikoak, pazientziadunak eta konfiantza ematen dutenak dira (López de Maturana, 2010b; Lucas, 2014; Zabalza, 2009).

Bosgarren ezaugarria, **lankideekiko harremana** da. Lankidetzan oinarritzen dira eta lankideekin burutzen dituzte kontraste eta garapen profesionalerako bideak (Gomendio, 2017; López de Maturana, 2010b), modu koordinatuan eta diziplinarteko

taldeetan (GIFD, 2011). Izan ere, irakasleen elkarlan eta adostasunak eragin positiboa dauka ikasleek burutuko dituzten ikaste prozesuetan (Bain, 2007; García, 2011; Cid eta beste batzuk, 2009). Irakasleak kideekin aritzeak, motibazioa areagotu egiten du, eta berrikuntza eta aldaketekiko jarreran eragina dauka (García, 2011).

Bukatzeko, **irakasle “eredua”** izatearen alderdia dago. Garatu nahi den kompetentzian irakaslea eredu izateak eragina dauka ikasleengan, “modelatzea” eskaini ahal izateko (Bolívar, 2009a; García, 2011). Ikaskuntza auto-erregulatua garatua duten irakasleek aukera gehiago eskaintzen dizkiote ikasleei beraien ikaskuntza esperientziak kontrolatzeko (Perry, 1998; Zimmerman, 2008). Irakasleen ekintzaren auto-erregulazioak ikasleak motibatuagoak egoten laguntzen duela zehazten dute Mas eta Medinas-ek (2007) beraien lanean.

3.2.7.4. Irakasleak eskaintzen duen laguntza mota

Testuinguruen eragina ikaskuntza ikuspegietan aztertua izan da (Cope eta Staehr, 2005), eta proposatzen dute ikuspegi sakon bat bultzatzeko ikasleak behar dituen laguntzak eskuragarri izan behar dituela. Izan ere, ikaskuntza testuinguruetan, ikasleei etengabeko ahaleginean egotea eskatzen zaio, ulermen eta ekintza ahaleginean. Ahalegin honetan erronkei aurre egiteko laguntza izan behar du, laguntza intelektual eta emozionala (Onrubia, 1995).

Erronkak beti egingarriak izan behar dira. Horretarako kontutan hartu behar da ikaslearen abiapuntua, ikaste prozesua bera eta jasoko duen laguntza kantitatea eta kalitatea (Onrubia, 1995). Irakasleei dagokie beraien praktika egokitzea ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartzaile aktiboak izateko (López de Maturana, 2010a). Egokitzapen hori, hau da, kanpotik datorren orientazio eta hezkuntza eragina laguntza moduan kontzeptualizatzen dute Coll, Onrubia eta Maurik (2008) beraien lanean, laguntza doitua zehatzago esanda. Ikaskuntza prozesua banakakoa da eta beraz ikasleak

egin behar du, baina, beharrezkoa du eraikuntza eta garapen prozesu horretan laguntza doitu. Ekintza oro subjektuaren maila funtzionalera egokituta egon behar da, honek eskatzen du ekintza garapen zona hurbilean kokatzea. Hau da, arazo, desoreka edo ikasleari aurkezten zaion gatazken aurrean irakasleak laguntza doitu eman behar du garapen zona hurbilean (Aznar-Minguet, 1992; Onrubia, 1995). Irakasletik ikaslara ikaskuntzaren ardura eta kontrola pasatzea bultzatzen du, ikaslea kanpo erregulazio batetik barne erregulaziora pasatu behar da. Prozesu honetan irakasleak funtzio erraztatzaile bat jokatu behar du (Aznar-Minguet, 1992; Coll, Onrubia eta Mauri, 2008), bitartekaritzan mekanismo doitu eta egokienak ezarriz (Beltrán, 1998; Escamilla, 2015, Gargallo, 2012; Gómez, García eta Alonso, 1991; Main, 1985; Selmes, 1988).

Ikaslearen autonomia bultzatzea helburu duen ikaskuntza eskaintzan irakasleak ezin du beti elkarlan modu berdinetan oinarritu bere laguntza. Prozesua zein momentutan dagoen eta ikasle bakoitzaren beharren arabera laguntza modu eta euskarri anitzak erabili beharko ditu (Coll, Mauri eta Onrubia, 2006). Ikaslearen eraikuntza prozesura gehien egokitzen den laguntza da eraginkorrena (Coll eta beste batzuk, 2008). Irakasleak eskaintzen dion gida eta feedbackaren arabera ikaslearen garapena baldintzatua egongo da (Mauri, Martínez, López de Arana, Colomina, Onrubia eta Bascón, 2016), eta, helburua ikaslearen autonomia eta auto-erregulazioari bide ematea bada ezinbestean hezkuntza laguntza prozesu zaindu eta doitu eskaini behar da (Coll eta beste batzuk, 2006).

Izan ere, ikasten ikastea elkarrizketaren bitartez partekatzen dituzten helburuak lortzeko irakasle eta ikasleek elkarrekin eraikitzen dute, ahoz gorako hausnarketan bidez eta batak besteari egiten dizkieten eskakizun eta galdekizunen bidez (Coll eta beste batzuk, 2012).

Eginiko lanetan Coll eta beste batzuk (2008) laguntza doituaren ondorengo aldagai eraginkorrak zerrendatzen dituzte: ikasleen elkarrekintzak oinarri, diskurtso monologal eta dialogikoan erabiltzen diren mekanismo semiotikoak, ebaluazio ekintza eta ekintza partekatuak, irakasleen hautemateak ikaskuntzarekiko eta ikus-entzunezko teknologiak. Hainbat lanetan (Beltrán, 1998; Escamilla, 2015, Gargallo, 2012; Gómez eta beste batzuk, 1991; Main, 1985; Selmes, 1988) jasotzen da laguntza estrategiak bultzatzeak ikaslearen garapenean eragina daukala.

Ikasten ikastearen garapena bultzatu nahi duen irakasleak atazak modu estrategiko batean planifikatu eta garatzeko baliabideak eskaintzeaz gain, ikasleari bere burua ikasle gisa ezagutzeko, onartzeko eta hobetzeko aukerak eskaini beharko dizkio (Martín, 2008). Bolívar-ek (2009a) gehitzen du irakasleak jasotakoa martxan jartzea eskatzen dioten eta gero eta konplexuagoak diren arazoen aurrean jarri behar dituela ikasleak. Ikasleek praktika burutzen duten saioetan ikaskuntza kalitate hobea jasotzeko aukera dute (Jansen, 2004). Hala ere, praktikaren gaineko hausnarketa gidaturik gabe, gerta daiteke praktika hori esperientzian soilik geratzea eta esperientzia ez izatea hezitzailea (Martínez, Larrea, Ramirez de Okariz, Vitoria, Bilbatua eta Iñurrategi, 2008). Izan ere, elkarrekin buruturiko hausnarketan irakaslearen garrantzia azpimarratzen dituzten ikerketak hainbat dira (Agirre, Lejardi, Martínez eta Lopez de Arana, 2017; Mauri eta beste batzuk, 2016).

Bestalde, ikaskuntza auto-erregulatzeko lagungarriagoak dira epe ertain-motzean lorgarriak diren eta zailtasun ertaina duten helburuak (Schunk eta Ertmer, 2000). Izan ere, helburu zailegi zein errazegiek zein epe luzera planteatzen diren helburuek auto-erregulatzeko estrategien erabilera zailtzen dute. Hori horrela, nahiz eta ekintza batek epe luzeko helburuak izan lagungarria da hainbat azpi-helburu zehaztea ikasleak auto-erregulatzeko aukerak izan ditzan (Gargallo, 2012).

Bukatzeko, ikaslea bere ikasteko moduaz kontziente denean ikasle eraginkorrago bat izan daiteke (Aznar-Minguet, 1992). Horretarako, lagungarria da egunerokotasunean erabiltzen diren ikaskuntza prozesuen inguruan hausnartzea (Selmes, 1988). Pertsona bati bere ikasteko moduan hobetzen laguntzeko aukera bat da estrategia egoki zein zehatza aukeratzeko laguntzea (Hoskins eta Fredriksson, 2008).

3.2.7.5. Gelako giroa, harremanak

Ikaste giroaren inguruan dagoeneko aipatu ditugun gaiak berrartuko ditugu puntu honetan. Izan ere, orain arte adierazitako hainbat baldintza egikaritzeko, irakasleak egiteko modu batzuk ziurtatu behar ditu. Beraz, puntu honen ahalegina izango da azaltzea zein giro eta harreman mota eskaini behar dituen irakasleak aurretik aipatuak izan diren aldagaien baldintzak lortzeko.

Borbowski, Smith, Waver eta Akai-k (2005) lanean ikaste giroaren inguruko ondorengo baldintzak jasotzen dituzte. Ekintzetan inplikazioa bultzatu behar da, inplikazio kognitibo aktiboa. Horretarako lankidetzaren giroa, barne motibazioa bideratzeko elkarrekintzak eta testuinguruko laguntzak kontutan izan behar dira. Gelako giroa zaintzeak ikasleen autonomia sustatzen du (McCormick eta James, 2007).

Gelako giroari erreferentzia eginez, ikerketek diote (García, 2011; Hall eta beste batzuk, 2006; ITE, 2012; Pérez-Gómez, 2007) errespetuan oinarritutako giroak, ikasleen arteko harreman hurbilek eta hezkuntza giro gertukoek, alegia, esperimentazioa beldur barik baimentzen den eta ikasleak aske sentitzen diren testuinguruek, eragin zuzena daukatela ikasten ikastea kompetentziaren garapenean. Era berean, aipatzen dute Coll eta beste batzuk (2012) giro honek beraien lana hobetzeko galdera motak egitera bultzatzen dituzte ikasleak eta gutxitu egiten direla emaitzara zuzentzen direnak.

Gainera, ikasle eta irakasleen harreman positibo eta gertukoek ikasleak beraien ikaskuntzaz arduratzea dakar, ikasten ikastea konpetentziaren garapenean eraginez (García, 2011; Lopez de Maturana, 2010a).

Bestalde, Mas eta Medinas-ek (2007) agerian utzi zuten ikasleen barne motibazioa sustatzeak garrantzia handia duela eta azpimarratzen dute irakaslearen garrantzia ikaste prozesuan motibatzaile nagusi moduan. Hainbat lanetan (Borbowski eta beste batzuk, 2005; Mas eta Medinas, 2007) zehazten dute, irakasleek barne motibazioa piztu behar dutela ikasleengan eta horretarako erronkak bilatzen dituzten elkarrekintzak baliatu behar dituela.

Halaber, onartua eta seguru sentitzeak, hau da, ikasle guztiak kontutan hartuak direla eta guztiak daudela gelako elkarriketetan partaide moduan ziurtatzeak, eragina dauka ikasten ikasteen (Bain, 2007; García, 2011; ITE, 2012; Suk, 2005). Ikasle guztien izenak ikastea eta izendatzeko erabiltzea estrategia eraginkor bat da (Bain, 2007). Ikaslearekiko konfiantza da gelako giro aproposa sortzeko gako bat (Bain, 2007; Hall eta beste batzuk, 2006; ITE, 2012).

Giro honetan eragiteko irakasleak gelan adierazten dituen hainbat alderdi aipatzen dira literaturan. Hala nola, koherentzia eta justiziaz jokatzeko (ITE, 2012) eta pertsonen arteko konpetentzia izatea. Baita, lan eta bizitza sozialean modu eraginkor eta eraikitzaile batean parte hartzea gatazkak kudeatuz, jarrera kodeak kontutan hartuz, pertsonak errespetatuz zein aniztasun sozial eta kulturala eta berdintasuna bultzatuz (GIFD, 2011).

Beste alderdi bat ikasleekiko adierazten duen interesa izango da. Izan ere, ikasleen lorpenengatik pozten diren irakasleek eragina dute ikasleen garapenean (Bain, 2007; Cid eta beste batzuk, 2009; Suk, 2005). Dimensio emozionalari berebiziko arreta jarri behar zaiola azpimarratzen dute hainbat autorek (Bolívar, 2009a; Bortoletto eta

Boruchovitch, 2013; Pekrun, Goetz, Frenzel, Barchfeld eta Perry, 2011), bereziki arrakasta eta porroten aurrean egiten dituzten egozpenei. Egozpenak bere kontrolpean dauden eta moldagarriak diren kausei egiten lagundu behar zaie ikasleei (Bolívar, 2009a; Gil eta beste batzuk, 2009; Suárez eta Fernández, 2011). Egozpen estiloak eraiki egiten dira eta irakasleen zeresana handia da bertan, aldagarriak diren eta ikaslearen kontrolpean dauden kausak identifikatzen lagundu behar zaie ikasleei (Martín, 2008). Irakasleak kontrolatu beharko luke porrotari beldurra izatea, arrakastari beldurra izatea, gainjartzeko beharra, dependentzia, norberaren balioan segurtasuna... eragina izango baitute ikasleak ikaskuntzari aurre egiteko izango duen jarreran (Martín eta Moreno, 2007). Irakaslearen argibideek ikasleak gaitzen ditu bere ikaskuntzaren inguruko kontrol gehiago emanaz, adibidez, arrakasta hautemateak gehituz (Coll eta beste batzuk, 2012; Suárez eta Fernández, 2011).

Ikasgelako komunikazioa bi norabidetakoa izan behar da, elkarriketa bat, eta behin eta berriz bultzatu behar da ikasleei hitz egiten utziz (Bain, 2007; ITE, 2012; Suk, 2005). Gelan egoteko eta hitz egiteko moduari arreta jarri behar dio irakasleak (Bain, 2007). Ematen diren argibideen tonu afektiboak, hala nola, “zaila” edo “interesgarria” esateko moduari garrantzia eman behar zaio. Baita, kanpoko feedbackei, hau da, positibo edo negatiboa izateak eragina dauka (Efklides eta Dina, 2004). Izan ere, zailtasun sentazioa handitu dezakete, ikaslearen erantzuna baldintzatuz (Efklides, 2006). Komunikazio prozesuak modu eraginkor eta zuzen batean garatu behar ditu irakasleak. Honek eskatzen du ikaste-irakaste prozesu bakoitzak eskatzen duen bide eta kanal egokiak erabiliz mezuak jasotzea, interpretatzea, sortzea eta ematea (GIFD, 2011). Izan ere, hizkuntza ikasten ikastearen ekintzan bitartekari indartsua da (Coll eta beste batzuk, 2012).

Bultzatzen den komunikazioa, baina, ez da soilik ikasle-irakasleen artean geratzen. Ikasleen arteko elkarrekintza egoerak sortu eta zaintzeak giroan eragina dauka (Bain, 2007; García, 2011). Ikasleek beraien ikaskuntza hautemate eta ikuspegiez hitz egiteko aukerak bermatzen dituen giroak sortu behar dira, honek ikaslea ikuspegi sakonean aritzea bultzatuko baitu (Cope eta Staehr, 2005).

Ikasleek arazo bat ebazterakoan edo zerbait ikastean plazera sentitzea lortzea izan behar da helburua. Gai direla sentitu behar dute. Irakasleek ikasleen auto-pertzepzioan eragiteko metodoak erabili behar dituzte (Hoffman eta Spartariu, 2008). Izan ere, pertsonaren ezaugarri propioek, hala nola, gaitasun kognitiboak (Efklides, Papadaki, Papantoniou eta Kiosseoglou, 1997), norbanakoaren auto-kontzeptuak (Dermitzaki eta Efklides, 2001) eta beste batzuk faktore afektibo batzuk, hala nola, gogo-aldarteak (Efklides eta Petkaki, 2005) zailtasun sentsazioa handitu dezakete, ikaslearen erantzuna baldintzatuz (Efklides, 2006). Ikasleari ekintza arrakastaz lortzeko lagungarriak izango diren pentsamendu eta sinesmenak sortu behar zaizkio, hau da, espektatiba positiboak sortzea lortu behar da (Suárez eta Fernández, 2011). Erlazio positiboa dago espektatiba positiboen eta auto-erregulazioaren artean (Suárez eta Fernández, 2011).

Bestalde, irakasle ikasle elkarrekintzan esanahiak partekatzen direla kontutan hartu beharko da. Izan ere, ikasten ikastearen garapenean eragina dauka esanahiak partekatzea, hau da, ikasleek eraiki behar duten horrekiko dituzten esanahiak eta ematen dioten zentzua kontutan izatea (Bain, 2007; Coll eta beste batzuk, 2012; Onrubia, 1995). Esanahi horietatik eraiki beharko dira ikasleei eskainiko zaizkien proposamen berriak, ikuspegi sakon bat bultzatzeko (Cope eta Staehr, 2005; Onrubia, 1995). Lorpen irizpideak partekatzea, adibidez, gako bat da ebaluazioa prestatzerakoan (Coll eta beste batzuk, 2012).

Bukatzeko, Jaafar eta beste batzuk (2014) beraien ikerketan agerian utzi dute ikasleak nortasunaren kalitatezko osagaiez doitzea dela ekintza garrantzitsuena; nortasun positiboa, iraunkortasuna, konfiantza, oreka emozionala eta beste batzuekin lan egiteko gaitasuna. Gaineratzen dute saioak prestatzerakoan ikasleen osagai psikologikoak kontutan izatea ezinbestekoa dela irakasle moduan.

3.2.7.6. Metodologia

Esku-hartzea ikaslearen garapenera egokituta izan behar, ikaskuntza esanguratsua bultzatzen duena, ikaskuntzaren funtzionaltasuna bilatuz, ekintza eta motibazioa ezinbestean kontutan izanik eta indibidualizazioa eta sozializazioa konbinatuz (González eta beste batzuk, 1991). Ikasleak aukeratuko duen ikuspegia irakaskuntza metodoek baldintzatuko baitute (Monroy, 2013), edukien transmisioan zentratutako irakaskuntza metodoak eta azaleko ikuspegia lotuta baitaude. Aldiz, ikaskuntza ekintzarekiko epe luzerako inplikazio afektiboa errazten duten eskaintzek eta langai diren eduki eta metodologiaren aukeraketa arduratsuak egiteko aukera eskaintzen duten proposamenek ikaskuntza sakona bultzatzen dute (Feixás, 2010; Ramsden, 2003). Ikasleen aktibotasun eta erantzukizunak (metodologia aktiboek berez dakartzatenak) ikasten ikasteen eragina duten aldagaiak dira (García, 2011). Ikuspegi sakon bat bultzatzeko ikaslea izan behar da bere ikaskuntzaren arduradun (Cope eta Staehr, 2005) eta autonomia eta iniziatiba eskatu eta bultzatu behar dira (Beltrán, 1998; Escamilla, 2015; Gargallo, 2012; Main, 1985; Selmes, 1988). Ikuspuntu honetatik ezinbestekoa da subjektua bere ikaskuntza prozesuan inplikatzeari. Ekintzaren aurrean ekiteko duen moduen inguruko kontrol kontziente bat eginez (Aznar-Minguet, 1992). Ikasleen konpromisoa bilatu behar da eta gela osatzen dugun ikaste komunitatearekiko ardurak betetzetik hasi behar da (Bain, 2007).

Aurretik aipatu izan dugu lan honetan konpetentzietan oinarritutako planteamenduek ikaskuntza kokatuan aritzea eskatzen duela eta ikaskuntza kokatuan erabiltzen diren baliabide metodologiko moduan hauek zerrendatzen dira: elkarrenganako irakaskuntza egoerak (Escamilla, 2015), ikaskuntza komunitateak (Escamilla, 2015; Martín eta Moreno, 2007), ikaskuntza zerbitzua (Escamilla, 2015; Fuertes, 2012), talde kooperatiboak (De Miguel, Alfaro, Apodaca, Arias, García eta Lobato, 2006; Lucas, 2014; Escamilla, 2015; Rué, 2007), kasuak (De Miguel eta beste batzuk, 2006; García, 2011; García eta beste batzuk, 2008; Rué, 2007; Sagasta eta beste batzuk, 2004; Suk, 2005), arazoak (De Miguel eta beste batzuk, 2006; García, 2011; García eta beste batzuk, 2008; Rué, 2007; Sagasta eta beste batzuk, 2004), proiektuak eta ikerketa egoerak (De Miguel eta beste batzuk, 2007; Rué, 2007; Suk, 2005).

Guztietan bultzatzen diren lan moduak benetako egoeretan egitea eskatzen du, jarduera profesionalarekiko berezko egoerak proposatzea, alegia (Escamilla, 2015; Levy-Leboyer, 2001; Pozo eta Pérez-Echeverría, 2009). Benetako egoera hauek egiazkoak edo simulatuak izan daitezke, adibideak izan daitezke proiektu edo kasuak. Azken bi hauek sakoneko ikaskuntzan eragina dute eta baita zeharkako konpetentzien garapenean ere (García, 2011; García eta beste batzuk, 2008; Sagasta eta beste batzuk, 2004). Ikaskuntza zerbitzuaren gainean Fuertes-ek (2012) eginiko ikerketan ondorioztatzen da, metodologia honek zeharkako konpetentzien garapenean emaitza oso positiboak eskaintzen dituela, eragina daukala bizitza osorako ikaskuntzan eta ikaskuntza sakonerako baldintzak betetzen dituela. Lan kolaboratiboari dagokionez, ikasten ikastearen garapenean zutabe dela aipatzen digute hainbat autorek (Beltrán, 1998; Borbowski eta beste batzuk, 2005; Delors, 1996; Escamilla, 2015; Gargallo, 2012; Gimeno eta Pérez, 1999; Herrera eta beste batzuk, 2011; Lizzio, Wilson eta Simons, 2000; Main, 1985; Martín, 2008; Moreira, 2000; Pérez-Gómez, 2007; Selmes,

1988). Ikastea ekintza kolektibo bat da, eredu soziokulturalek (Bruner 1997; Vigotsky, 1995; Wertsch, 1985) garapena ikaskuntza prozesu aktibo gisa aurkezten digute, beti ere heldu/kide bat bidaide izanik (Martín eta Moreno, 2007). Izan ere besteen ikasteko modua hausnarketa objektu bihurtzen da (Escamilla, 2015; Mercer, 1997; Suk, 2005), eta hitzaren erabileraren bitartez elkarrekin eraikitze prozesuaren neurtze eta erregulazioari bide ematen zaio (Coll eta beste batzuk, 2012; Mercer, 1997). Beste batzuekin lan egiteak norbere prozesu kognitibo zein emozionalen kontzientzia hartzen laguntzen du (Martín, 2008). Izan ere, lankidetzak eskatzen du elkarrizketa, desadostasuna, desberdintasunen aurrean errespetua, entzuten jakitea, besteen ekarpenekin aberastea eta norbanakoaren onena emateko zintzotasuna adieraztea (Pérez-Gómez, 2007; Suk, 2005). Gil eta beste batzuk (2009) taldeko ikaskuntzak motibazioan eragina duela diote.

Irakasleei ekintzaren balioa sustatzea dagokie ikasleen eskura jarri aurretik, motibazioan eta ikasleak ekintzan sartzeko eragina daukalako, horrela zirikatu egiten da eta interesa pizten da (Green, 2002; Ramsden, 2003). Ekintza berri bat aurkezterakoan dakienaren gainean hausnarketa egiteko aukerak eskaintzeak zein ekintzari aurre egiteko estrategien inguruko hausnarketak eskaini behar ditu irakasleak (Aznar-Minguet, 1992).

Beraz, aukeratutako metodologiaren oinarrizko baldintza bat ikaslea aktibo izatea izango da (De Miguel, 2006; Fernández, 2006; Redondo eta beste batzuk, 2015; Sagasta eta Bilbatua, 2006). Metodologia aktiboek eragin positiboa daukate ikastearekiko barne motibazioan (García, 2011) zein ikaskuntza kalitatean (Fernández, 2006; García, 2011; Palazón eta beste batzuk, 2011).

Ez dago ikaskuntza auto-erregulatua errazteko metodologia bakarra (Beltrán, 1998), hala ere, ikasleek beren kabuz ikasten ikasiko dutela pentsatzea arrisku handia

hartzea da, baina, tradizionalki horrela pentsatu izan da (Aznar-Minguet, 1992; Schunk eta Ertmer, 2000). Hainbat ikerketek adierazten dute (Bartels eta Magun-Jackson, 2009; Gargallo, 2012; Norton eta Crowlay, 1995; Rosario eta beste batzuk, 2007; Schunk eta Zimmerman, 1998) berriaz lanketa egiten den egoeretan ikasleek ikaskuntza sakonagoak lortzen dituztela. Irakasleak zer, noiz eta non egin behar duten zehazten duten testuinguruetan ikasleek aukera gutxi dituzte auto-erregulaziorako (Schunk eta Ertmer, 2000).

Metodologikoki anitzak izanik ikasleen estilo aniztasunari errazago erantzungo zaio. Izan ere, konpetentzia bera lortzeko bide desberdinak eskaini behar dira (Bain, 2007; Beltrán, 1998; Escamilla, 2015; Gargallo, 2012; Gómez eta beste batzuk, 1991; Main, 1985; Selmes, 1988; Zabalza, 2009).

Metodologiek izan beharreko baldintzekin jarraituz, Aznar-Minguet-en (1992) hitzak kontutan hartuz, ikasleak bere praktikaren gainean kritikoki hausnartzen jartzen duen metodologia izango da eraginkorrena, pentsatzeko gaitasuna garatzeko ikasleek ikasteko behar dituzten baldintzak sortuz lortzen da: ikaslearen inplikazioa; ekintzaren gaineko hausnarketa; pentsamendu kritikoa eta ikasten ikastea modu aktibo, hausnartzaile eta autonomoan ulertzea dira oinarriak (Main, 1985).

Bestalde, ikaslearen autonomiarentzat lagungarri diren hainbat ezaugarri aipatzen dira estrategia metodologikoekin lotuta (Rué, 2007; Santos, 2015). Batetik, ikasleak behar duen informazio guztia eskura izatea. Bestetik, burutu beharreko bidea argi izatea, uneoro zertan eta zertarako ari den argi izatea. Hirugarrenik, laguntzako erreferenteak eskura izatea, batetik, erreferentziazko irizpideak izateko, eta bestetik, aldaketak burutzeko aukerak izateko. Azkenik, ebaluazio justu, aberats eta anitza egitea legoke, egiten ari den horrekin lotuta baliabide, denbora, prozedura zein kalitatearen inguruan kontrola izan dezan.

Era berean, ikasgela antolatzeko edo gaiak proposatzeko orduan ikerketa ikuspegi bat ematea eta galdera kitzikagarriak eskaintzea aberasgarria da. Galdera ez zehatzak, egoera orokor eta konplexuekin lotutakoak alegia, hau da, testuinguru sozialari lotuta dauden benetako egoerekin lotutakoak (Aznar-Minguet, 1992; Bain, 2007; García, 2011; Fernández, 2006; Pérez-Gómez, 2007; Suk, 2005). Egoera hauetan ikasleak ezinbestean jarri beharko ditu martxan bilaketa, hautaketa, antolaketa, ulermen eta informazioa erabiltzeko estrategiak eta honek ikasleari erantzukizuna eskatzen dio, eraikitzen aritzea alegia (Cope eta Staehr, 2005; García, 2011). Aipatutako estrategia guztiek ezagutzaren aplikazio eta integrazioa eskatzen dute, baita iritzi kritikoa zein, erabaki hartzeak eta arazoen ebazpenerako gaitasunen erabilera. Dimentsio hauek ezinbestekoak dira ikasten ikastea konpetentziaren garapenean (Escamilla, 2015). Ezinbestean diziplinen arteko lan bateratua baimenduko duten espazioak eskaini behar dira (Beltrán, 1998; Escamilla, 2015, Gargallo, 2012; Gómez eta beste batzuk, 1991; Main, 1985; Selmes, 1988).

Bestalde, planteatzen diren ikaskuntzak hedagarriak izan behar dira, eta horrek eskatzen du aurrez ikasitako strategiak erabiltzea sustatzen duten testuinguruak eskaintzea (Aznar-Minguet, 1992; Beltrán, 1998; De Miguel, 2006; Fernández, 2006; Nisbet eta Schucksmith, 1987; Sagasta eta Bilbatua, 2006; Selmes, 1988). Ikaskuntzaren transferentziak eskatzen du norbanakoaren ikaskuntza prozesua esplizitu egitea eta kontzientzia hartzea, metakognizioaren azken prozesua da. Izan ere, ikaskuntza esanguratsuak ikasleak bere prozesua ulertu eta jabe izan dadin metakognizioa estimulatzea eskatzen du, horretarako ikasleak bere garapenean eragiteko gaitasuna garatu behar du, hau da, bere hezkuntza prozesuko eragile izateko gaitasuna garatu behar du, bere ikaskuntza auto-behatzeko aukerak eskainiz (Aznar-Minguet, 1992; Pérez-Gómez, 2007; Rué, 2007; Torrano eta González, 2004).

Proposatzen diren ekintzek ikaskuntzan martxan jartzen dituzten mekanismoen gaineko hausnarketa bultzatzea eta ikaskuntzarako eraginkorrak izan daitezken estrategien erabilera erraztea zein gelan praktikatzeko aukerak ematea gako dira (Selmes, 1988). Ikaskuntzaren auto-behaketarako helburuak ezartzea ezinbestekoa da, baita, norbanakoak zein ingurukoek emandako feedbacka jasotzea (Zimmerman eta Martínez-Pons, 1988). Meta-ezagutza eta elkarrekintza erlazionatuta daude, irakasleari modelatzea eskatzen dio honek (Aznar-Minguet, 1992; Martín eta Moreno, 2007).

Bukatzeko, De Miguel-ek (2006) aipatzen du metodologia baldintzatuta egongo dela ikasketa motaren zein landu beharreko gaiaren arabera.

3.2.7.7. Ebaluazioa

Fernández-en (2010) lanean jasotzen diren hainbat ikerketa kontutan izanik, 70. hamarkadan ikaskuntzan eragin handiena duen osagaia ebaluazioa dela esan daiteke. 90. hamarkadan aldaketak eman ziren gai honetan eta ebaluazio ulertzeko eta erabiltzeko modu desberdinak proposatu eta martxan jartzen hasi zen. Alabaina, kontuan izan behar da, aldaketa ez dela soilik teknikoa, kulturala baizik. Izan ere, ikaskuntza, eta ondorioz ebaluazioa, ulertzeko modua da aldatu dena. Ikuskera honetatik ebaluazioa ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzen da, eta ikaskuntzaren kalitatea erregulatzea da egotzen zaion funtzioa eta ondorioz, irakaskuntzarena ere, ikaskuntzaren ebaluaziotik ikasteko ebaluaziora pasatzea, alegia (Fernández, 2010; Ramsden, 1992). Hala ere, Unibertsitatean dagoen ebaluazioarekiko ikuskera oso tradizionala da, kalifikazioarekin parekatzen da eta irakaslearen esku dago, normalean feedbackerako aukera gabe (Ibarra eta Rodríguez, 2010). Ebaluatzeko tradizionalki erabili diren praktikak ikasleak ikaskuntzaren azaleko ikuspegian kokatuta egotearen arduradunak izan daitezkeela aipatzen dute autore desberdinek (Mateos eta Peñalba, 2003; Monereo eta Lemus, 2010).

Hainbat dira ikerketak (Álvarez, 2001 eta 2008; Biggs, 2006; Black, Harrison, Lee, Marshall eta Willian, 2003; Boud, 1995; Brown eta Glasner, 2003; Fernández, 2010; Gimeno, 2008; Margalef, 2009; Monereo eta Lemus, 2010; Monroy, 2013; Ramsden, 1985) agerian uzten dutenak irakasleak martxan jartzen dituen ebaluazio sistemak erabakigarriak direla ikasleen ikaskuntza prozesuan eta eragin handia daukatela zer eta nola ikasten den horretan.

Ikasten ikastea konpetentziaren ebaluazioa konplexuenerarikoa da (Jornet eta beste batzuk, 2012). Egoera bakar bat ez da nahikoa ebaluazioa egiteko, oso konplexua izaki ere. Ebaluazioa gauzatzeko estrategia edota baliabide anitzak eta testuinguratuak erabili behar dira (García-San Pedro, 2010). Beharrezkoa da balorazioa egiteko ebaluazio egoera anitz eta jarraituak proposatzea, ikaslea egiten ari den garapen eta hobekuntzak ikusgai jartzeko (Coll eta beste batzuk, 2012).

Ebaluazio kontzeptuaren inguruan ez dago bateragarritasunik, baina, hainbat autoreren lana kontutan hartuta, honakoa proposatzen dugu lan honen testuinguruari erreparatuta.

Azken helburua ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzea izan behar da, ikasleengan etorkizuneko ikaskuntzekiko konpromisoa sortuz (Margalef, 2014). Indagatzea, hausnarketa, erabaki hartzeak, bildutako informazio eta ebidentziei erantzutea eta arrazoiak ematea bermatu behar ditu (Álvarez-Méndez, 2001; Margalef, 2014).

Ikaskuntza ekintza kritiko gisa ulertzen da (Álvarez-Méndez, 2001; Margalef, 2014), ekintza iraunkor eta hezitzailea, ikaskuntza eta ebaluazio ekintzak bereizten ez dituen (Álvarez-Méndez, 2008; Coll, Rochera, Mayordomo eta Naranjo, 2014; Pérez-Gómez, 2007). Ikaskuntzan oinarrituta baldin badago ikaste prozesua, ebaluazioa eta formazioa ez dira bi ekintza bereizi, erabat lotuta daude (Bolívar, 2009a; Coll eta beste batzuk, 2014; Fernández, 2012; Huba eta Freed, 2000). Ebaluazio hezitzailea egon

behar da, izan ere ebaluazio mota honek informazio zehatza eta ebidentzia bildumak izateko aukera ematen dio irakasleari ikaslearen prozesu eta auto-erregulazio gaitasunaren inguruan (Coll eta beste batzuk, 2012; Martín, 2008). Feedbacka egoteak, epai kritikoak, ikaslearen parte-hartze aktiboak eta ikasitakoaren gaineko elkarrizketak izateak (Aznar-Minguet, 1992; Carless, 2007; Gibbs eta Simpson, 2009; ITEMS, 2016; Margalef, 2014; Stobart, 2010) egiten du ebaluazioa hezitzailea.

Ebaluazioak irakasleari lagundu behar dio irakaskuntza erregulatzen eta ikasleari ikaskuntza erregulatzen (noiz ikasten duen, noiz ez, zer egiten zaion baliagarri ikasteko) (Martín, 2008), ebaluazioa ikaskuntza auto-erregulatu eta autonomora bideratua egon behar da (Carless, 2007; Coll eta beste batzuk, 2014; Fernández, 2012; McCormik eta James, 2007). Horretarako, ikasleak jakin behar du noiz doan ondo eta noiz ez (Bolívar, 2009a; Martín, 2008; Scallon, 2000). Ebaluazioak ikasleari aukera eskaini behar dio bere ikaskuntzaren ardura hartzeko eta autonomia garatzeko (Coll eta beste batzuk, 2012) eta honek ezinbestean eskatzen du ikasleak aukera izatea autonomoki aritzeko (Coll eta beste batzuk, 2014). Autonomia garatzeak ikasleen burujabetzea esan nahi du eta ebaluazioak burujabetze honetan ekarpena egin behar du, garapen pertsonal, moral, akademiko eta sozialean (Black eta beste batzuk, 2003; Boud eta Falchikov, 2006; Margalef, 2009).

Ebaluazioa parte-hartzailea eta soziala izan behar da eta irakasleek, ikasleek eta berdinkideek burutu behar dute (Coll eta beste batzuk, 2014; Fernández, 2012; ITEMS, 2016; Margalef, 2014). Auto-ebaluazio zein ko-ebaluazioa lagungarriak zaizkio hetero-ebaluazioari (García-San Pedro, 2010) kompetentziaren garapenean, baina, ikasleak trebatu egin behar dira, sarritan ez baitauzkate prozesu hauek martxan jartzeko behar besteko gaitasun (Bolívar, 2009a; Coll eta beste batzuk, 2014; Martín, 2008). Gainera,

ezinbestekoa izango da eragile desberdinek parte-hartzen duten prozesu orotan bezala, irizpideen argitasuna erabatekoa izatea (García-San Pedro, 2010).

Ikasleak beraien ikaskuntza prozesuen errebisioak egiteko gaitu behar dira (planifikazioa, gainbegiraketa eta ebaluazioa). Planifikatzen hasi aurretik ikasleek jakin behar dute nora iritsi nahi duten, hau da, helburua izan behar dute galdegai. Ezinbestekoa izango da argi izatea helburua prozesu hausnartzaile bati ekiteko. Irakasleari dagokio bere helburuak agerian jartzea, baita kalitate irizpideak ere. Ezinbestekoa da prozesuan zein amaieran egitea gainbegiratzeak edo errebisioak. Honela, prozesuan helburua lortze bidean mantendu edo aldaketak txertatu behar diren ikusiko da eta amaieran egiten den errebisioari esker emaitza bera hobetzeko aukerak egongo dira, baina, baita ikasteko prozesu osoari gain-begirada bat emateko (Martín, 2008).

Kompetentzien ebaluazioa ezinbestean ekintza autentikoetan gertatzen dena da (Bolívar, 2009a; Coll eta beste batzuk, 2014; García-San Pedro, 2010; Fernández, 2012; ITEMS, 2016; Monereo, 2009; Monereo eta Lemus, 2010). Egoera autentiko gisa ulertzen dugu errealitatetik ahalik eta gertuen dagoen egoera, izan errealia edo simulatua, (Baartmant, Prins, Kirchner eta Van Der Vleuten, 2007; Bolívar, 2009a; Coll eta beste batzuk, 2014; Fernández, 2012; Jornet eta beste batzuk, 2012). Egoera autentiko hauek ikasleentzat ekintza osatu, konplexu eta esanguratsuak bizitzeko aukera eskaintzen die, baldintzak profesioan ekintza hori aurrera eramateko baldintzetatik gertu daude eta testuinguratuak (Baartmant eta beste batzuk, 2007; Bolívar, 2009a; ITEMS, 2016; Monereo eta Lemus, 2010). Ezartzen diren ebaluazio irizpideak testuinguru errealetan adituek ekintza ebaluatzeko erabiltzen dituztenen antzekoak izan behar dira (Baartmant eta beste batzuk, 2007).

Ebaluazioan pentsatzerakoan gakoak ondorengoak dira: ikasleari bere ikaskuntza prozesua errebisatzeko baliabideen erabilera bultzatzea (Coll eta beste batzuk, 2012; Monereo eta Lemus, 2010), arrazoizko esfortzuak eskatzea, erronka lorgarrien aurrean jartzea (Coll eta beste batzuk, 2012), barne zein kanpo errekursoak mugiaraztea (Bolívar, 2009a; Fernández, 2012), ikaskuntzan gertatu dena ulertzeko baliogarria izatea (Brown y Glasner, 2003; Gibbs eta Simpson, 2009; Taras, 2008), ezagutzaren transferentzia praktikara eramatea erraztea (Fernández, 2012; ITEMS, 2016), ezagutza zein prozesuko beste hainbat alderdi hobetzeko aukerak eskaintzea (Coll eta beste batzuk, 2014; Mauri eta Barberá, 2007; Monereo eta Lemus, 2010; Rochera eta Naranjo, 2007), funtzionala izatea (Monereo eta Lemus, 2010), hastapeneko ekintzak kontutan hartzea, ikasleak ikaskuntza eta ebaluazioa kudeatzeko gaitasunak dituela sentiaraztea (Coll eta beste batzuk, 2012), prozedurei dagokionean eredu egokiak eskaintzea (Coll eta beste batzuk, 2012), laguntza nola eskatu edo laguntza egokiena eman diezaiokeena nor izan daitekeen adieraztea (Coll eta beste batzuk, 2012) eta eskakizuna argia izatea, alegia, ikasleak eskatutakoa ulertzen dutela ziurtatzea (Monereo eta Lemus, 2010).

Bukatzeko, Tardif-ek (2006) konpetentzien ebaluazioa prozesu bideo-grafiko gisa ikustea proposatzen du fotografikoa beharrean, ondo definitutako irizpide anitzen behaketan oinarrituta (Fernández, 2012) eta irakaskuntza testuinguruaren baitan (Suk, 2005), ikasleak laguntza jasotzeko zein informazio desberdinak kontsultatzeko ekintza aukera anitzak eskainiz (Bolívar, 2009a; Monereo eta Lemus, 2010). Ebaluazioak zergatik eta zertarako galderari erantzun behar du.

3.3. Laburbilduz

Ikasten ikastea goi mailako prozesu bat izanik ikaskuntza berrien egikaritzea ahalbideratzen duela eta beraz, ezagutzaren eraikuntzan kontutan izan behar dugula

aipatu dugu. Beraz, irakasleek kontutan izan beharreko konpetentzia bat dela esango dugu. Izan ere, konpetentzia honen helburua ikaslearen autonomia garatzea da, testuinguru anitzetan aritzeko eta erronka berriei erantzuteko.

Aipatu dugu dimentsio anitzak dituela ikasten ikasteak eta dimentsio guztiak izan behar ditugula kontutan, bai kognitibo, afektibo zein soziala.

Alabaina, konpetentzia honen garapenak hainbat baldintza kontutan izatea eskatzen du. Besteak beste, ikaslearen motibazio eta auto-eraginkortasun sentimendua edo ikastun den aldetik auto-kontzeptu positiboa. Bestalde, ikaskuntza auto-kudeatzeko ardura eta gaitasuna eskatzen dio ikasleari.

Azaldutakoa kontutan izanik ikaste prozesuak ezaugarri konkretu batzuk bete behar ditu ikaslearen ikasten ikastea konpetentziaren garapenean erraztatzaile izateko eta garapena baimentzeko. Lehenik eta behin ikaskuntza irakaskuntza ikuspegia aipatu behar dugu. Izan ere, ikaskuntza zein irakaskuntzarekiko dauden ulerkerek eragina izango dute ekiteko moduetan. Ikaskuntzan oinarritzen diren irakasleek erraztatzaile gehiago eskaintzen dituztela justifikatu dugu. Beraz, irakasleak bere sinesmenak errebisatzea litzateke lehenengo urratsa, ikasleekin batera. Testuinguruaren nolakotasunari dagokionean ikaskuntza kokatuaren garrantzia azpimarratu behar da, egoera errealetan edo egiazko zein simulatuak diren benetako egoerek baldintza egokiak eskaintzen dituzte ikasten ikastearen garapena errazteko.

Aldagaien errepassoa egiten jarraituz, metodologia aipatu beharko genuke. Metodologia anitzak eta ikasleari aktibo izatea baimentzen diotenak aipatu ditugu positibo gisa. Ikaskuntza kokatua errazten duten metodologiak kontutan hartzekoak dira, guztiek eskatzen dute profesioarekiko edo gertuko errealitate sozialarekiko gerturatze bat eta baita egoera hauetan ekiteko beharrezko diren gaitasunak martxan jartzea. Honek aurretik aipatutako testuinguruaren nolakotasunean aipatutako

ikaskuntza kokatua baimentzen du eta beraz, konpetentzien garapenean erraztatzaile izango da. Gauza bera gertatzen da ebaluazioarekin. Aipatu dugu, ebaluazioa ez dela ikaskuntzatik at ulertu behar den ekintza isolatu bat. Hezigarria izan behar da eta egoera errealetan edo errealtatetik gertu dauden formetan egin behar da. Prozesuaren hasieratik amaieraraino gertatu behar da eta irakaslearen zein ikasleari bere ibilbidearen inguruko informazioa jasotzea baimendu behar dio prozesuan erregulatzeko aukerak eskainiz.

Elementu guztietan eragin handia daukaten subjektuaren ezaugarriak ondorengoak dira. Irakasleak konpromisoduna behar du izan, inplikazioa eta interesa daukana, azaldu dugun moduan eragina baitauka ikaslearen ikasteen. Konpromisoaz ikasleekin zein irakasle lanarekin adierazi behar du, besteak beste. Ikasleen ikaskuntzarekiko daukan arduraz jabetu eta horretan ekin, adibidez, ikasleei ikasteak eskatzen dien ahaleginean laguntza intelektual eta emozionala emanaz. Lana ahalik eta ondoen egitea kezka behar du izan eta honek etengabeko formazio edo hobekuntzan egotea eskatzen dio. Formazioa ekintza ikerketaren baitan ulertua izan behar du eta lankideekin batera egiten dena.

Bestalde irakaslea pertsona errespetutsua, justua, enpatia duena, baikorra, praktikoa, pazientziaduna eta konfiantza ematen duena izateak garapena erraztuko du. Horrela, lankidetzaren giroa, testuinguru seguruak, ikasleekin harreman positibo eta gertukoak eta bi norabidetako komunikazioan oinarritutako egoerak eskaintzeko aukera izango du.

Konpetentziaren definizioa kontutan izanik, berorren garapenean eragina duten aldagai, elementu eta gakoak aztertuta eskaini beharreko testuinguruaren ezaugarriak ondorioztatu ditugu.

Bukatzeko, aipatu behar da aldagai gehienak elkarlotuta daudela eta bata modu batean gertatzeko bestea modu konkretuan eman behar dela.

4. IKASTEN IKASTEAREN KONPETENTZIAREN GARAPENEAN ERAGINA DUTEN TESTUINGURU ERRAZTATZAILEEN TRESNEN AZTERKETA

4.1. Tresnen aurkezpena

Helburua kalitatezko hezkuntza eskaintzea da GMHEn. irakasleak eskaintzen duen testuinguruak ikaslearen hezkuntzan duen eragina argi dago. Beraz, irakasleari eskaintzen dituen testuinguruak aztertzeko tresna egoki bat eskuratu behar dugu. Tresna hautatzeko aurrez aipatu ditugun aldagaiekin lotutako tresnen errebisioa egin da.

Ikasleei bakarrik zuzendutako galdetegiaren azterketa egin ostean, ikusi dugu gehiago ikertu eta publikatu dela ikaslearen inguruan irakaslearen inguruan baino. Ikasten ikastearekin lotutako aldagaiekin lotutako galdetegiak aztertu ditugu, baina, gehienak aldagai bakarrari egiten diote erreferentzia, nahiz eta galdetegietan bat baino gehiago nahasten dituzten gero. Ikasleentzako galdetegi guztien azterketa egin da (1. eranskinean) eta hemen fokua izan den aldagaiaren arabera aurkezten dira.

Lehenengo eta behin irakaskuntzaren ebaluazioarekin hasiko gara. Ebaluatzen dena irakaskuntza da ikaslearen ikuspegitik. García-Ramos-ena (1997) *CEDA: Cuestionario de evaluación docente para el alumnado* da, ikaslearen pertzepzioan oinarritzen da, beraz, irakaslearen konpetentzia ikaslearen pertzepzioan oinarrituta azterten du. Unibertsitateko irakaslearen konpetentzia ezaugarritu zuen galdetegi honetan. Muñoz, Rios eta Abalde-ren (2002) *Cuestionario de evaluación de la docencia del profesorado* estatuko hainbat unibertsitateetako irakaskuntza ebaluatzeko tresnen azterketa bat egin ostean osatutako proposamen bat da. Urte berean, Economic and Social Research Council Teaching and Learning Research Programme-n baitan (2002) *ETQL: Experiences of Teaching and Learning Questionnaire* aurkitu dezakegu. Parpala, Lindblom-Ylänne, Komulainen eta Entwistlek (2013) eginiko lanean jasotzen da. Galdetegiaren kalitatezko irakaskuntza eta ikaskuntza ikuspegiaren teoretatik eraikia

izan da eta helburua irakaskuntza esperientziak neurtzea eta hobetzeko aholkuak ematea da. Molero-rena (2003) da *Cuestionario de evaluación de calidad universitaria* eta kasu honetan ere irakaskuntzaren inguruko ikasleen iritzia jasotzea da helburua, baita Aparicio-ren (2014) *Cuestionario de evaluación de la docencia_Modelo Instruccional de la Situación Educativa* galdetegian ere. **5. Taulan** bildu ditugu irakaskuntzaren ebaluazioarekin lotutako galdetegiak.

5. Taula:

Irakaskuntza ebaluazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
CEDA: Cuestionario de evaluación docente para el alumnado	García-Ramos	1997	Irakaskuntzaren ebaluazioa
Cuestionario de evaluación de la docencia del profesorado.	Muñoz, Rios eta Abalde	2002	Irakaskuntzaren ebaluazioa
ETQL: Experiences of Teaching and Learning Questionnaire	Economic and Social Research Council Teaching and Learning Research Programme	2002	Irakaskuntzaren ebaluazioa
Cuestionario de evaluación calidad Universitaria	Molero	2003	Irakaskuntzaren ebaluazioa
CUED_MISE_Aparicio: Cuestionario de evaluación de la docencia_Modelo Instruccional de la Situación Educativa	Aparicio	2014	Irakaskuntzaren ebaluazioa

Ikasleen ikaskuntza ikuspegiak aldagaia neurtzen duten galdetegiak aipatuko ditugu jarraian. Entwistle eta Ramsdem-en (1983) *ASI: Approaches to study inventory* daukagu lehenengoetakoa. Hainbat errebisio izan ditu eta Tait, Entwistle eta McCuneren ASSIST (1998): *Inventario de enfoques y Habilidades de estudio para estudiantes* da horietako bat. *SPQ: Study Process Questionnaire*-ren (Biggs,1987) lehenengo bertsioan ASI oinarrian egon da. Ikaskuntza ikuspegiak karakterizatzen ditu galdetegi honek eta hasieran hiru ikuspegi definitu bazituen ere (sakonekoa, azaleko eta lorpenerakoa) errebisioetan bira pasatu izan da (sakonekoa eta azalekoa). Biggs-ek berak Kember eta Leung-ekin (2001) *R-SPQ-2F: Revised two factor Study Process*

Questionnaire bertsioan egin zuen lehen errebisioa berrikusi eta sinplifikatzeko. Tartean Barca-ren (1999) SPQaren gaztelerazko itzulpena aurki dezakegu. *CEPEA: Cuestionario de Evaluación de Procesos y Estrategias de Aprendizaje*. Baina, egokitzapena izan zuenez, Hernández-Pina eta beste batzuek (2005) egin zuten egokitzapenaren gaztelerazko bertsioa. *CPE-R-2F Cuestionario de Procesos de estudio revisado de dos factores*. Hizkuntza askotara egokitu eta itzuli den galdetegia izan da eta euskarazko bertsioa García-k (2011) argitaratu zuen *R-SPQ-E: Revised Study Process Questionnaire euskarazko bertsioa*. Ikaskuntza ikuspegiekin jarraituta Rosário, Mourao, Núñez, González-Pineda, Solano eta Valleren (2007) *IPE-UNIV: Inventario de Procesos de Estudio* dago. Sakoneko eta azaleko ikuspegietan oinarritzen da. Amaitzeko, Parpala eta Lindblom-Ylänne-ren (2013) *Learn questionnaire* aipatu nahiko genuke. Ikaskuntza ikuspegiak eta ikaste irakaste testuinguruko esperientzien hautemateak neurtzeko helburuarekin sortua izan zen. Helsinki-ko unibertsitatean sistematikoki erabiltzeko prestatu zen ikasleen ikaste kalitatea hobetzeko erabiltzeko. **6.**

Taulan bildu ditugu ikaskuntza ikuspegiekin lotutako galdetegiak.

6. Taula:

Ikaskuntza ikuspegiekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
ASI: Approaches to study inventory	Entwistle eta Ramsdem	1983	Ikaskuntza ikuspegiak
ASSIST: Inventario de enfoques y Habilidades de estudio para estudiantes	Tait, Entwistle eta McCune	1998	Ikaskuntza ikuspegiak
SPQ: Study Process Questionnaire	Biggs	1987	Ikaskuntza ikuspegiak
CEPEA: Cuestionario de Evaluación de Procesos y Estrategias de Aprendizaje	Barca	1999	Ikaskuntza ikuspegiak
R-SPQ-2F: Revised two factor Study Process Questionnaire	Biggs, Kember eta Leung	2001	Ikaskuntza ikuspegiak
CPE-R-2F (Cuestionario de Procesos de estudio revisado de dos factores)	Hernández-Pina, García eta Maquilón	2005	Ikaskuntza ikuspegiak
R-SPQ-E (Revised Study Process Questionnaire euskarazko bertsioa)	García	2011	Ikaskuntza ikuspegiak
IPE-UNIV: Inventario de Procesos de Estudio	Rosario eta beste batzuk	2007	Ikaskuntza ikuspegiak
Learn questionnaire	Parpala eta Lindblom-Ylänne	2013	Ikaskuntza ikuspegiak

Ikasten ikastearekin lotutako aldagaien artean motibazioa dago. Aldagai hau aztertzeko galdetegiak hemen bildu ditugu. Alde batetik, *EEMA: escala de estrategias*

motivacionales del aprendizaje (Suárez eta Fernández, 2005). Bestetik, *MEVA: motivaciones, expectativas y valores-intereses relacionados con el aprendizaje* (Alonso, 2005). Hirugarrenik, Mas eta Medinas-en (2007) *Cuestionario de motivación para el estudio*. Eta bukatzeko, Cabanach, Valle, Gerpe, Rodríguez, Piñeiro eta Rosário-ren (2009) *Cuestionario de gestión motivacional*. **7. Taulan** bildu ditugu, kronologikoki eta bereizten edo batzen dituzten faktore edo eskalak azpimarratuz.

7. Taula:

Motibazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Faktore-eskala
EEMA: Escala de Estrategias Motivacionales del Aprendizaje	Suárez eta Fernández	2005	Espektatibarekin loturiko osagai estrategikoa Balioarekin loturiko osagai estrategikoa Afektuarekin loturiko osagai estrategikoa
MEVA: Motivaciones, expectativas y valores-intereses relacionados con el aprendizaje	Alonso	2005	Xedek Espektatibak Interesak
Cuestionario de motivaciones para el estudio	Mas eta Medinas	2007	Barne motibazioa Kanpo motibazioa Lorpenerako motibazioa Eraginkortasun espektatibak
Cuestionario de Gestión Motivacional	Cabanach eta beste	2009	Ekintzaren aurrean konpetentzia eta kontrolari dagokion sinesmenen kudeaketa Ekintzaren balio eta motibazioen kudeaketa Afektu eta emozioen kontrolari lotutako kudeaketa afektiboa

Hauetaz gain, badira hainbat galdetegi motibazioa neurtzeko sortuak baina ikaste estrategiekin batera. Pintrich eta beste batzuren (1991) *MSLQ: Motivational Strategies Learning Questionnaire* da literatura erabili eta aipatuena eta beste batzuk hainbaten oinarrian dagoena. Motibazio eta ikaste estrategien ikuspegi kognitibo batean oinarritzen da. Gaztelarazko egokitzapena *CEAM II: Cuestionario de estrategias de aprendizaje y motivación II* (Roces, Touron eta González, 1995) da eta bigarren hezkuntzarako sortutako *CEAM Cuestionario de estrategias de aprendizaje*-ren (Ayala eta beste batzuk, 2004) egokitzapena ere bada. Rodríguez-en (2009) *CECAE: cuestionario de estrategias cognitivas de aprendizaje y estudio* galdetegiak *LASSI* eta *MSLQ* aurrez aipatutako galdetegiak ditu oinarrian. Eta *CEMEA* (Ramírez-Dorantes,

Canto y Rodriguez, Bueno-Álvarez eta Echezarreta-Moreno, 2013) ere *MSLQ*ren egokitzapena da, gaztelerara egokitua baina testuinguru mexikarrerako. **8. Taulan** ikus daitezke galdetegiok jasota.

8. Taula:

Ikaste estrategia eta motibazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
MSLQ Motivational Strategies Learning Questionnaire	Pintrich, Smith, García eta Mckeachie	1991	Ikaste estrategiak eta motibazio
CEAM II. Cuestionario de Estrategias de Aprendizaje y Motivación II	Roces, Touron eta Gonzalez	1995	Ikaste estrategiak eta motibazio
CEAM Cuestionario de estrategias de Aprendizaje y Motivación	Ayala, Martínez eta Yuste	2004	Ikaste estrategiak eta motibazio
CECAE: Cuestionario de estrategias cognitivas de aprendizaje y estudio	Rodriguez	2009	Ikaste estrategiak eta motibazio
CEMEA (MSLQren egokitzapena español mexicano)	Ramírez-Dorantes, Canto y Rodriguez, Bueno-Álvarez eta Echezarreta-Moreno	2013	Ikaste estrategiak eta motibazio

Aurreko taulan ikusi dugun moduan, hainbat galdetegi ikaste estrategiak eta motibazioa aztertu nahi izan dute. Badira baina, neurtzeko aldagai moduan ikaste estrategiak modu bakartuan aztertzen dutenak. Ikasleari hobeto ikasten laguntzeko kezka aspaldikoa da. Ikaste estrategien inguruko tresna ugari sortu da, eta tresna hauen artean bereizgarri nagusienak ikaskuntza estrategiekin lotzen dituzten aldagaiak dira. Weinstein, Palmer eta Schulte-ren (1987) *LASSI: Learning and study strategies inventory* da erabilietakoen artean dagoena. **9. Taulan** jaso ditugu galdetegiak, kronologikoki antolatuta eta bakoitzak kontutan hartzen dituen faktoreak azalduta.

9. Taula:

Ikaste estrategiekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Faktore/eskala
LSI: Learning Strategies Inventory	Kolb, D.	1976	-
SLSQ: Student Learning Styles Questionnaire.	Grasha eta Riechmann	1975	Sei ikaskuntza estilo: independentea, dependentea, kolaboratzailea, iheskorra, lehiakorra eta parte-hartzailea.
ILP : Inventory of Learning Process	Shmeck, Ribichi eta Ramanaia	1977	Sakoneko prozesamendua Lantze prozesamendua Gertaeren oroimena Ikasteko metodoak
LASSI: Learning and Study Strategies Inventory	Weinstein, Palmer eta Schulte	1987	Jarrera, antsietatea, auto-ebaluazioa, kontzentrazioa, denboraren kudeaketa eta kontrola, azterketen prestaketarako estrategiak, ikaskuntzarako laguntzak, motibazioa, informazioa prozesatzea, ideia nagusien hautaketa.
IDEA: Inventario de estrategias de aprendizaje	Vizcarro	1992	Ikaskuntzan parte-hartzen duten prozesu nagusien ebaluazio bilatzen du 14 eskala erabilita: arreta-kontzentrazioa, loturak egitea, informazio garrantzitsua identifikatzea, adierazpena, irakaslearekiko asertibitatea, motibazio-efortzua, kontrolaren hautamena, ikaskuntza memoristikoa, azterketen aurkezpenak, lan jarraitua, metakognizioa, ikaskuntza estrategiak, antolaketa.
ACRA-abreviada para alumnos universitarios	De la Fuente eta Justicia	2003	Ikaskuntzaren kontrolerako estrategiak eta estrategia kognitiboak Ikaskuntzari laguntzeko estrategiak Ikaskuntza ohiturak.
KLSI: Kolb Learning Strategies Inventory	Kolb eta Kolb	2005	Esperientzia zehatza, behaketa hausnartzailea, kontzeptualizazio abstraktua, esperimentazio aktiboa, ikaslearen preferentzia konkretuaren eta abstrakzioaren inguruan eta ekintzarekiko hausnarketa
CEA-U: Cuestionario de Estrategias de Aprendizaje en Universitarios	Martín, Torbay, García eta Rodríguez.	2007	Estrategia motibo-emaileak Estrategia kognitiboak Estrategia metakognitiboak
CEDEA: Cuestionario de Evaluación y Diagnóstico de las Estrategias de Aprendizaje	Ferreras	2007	Estrategia metakognitibo-ebaluatiboak - informazioaren prozesamendurekiko estrategiak Testuinguruko eta antolaketarako estrategiak
SELF-A: Cuestionario de Autoeficacia para el Aprendizaje	Zimmerman eta Kitsantas	2007	-
Escala de evaluación de las estrategias de aprendizaje	Santos eta Boruchovitch	2008, 2015	Estrategia kognitiboak Estrategia metakognitiboak Estrategia metakognitibo eta disfuncionalen gabezia <i>Estrategia afektibo, laguntzakoak eta kontrolerakoak:</i> motibazio alderdiak, testuinguruaren kontrolerako estrategia eta estrategia afektiboak, elkarrekinza soziala eta baliabideen erabilera, estrategia metakognitiboak <i>Prozesatzearekin lotutako estrategiak:</i> informazio bilaketarako, jasotzeko eta hautatzeko estrategiak eta informazioa prozesatzea eta erabiltzea.
CEVEAPEU. Cuestionario de evaluación de estrategias de aprendizaje de los estudiantes universitarios.	Gargallo, Suárez-Rodríguez eta Pérez-Pérez	2009	Hedapenerako estrategiak, lankidetzako estrategiak, kontzeptualizatorako estrategiak, planifikazio estrategiak, azterketak prestatzeko estrategiak eta parte-hartze estrategiak.
CETA: Cuestionario de estrategias de trabajo autónomo	López-Aguado	2010	Hedapenerako estrategiak, lankidetzako estrategiak, kontzeptualizatorako estrategiak, planifikazio estrategiak, azterketak prestatzeko estrategiak eta parte-hartze estrategiak.
CEPEI-U: Evaluación del procesamiento estratégico de la información para universitarios	Castellanos, Palacios, Cuesta eta García	2011	Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa Estrategien hautaketa eta erabilera Estrategien kontrola eta kontrol pertsonala Meta-ezagutza estrategikoa

Hurrengo aldagaia auto-erregulazio estrategiak izango da eta honekiko ere sortuak izan dira galdetegi zein tresnak. Zimmerman eta Martínez-Pons-en (1988) *SRLIS: self-regulated learning interview scale* izeneko da bildu dugun zaharrena eta

aipatuena. Ikaste estrategia auto-erregulatuen erabilera neurtzea da helburua. Hernández-Pina eta García-ren (1995) *ECE: estrategias de control de estudio*-k ere helburu berbera dauka eta estatu espainoleko testuingururako sortua izan zen. Niemivirta-k (1998) *CSRL: the components of self-regulated learning* ikaskuntzarako orientazioan sakontzen du. Ikaskuntza auto-erregulatuaren baitan hezkuntza motibazioaren azterketa egitea da nahia. Eta, bukatzeko, Rosario eta beste batzuren (2007) *IPAA-UNIV: inventario de procesos de autorregulación de aprendizaje* daukagu. Honek ere ikasleen auto-erregulazio prozesua neurtzea du helburua. **10. Taulan** kronologiko antolatuta ikus daitezke auto-erregulazioarekin lotutako galdetegiak.

10. Taula:

Auto-erregulazioarekin lotutako eta ikasleei zuzendutako galdetegiak.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
SRLIS Self-Regulated Learning Interview Scale	Zimmerman eta Martínez-Pons	1988	Auto-erregulazio estrategiak
ECE: estrategias de control en el estudio	Hernández-Pina eta García	1995	Auto-erregulazio estrategiak
CSRL: the components of self-regulated learning	Niemivirta	1998	Auto-erregulazio prozesuak
IPAA-UNIV: Inventario de Procesos de Autorregulación del Aprendizaje	Rosario eta beste batzuk	2007	Auto-erregulazio prozesuak

Galdetegian azterketarekin amaitzeko, beste hainbat aldagai neurtzen dituen galdetegiak bildu ditugu **11. Taulan**. Hala nola, ikaskuntzaren eraginkortasuna aztertzea helburu dauka *ELLI: Developing an Effective Lifelong Learning Inventory*-k (Deakin-Crick eta beste batzuk, 2004). Aldiz, *CONAPRE: Concepción de aprendizaje* (Martínez-Fernández, 2007) galdetegiak, ikaskuntza hautematea neurtzen du. Bestalde, oinarritzko konpetentziekin lotuta *CCST: Cross-curricular skills test* (Elshout-Mohr, Meijer, Oostdam eta Van Gelderen, 2004) daukagu eta ikasten ikastearekin zehazki lotuta *EADCAA: Escala de Autopercepción del nivel de Desarrollo de la Competencia de Aprender* (Muñoz-San Roque eta beste batzuk, 2016) galdetegia daukagu. Ikasteko gaitasuna (ikasten ikastearekin lotuta) ere aztergai duen galdetegia jaso dugu, *LCS:*

escala de competencia de aprendizaje (Villardón eta beste batzuk, 2013) izenekoak. Ikasleek ikasteko duten gaitasun maila ebaluatzea dauka helburu.

Metakognizioarekin lotuta bi galdetegi aipatu nahiko genituzke. Alde batetik, *MAI: Meta-cognitive Awareness Inventory* (Schraw eta Dennison, 1994) eta bestetik, *Inventario sobre estrategias meta-cognitivas* (Matínez-Fernández, 2004). Bietan estrategia kognitiboak dituzte galdegai.

Honetaz aparte, ikaskuntza estiloak neurtzeko bi galdetegi ekarri ditugu. *Barsch Learning style inventory*, Barsch-ena, 1980 (Barsch, 1991) eta Vermunt-en (1994) *ILS: Inventory of learning Styles*. Ikasleari bere ikasteko estiloaren inguruan informazioa helaraztea dute helburu.

Bestalde, ikaskuntza tekniken inguruko Herrera eta Gallardo-ren (2006) *Cuestionario de técnicas de estudio* jaso dugu. Giroko baldintzak eta ohiturak neurtzea dauka helburu. Giroarekin lotuta Pérez, Ramos eta López-en (2009) *Cuestionario del clima social del aula* ekarri dugu. Derrigorrezko hezkuntzarako diseinatua izan da eta ikasleek gelako giro sozialarekiko duten pertzepzioa neurtzea du helburu.

Bukatzeko, hezkuntza helburuekin lotutako bi galdetegi ekarri nahi izan ditugu. *CMA: Cuestionario de metas académicas* (Hayamizu eta Weiner, 1991) ikasleek jarraitzen duten ikaskuntza helburuak zeintzuk diren ezagutzea dauka helburu. *CEMAII: cuestionario de metas académicas en secundaria-k* (Núñez, González-Pineda, González-Pumariega, García eta Rocés, 1997) aldiz, ikasleek zergatik egiten duten esfortzua neurtzea dauka xede moduan.

11. Taula:

Ikasleei zuzendutako galdetegiak, aldagai desberdinekin lotutakoak

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
ELLI: Developing an Effective Lifelong Learning Inventory	Deaking-Crick eta beste batzuk	2004	Ikaskuntzaren eraginkortasuna
CONAPRE: Concepción del aprendizaje	Martínez-Fernández	2007	Ikaskuntza hautematea
CCST: cross-curricular skills test	Elshout-Mohr, Meijer, Oostdam eta Van Gelderen	2004	Oinarrizko kompetentziak (zeharkakoak)
EADCAA: Escala de Autopercepción del nivel de Desarrollo de la Competencia de Aprender a Aprender	Muñoz-San Roque, Martín-Alonso, Prieto-Navarro eta Urosa-Sanz	2016	Oinarrizko kompetentziak: ikasten ikastea
LCS. Escala de competencia de aprendizaje.	Villardón, Yániz, Achurra, Iraurgi eta Aguilar	2013	Ikasteko gaitasuna
MAI: Meta-cognitive Awareness Inventory	Schraw eta Dennison	1994	Metakognizioa
Inventario sobre estrategias metacognitivas	Matínez-Fernández	2004	Metakognizioa
Barsch Learning style inventory	Barsch	1980	Ikaskuntza estiloa
ILS: Inventory of learning Styles	Vermunt	1994	Ikaskuntza estiloa
Cuestionario de Técnicas de Estudio	Herrera eta Gallardo	2006	Ikaskuntza teknikak
Cuestionario clima social de aula	Pérez, Ramos eta López	2009	Ikasgeletako giroa
CMA: Cuestionario metas académicas	Hayamizu eta Weiner	1991	Hezkuntza helburuak
CEMA II : Cuestionario de metas académicas en secundaria	Núñez, González-Pineda, González-Pumariaga, García eta Rocés	1997	Hezkuntza helburuak

Galdetegi hauen guztien azterketa sakonagoa 2. eranskinean biltzen da.

Irakasleentzako tresnak aztertuta, lan honetan aipatu ditugun gakoak neurtzen dituzte, baina, gako batean edo batzuetan soilik jartzen dute fokua, ez dira nahikoak aipatutako guztia neurtzeko. Beraz, hutsunea dago testuinguru erraztatzailen gakoak neurtzeko tresnari dagokionean. Jarraian, irakasleentzat sortutako tresnen errebisioa azaltzen da.

Irakasleentzako galdetegi guztien azterketa egin da (3. eranskinean) eta hemen fokua izan den aldagaiaren arabera aurkezten dira.

Ikaskuntzaren hautematea neurtzeko Kember eta Gow-ren (1994) *Ikaskuntza eta irakaskuntzaren inguruko irakasleen hautemateak neurtzeko galdetegi* daukagu, oinarrizkoetako bat da. Pratt, Collins eta Slinger-en (2001) *Teaching Perspectives*

Inventory-k (TPI) ere irakaskuntzaren inguruko pentsamendu eta ideiak aztertzeko diseinatuta dago, hezkuntzarekiko sinesmenak, hezkuntza intentzioa eta heziketa ekintzak ditu aztergai. Marshall, Smart eta Alston-ek (2016) berriki proposatu dute *Teacher Intentionality of Practice Scale* (TIPS). Irakaslearen eraginkortasuna ebaluatu eta andamiatzeko proposatzen den eskala da. Zazpi faktore identifikatu dituzte behaketa tresna sortzeko. Gure lanean definitutako aldagai gehien jasotzen dituen eredu da. Gargallo, Suárez, Garfella, Rodríguez eta Fernández (2011) *Cuestionario de evaluación de la metodología docente y evaluativa de los profesores universitarios* (CEMEDEPU) kontutan hartzen badugu, irakasteko eta ebaluatzeko estiloen definizioekin topo egiten dugu, irakaskuntza hautemateak eta irakasleen oinarritzko gaitasunen konbinaziotik. **12. Taulan** aurkezten ditugu modu laburtu batean galdetegi hauek.

12. Taula:

Irakaskuntza hautemateekin lotutako eta irakasleei zuzendutako galdetegiak

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
Cuestionario sobre concepciones de los profesores acerca de la enseñanza y del aprendizaje	Kember eta Gow	1994	Irakaskuntzaren hautematea
TPI: Teaching Perspectives Inventory	Pratt, Collins eta Slinger	2001	Hezkuntzarekiko sinesmenak, hezkuntza intentzioa eta heziketa ekintzak
TIPS: Teacher Intentionality of Practice Scale	Marshall, Smart eta Alston	2016	Irakasleen eraginkortasuna
CEMEDEPU: Instrumento para la evaluación de la metodología docente y evaluativa de los profesores universitarios	Gargallo eta beste batzuk	2011	Irakaskuntza hautemateak eta irakasleen oinarritzko gaitasunak

Bestalde, irakaskuntza ikuspegia neurtzeko erabili diren galdetegiak ditugu. Prosser eta Trigwell-en (2004) *Approaches to teaching inventory* (ATI) da irakasleen ikaskuntza ikuspegiaren azterketan gehien erabili den galdetegi. Monroy, González eta Hernández-Pina-ren (2014) gaztelerazko bertsioa *S-ATI-20* deitzen da. Bietan ere irakasleen ikaskuntza ikuspegia da aztergai. Feixás-en (2006) *Cuestionario de orientación docente del profesor universitario*-k (CODPU) ere oinarrian irakaskuntza

ikuspegiak ditu. **13. Taulan** ikus ditzakegu irakaskuntza ikuspegia aldagaia neurtzen duten galdetegiak.

13. Taula:

Irakaskuntza ikuspegiekin lotutako eta irakasleei zuzendutako galdetegiak

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
ATI: Approaches to teaching inventory	Prosser eta Trigwell	2004	Irakaskuntza ikuspegia
S-ATI:-20 Spanish version	Monroy, González. eta Hernández-Pina	2015	Irakaskuntza ikuspegia
CODPU: Cuestionario de orientación docente de profesor universitario	Feixás	2006	Irakaskuntza ikuspegia

Giroaren azterketari erreferentzia eginez, Sink eta Spencer-en (2007) *Teacher My Class Inventory-Short Form* daukagu. Irakasleek beraien gelako giroaren hautematea jasotzeko diseinatua. Villarés, Mariani, Sink eta Colvin-ek (2016) beraien lanean Arslan-en (2016) *Teachers' rooms environmental Assessment Scale* (TREAS) aztertzen dute. Eskala honek giroarekin lotuta komunikazioa eta espazio fisikoa ditu aztergai.

Honetaz aparte, *Engaged Teachers Scale* (ETS) aipatu behar dugu. Klassen, Yerdelen eta Durksen-en (2013) irakasleen konpromisoa neurtzeko eskala, gelan zein erakundearen parte-hartzerekin lotutakoa.

Irakasleekin bukatzeko, Prieto-ren (2006) *Autoeficacia del profesor universitario* daukagu. Irakasleek bere eraginkortasunaren inguruko informazioa jasotzeko eta estrategi zehatzen inguruan datuak jasotzeko baliagarria da. **14. Taulan** bildu ditugu irakasleei zuzendutako galdetegiak hainbat aldagai kontutan izanik.

14. Taula:

Irakaskuntzarekin loturiko eta irakasleei zuzendutako galdetegia: hainbat aldagai.

Galdetegiaren izena	Autorea	Urtea	Neurtzen den aldagaia
TMCI-SF: Teacher My Class Inventory-Short Form	Sink eta Spencer	2007	Gelako giroa irakasleen hautematek
TREAS Teachers' Rooms-Environmental Assessment Scale	Arslan	2016	Irakasle gela aztertzen da. Bi dimentsio komunikazioa eta espazio fisikoa.
ETS: Engaged teacher scale	Klassen, Yerdelen eta Durksen	2013	Irakasleen konpromisoa
Cuestionario sobre autoeficacia docente del profesor universitario	Prieto	2006	Irakaslearen eraginkortasuna

Galdetegi hauen azterketa sakonagoa 4. eranskinean biltzen da.

Bestalde, De la Fuente, Zapata, Martínez-Vicente, Cardeler-Elawar, Sander eta Justiciaren (2012) *EIPEA: Evaluación Interactiva del Proceso de Enseñanza-Aprendizaje* galdetegia daukagu, bai ikasle zein irakasleri zuzenduta dago eta ikaste irakaste prozesuan dauden fase desberdinak ebaluatzea da bere helburua.

4.2. Tresna hautatuen azterketa sakona

Prosser eta Trigwell-en (1999) Approaches Teaching Inventory-ren (ATI) gaztelerazko bertsioa erabiliko dugu, Monroy, González eta Hernández-Pina-ren (2014) *S-ATI-20*. Irakasleen irakaskuntza ikuspegiak aztertzen ditu. 20 itemek osatzen duten bi faktore biltzen dira bertan. Irakaslean oinarritutako irakaskuntza ikuspegi eta informazioaren transmisiorako estrategiak izena hartzen du faktore batek (TICP izendatua gaztelerazko bertsioan) eta ikaslearengan oinarritutako eta kontzeptu aldaketarako estrategiak izena hartzen du besteak (CCCE). Eskalaren fidagarritasuna ona da (CCCE: 0,869; TICP; 0,805) eta Trigwell eta beste batzuk (2015) esandakoa berresten dute (0,86 CCCE faktorearentzako eta 0,83 TICP faktorearentzako).

ikaslearengan oinarritutako eta kontzeptu aldaketarako estrategiak (CCCE)	3, 5, 7, 8, 13, 14, 16, 17, 19, 20
Irakaslean oinarritutako irakaskuntza ikuspegi eta informazioaren transmisiorako estrategiak	1, 2, 4, 6, 9, 10, 11, 12, 15, 18

Erantzunak maiztasunarekin lotutako Likert eskalan jasotzen dira 5 erantzun aukeretan (1 inoiz edo oso gutxitan eta 5 beti edo ia beti).

Lan honetan ikaslean oinarritutako 10 itemak erabiliko dira.

4.3. Laburbilduz

Aztertutako tresnak ikasten ikastearen garapenarekin lotura duten aldagai desberdinak neurtzeko edo ebaluatzeko sortutakoak izan dira. Hartzaile moduan ikasle eta irakasleak dira.

Tresna gehienak aldagai bakarra neurtzeko sortuak dira, baina, badira aldagai bat baino gehiago neurtzeko sortuak. Azterketa egin ostean, ikasleen inguruko tresna gehiago bildu ditugu. Ikaskuntza ikuspegiekin lotutako galdetegiari erreparatuta Biggs-en *SPQ*-a izan da oinarria eta bere errebisio eta itzulpenak osatzen dute aztertutako galdetegi sorta. Motibazioa eta ikaste estrategiei dagokionean, lehenengoarekin lotutako tresnak 2000. urtetik aurrera aurkitzen ditugu, nahiz eta bi aldagaiak elkarrekin lehenago azaltzen zaizkigun. Hala ere, agerian gelditzen da ikaste estrategiekin lotutako tresna kopurua handiena dela eta 70. hamarkadatik topatu ditzakegula. Ikasleei zuzendutako tresnak ugari dago, eta aldagai desberdinak neurtzea dute helburu.

Irakaskuntzari dagokionean, hautematearekin lotutako tresnak dauzkagu, Kember eta Gow-rena izanik oinarritzkoena. Ikuspegiei dagokionean Prosser eta Trigwel-en *ATI*-a da gehien erabili izan dena eta lan honetan gaztelerazko bertsioa erabiliko dugu balidazio azterketa bat egiteko. Beste aldagai batzuk neurtzeko galdetegiak ere aztertu ditugu, guztiak 2006. urtearen ostean sortuak.

Azterketa egin ostean ez dugu testuinguru erraztatzaileen inguruko tresnarik aurkitu.

2. atala

Ikerketaren atal empirikoa

5. IKERKETA METODOLOGIA

Ikerketa lan honek ikasten ikastearen garapenerako irakasleak martxan jartzen dituzten testuinguruak ebaluatzeko tresna bat proposatzea du helburua. Atal honetan tresnaren eraikuntzan jarraitutako azterketa kuantitatibo eta kualitatiboak deskribatuko dira. Neurketa edo ebaluaziorako tresnen ezaugarri nagusiak fidagarritasuna eta baliotasuna dira (Carmines eta Zeller, 1987). Beraz, ondorengo orrietan, bi ezaugarriok betetzen dituen galdetegia sortzeko jarraitutako prozesua eta urratsak deskribatzen dira.

Urrats hauen helburua galdetegiaren fidagarritasun eta baliotasuna ziurtatzea da. Fidagarritasunak adierazten digu galdetegia, behin baino gehiagotan erabilia, estimatzaile tinkoa dela; hau da, ondorio berdinetara garamatzala (Abad, Olea, Ponsoda eta García, 2011). Fidagarritasun azterketak, sortutako galdetegiarekin neurketa, neurketa-errore handiarekin edo txikiarekin egiten dugun esaten digu.

Baliotasuna alderdi garrantzitsuenetako bat dela esaten digu Meneses-ek (2014), garrantzitsuena ez bada. Zer da baina baliotasuna? Galdetegiak neurtu nahi duena neurtzen duela adierazten du. Baliotasun prozesua galdetegiak neurtzen duenaren interpretazioarekin lotutako ebidentzia biltzeko ikerketa prozesu gisa ulertzen da (Abad eta beste batzuk, 2011). Baliotasuna konprobatzeko bost ebidentzia iturri ditugu, *American Psychological Association*-en (hemendik aurrera APA) 1999ko edizioan jasotzen denaren arabera (Meneses, 2014): (1) Galdetegiaren edukian oinarritutako ebidentziak, (2) erantzuterakoan jarraitzen den prozesuan oinarritutako ebidentziak, (3) galdetegiaren barne egituran oinarritutako ebidentziak, (4) beste aldagai batzuekin harremanean oinarritutako ebidentziak eta (5) galdetegia erabiltzearen ondorioak.

Galdetegiaren edukian oinarritutako ebidentziak: galdetegia osatzen duten itemek eta aztertu edo baloratu nahi denak duten harremanari egiten dio erreferentzia. Hau da, galdetegia osatzen duten itemak esanguratsuak (galdetzen den hori zuzenki

harremanetan dago neurtu nahi denarekin) eta ordezkaritza handienekoak (egiten diren galderak neurtu nahi den guztiaren lagin egoki bat izan behar du) (Kane, 2006) dira aztertu nahi den konstruktua kontutan izanik. Izan ere, konstruktua hauek ezin dira zuzenean behatu edo neurtu, baizik eta modu ez-zuzenean neurtzen diren azpiko propietateak dira. Hori dela eta, galdetegia osatzen duten itemek baloratu nahi den konstruktua arteko harremana jasotzea da baliotasun ebidentzia honen xedea. Orokorrean, galdetegia sortzerakoan jasotzen dira ebidentzia hauek.

Sireci-k (1998) dioena kontutan hartuz, galdetegi baten eraikuntzan, lehenik eta behin, neurtu nahi dena definitzea ezinbestekoa da. Ondoren, zehaztasunetara jaitsi, hau da, itemak idatzi. Abad eta beste batzuk (2011), ahalik eta item posible gehien sortzea proposatzen dute. Behin, itemak idatzita, gaian adituak direnengana jo behar da beraiek epaile lanak egiteko. Aditu hauek galdetegiaren eraikuntzan parte-hartzaile ez direla kontutan izan behar dugu, alborapenik egon ez dadin. Adituen balorazioak bakarka egitea gomendatzen dute, berriz ere alborapenak ekidin aldera. Balorazioak eskuratu ondoren itemak hautatu behar dira. Zalantzarriak diren itemekin, alde batera utzi aurretik, talde eztabaidak burutzea gomendatzen da.

Erantzuterakoan jarraitzen den prozesuan oinarritutako ebidentziak: Item bat erantzuteko beharrezkoak diren ekintza guztiak kontutan hartu behar dira; hala nola, galderak irakurtzea, ulertzea, erantzuna erabakitzea eta erantzuna ematea (Meneses, 2014). Erantzunak baldintzatzen dituzten faktore desberdinak daude: itemekin lotutakoak (itemaren edukia, itemaren idazketa, itemaren baliotasuna), itemaren erantzunarekin lotutakoak (erantzuteko eskaintzen den aukera aniztasuna eta galdetegia osatzeko ematen diren jarraibideak) eta pertsonarekin lotutakoak (galdetegia erantzuten duten kidearen ezaugarri pertsonalak).

APA-k (1999) erantzuna ematerakoan burututako prozesuan oinarritutako galdetegiaren baliotasuna zehazteko honako hauek proposatzen ditu: elkarrizketa, ahozgorako pentsamenduan oinarritutako teknikak edota elkarrizketa kognitiboak. Lan honetan, elkarrizketa kognitiboak burutu dira.

Galdetegiaren barne egituran oinarritutako ebidentziak: Item guztiak garrantzi bera daukatela pentsatzea ez da egokia, gerta baitaiteke konstruktua neurtzerakoan, item guztiek ez izatea garrantzia berdina. Barne egitura dimentsio bakarrekoa edo dimentsio anitzekoa izan daiteke. Batez ere analisi faktorialaren bidez burutzen da eta itemen arteko harremanak eta neurtu nahi dugun konstruktutik abiatuta, burututako hipotesiak betetzen dituzten aztertzen du (Abad eta beste batzuk, 2001). Analisi faktorialak lagunduko digu zehazten itemek faktore bakarrari (dimentsio bakarrekoa) egiten dioten ekarpena edo hainbat faktoreri (dimentsio anitzekoa) (Meneses, 2014).

Beste aldagai batzuekin harremanean oinarritutako ebidentziak: galdetegiak neurtu nahi duen konstruktua eta neurtzen diren beste konstruktuen arteko harremana marko teorikoak iradokitako berdina den aztertzen da. Interesatzen zaigun konstruktua neurtzen duen beste galdetegi bat erabiltzea gomendatzen da, beti ere, galdetegiaren fidagarritasuna eta baliotasuna ezaguna izanik.

Ebidentziak bi motakoak izan daitezke: baliotasun konbergentea edo baliotasun diskriminatzailea. Aurreikusten diren harremanak antzekoak direnean baliotasun konbergentea izango da; aldiz, desberdinak direnean, baliotasun diskriminatzailea. Gehien aurkitzen diren lanak baliotasun konbergentea bilatzen dutenak dira (Abad eta beste batzuk, 2011).

Bi lan mota proposatzen dira galdetegiaren puntuazioaren eta beste aldagai batzuen arteko harremanaren inguruko informazioa biltzeko. Alde batetik, konparaketa

lanak egiten dira, testa betetzen duten subjektuak taldekatuz, beraien puntuazioan eragina izan duten esku-hartzeen arabera. Beste alde batetik, galdetegi bat baino gehiago erabiliz ateratako puntuazioen korrelazioak biltzen dira. Korrelazio hauen bidez jakin dezakegu konstruktua berdina neurtzen den edo ez. Berdina neurtzen dela aurreikusten bada, bilatu nahi den ebidentzia baliotasun konbergentearena da. Aldiz, ebidentzia diskriminatzailea bilatu nahi denean, hipotesia konstruktua desberdinak neurtzen dituztela izan behar da (Abad eta beste batzuk, 2011).

Galdetegia erabiltzearen ondorioak: Galdetegiaren erabileraren ondorioak agerian utzi behar dira. Galdetegiaren gehiegizko erabilerak edo erabilera okerrak, adibidez, eragina izango du bere baliotasunean, izan ere erantzuna baldintzatuta egongo da.

15. Taulan jasota daude ebidentzia iturriak eta gure lanean erabiliko ditugun bideak berauek ziurtatzeko.

15. Taula:

Baliotasun ebidentziak.

EBIDENTZIAK	Galdetegiaren edukian oinarritutakoak	Erantzuterakoan jarraitzen den prozesuan oinarritutakoak	Barne egituraren oinarritutakoak	Beste aldagai batzuekin harremanean oinarritutakoak	Galdetegia erabiltzearen ondorioak
GURE LANEAN	-Azterketa teorikoaren ondorioz konstruktua definitu -Delphi N= 15	Elkarrizketa kognitiboa N=10	Faktore-analisi esploratzailea (FAE) N=208 Berrezpenezko faktore-analisia (BFA)N=209	-Taldea desberdinen arteko konparazioaren bidez (ikasten ikastearen inguruko formazio plana) baliotasun diskriminatzailea -Konstruktua bera neurtzen duen beste galdetegi baten emaitzekin korrelazioen bidez baliotasun konbergentea	Ez da burutuko

5.1. Lan honen garrantzia

Aurretik eginiko lan teorikoan ikusi ahal izan dugunez, ikasten ikastea kompetentziaren garapena graduiko ikasketetan errazteko irakasleek eskaini beharreko testuinguruek ezaugarri konkretu batzuk izan behar dituzte.

Irakasleak bere praktika edo bere egite profesionala zenbateraino bat datorren ezaugarri horiekin aztertzea, hobekuntzarako laguntza handia litzateke. Horretarako lagungarri litzateke testuinguru erraztatzaileen gakoak identifikatzea eta irakasleen eskura jartzea. Izan ere, bide horretatik praktika aztertu, hobekuntzak identifikatu eta martxan jartzeko aukera izan dezake irakasleak. Baina, ezaugarri horien ebaluazioa burutzeko, egundaino ez daukagu xede honetarako baliagarria den tresnarik.

Hori dela eta, irakasleek graduiko ikasketetan kalitatezko hezkuntza bermatzeko, ikasten ikastea kompetentziaren garapena erraztuko duten testuinguruaren ebaluaziorako tresna bat eraikitzea proposatzen da lan honetan. Irakaslearen praktikaren gaineko hausnarketarako tresna bat eskaintzeko.

5.2. Helburu eta hipotesiak

Lan honek helburu nagusi bat dauka:

- Ikasten ikastearen garapenean unibertsitateko graduiko irakasleek martxan jartzen dituzten testuinguru erraztatzaileak ebaluatzeko galdetegi baliagarri eta fidagarri bat sortzea.

Helburu nagusi honen baitan azpi-helburu hauek daude

- Galdetegiaren fidagarritasuna aztertzea.
- Galdetegiaren baliotasuna aztertzea.
- Denboran galdetegiaren egonkortasuna aztertzea: denboran mantentzen den fidagarritasuna.
- Korrelazioa daukaten beste aldagai batzuekin dauden harremanak aztertzea.

Hipotesiei dagokionean, honako hauek formulatu ditugu:

- **H.1.** Ikasten ikastearen garapena erraztuko duten irakasleek ikaskuntzan oinarritutako irakaskuntza hautematea izango dute, erabiliko dituzten metodologiek ikaslea ardatz eta aktibo izatea baimenduko dute eta esku-hartzeetan oso presente egongo da ikaskuntza autonomoa baimentzen duen metakognizioa. Prozesuan ikasteko giro positiboa sortzeari tartea eskainiko diete eta ikaslearen auto-kontzeptua eta barne motibazioari arreta jarriko diete. Irakasle lanarekiko atxikimendua duten irakasleak izango dira, ikasleen ikaskuntza esperientzia arduraz bizi dutenak.
- **H.2.** Galdetegiak neurtu nahi duen konstruktua neurtzeko zazpi faktoreko eredua izango da: ikaskuntza hautematea, metakognizioa, prestutasun emozionala, harremanak metodologia, ebaluazioa eta irakaslearen konpromisoa.
- **H.3.** Ikasten ikastearen garapenean irakasleak eskaintzen dituen testuinguru erraztatzaileak neurtzeko sortuko den galdetegia fidagarria izango da, bai denboran azaldu behar dena, baita, barne egiturari dagokiona.
- **H.4.** Ikasten ikastearen garapenean irakasleak eskaintzen dituen testuinguru erraztatzaileak neurtzeko sortuko den galdetegian puntuazio altuak lortzen dituzten irakasleek S-ATI-20 (Monroy eta beste batzuk, 2014) galdetegiaren ikaslearengan oinarritutako irakaskuntza ikuspegiarekin lotutako faktorean puntuazio altuak lortuko dituzte.
- **H.5.** Ikasten ikastearen garapenean, irakasleak eskaintzen dituen testuinguru erraztatzaileak neurtzeko sortuko den galdetegian, desberdintasunak agertuko dira ikasten ikastea kompetentziarekin lotutako erakunde estrategia duen eta ez dutenen taldeen artean.
- **H.6.** Ikasten ikastearen garapenean, irakasleak eskaintzen dituen testuinguru

erraztatzailerak neurtzeko sortuko den galdetegian, datu sozio-demografikoen araberrako desberdintasunak agertuko dira.

5.3. Ikerketa plangintza

5.3.1. 1. Fasea

Literatura aztertu ondoren eta ikerketarekin lotuta dauden aldagaiak identifikatuta, adostasun nahiko ikusi dugu 7 faktoretan antolatutako item ugari sortzeko, idazketa desberdinekin zein zehaztapen anitzekin. Ondorioz, lehen item bateria luzea osatua geratzen da. Bai faktoreen eraikuntzarako bai itemen idazketarako, dagoeneko baita aipatu ditugun hainbat galdetegi ere erreferentzia izan dira.

5.3.2. 2. Fasea

Behin lehen item bateria proposamena esku artean izanik, Delphi teknikaren bidez, itemak gaien aditu direnekin kontsultatu eta baloratu ditugu (Olaz-Capitán, 2010) galdetegiaren edukia aztertzeko. Hurrengo urratsa galdetegi pasatzeko prozedura zehaztea izan da eta hainbat elkarrizketa kognitibo (Smith eta Molina, 2011) egin dira galdetegi betetzerakoan martxan jartzen den prozesua aztertzeko.

5.3.3. 3. Fasea

Ikasten ikastearen galdetegiaren (Cuestionario Aprender a Aprender, CAA) analisi metrikoa ondorengo sei azterketa hauetan antolatu da.

- 1. azterketa: Itemen azterketa.
- 2. azterketa: CAAren dimentsionaltasunaren azterketa faktore-analisi esploratzailearen bidez.
- 3. azterketa: CAAren dimentsionaltasunaren azterketa berrezpenezko faktore-analisia bidez.
- 4. azterketa: CAAren fidagarritasun azterketa.
- 5. azterketa: Beste aldagai batzuekiko harremanetan oinarritutako ebidentziak

- 6. azterketa: Puntuazioan baremazio eta interpretazioa.

5.3.4. Ezaugarri orokorrak

Lan osoan mantentzen diren ezaugarri batzuk badaude eta horiek azalduko ditugu ondorengo lerroetan.

5.3.4.1. Ikerketa diseinua

Diagnostiko frogetarako balidazio ikerketa lan bat da.

5.3.4.2. Parte-hartzaileak

Populazio jakin bati dagozkion inferentziak egiteko, garrantzitsua da aukeratutako lagina populazioarekiko adierazgarria izatea (Etxeberria, 2004). Adierazgarritasun hori zaintzeko, kontutan izan behar ditugu, alde batetik, laginaren tamaina eta bestetik, laginaren aukeraketa.

Laginaren tamainari dagokionean, Lloret-Segura, Ferreres-Traver, Hernández-Baeza eta Tomás-Marco-ren (2014) irizpideak kontuan izanik, $n=400$ gutxienekoa zehaztu dugu. Laginaren aukeraketari dagokionean, laginketa ez ausazkora jo dugu, zehatzago esanda, laginketa akzidentalera. Datuak lortzeko erraztasun handiena ematen duten elementuak hautatu ditugu, erraztasun hitza zentzu zabalean kontsideratuta (Etxeberria, 2004).

Hori horrela, 415 irakaslez osatutako lagina osatu da: Mondragon Unibertsitateko 153 irakasle, Euskal Herriko Unibertsitateko 217 irakasle, Deustu Unibertsitateko 18 irakasle, Universitat de Vic-Universitat Central de Catalunya-ko 19 irakasle eta beste unibertsitate batzuetako (Universidad de Lleida, Universidad Politécnica de Valencia eta Universitat d'Andorra) 8 irakasle.

Onartzeko irizpideak: Momentuan, edozein gradutako ikasketetan irakasle izatea.

Baztertzeko irizpideak: Unibertsitateko irakasle lanetan ez aritzea, edota

ikerketan parte hartzeari uko egitea.

5.3.4.3. Aztergai diren aldagaiak

Orotara hogei aldagai neurtzen dira eta hiru taldetan aurkezten ditugu. Alde batetik, datu sozio-demografikoekin lotutako datuak ditugu. Lau aldagai leudeke atal honetan:

- **Sexua.** Bi kategoriarekin aurkezten dugu: emakumezkoa edo gizonezkoa.
- **Adina.** Hamar kategoriatan aurkezten da: 20-25, 26-30, 31-35, 36-40, 41-45, 46-50, 51-55, 56-60, 61-65, 66-70.
- **Maila akademikoa.** Bost kategorია aurkezten dira bere baitan: diplomatura, gradua, lizentziatura, master ofiziala eta doktorego ikasketak.
- **Titulazioa.** Hautatutako maila akademikoa zehazteko.

Bestalde, datu profesionalekin lotutako aldagaiak ditugu. Hamar aldagai daude atal honetan.

- Egun lanean diharduen **unibertsitatea**.
- Egun lanean diharduen **fakultatea**.
- Irakaskuntzan ari den **maila akademikoa**. Hiru kategoría aurkezten dira: gradua, masterra eta doktorego programa.
- Galdetegia betetzeko **erreferentzia izango den ikasgaia**.
- Ikasgai **mota**. Bi kategoriatan: derrigorrezkoa eta hautazkoa.
- Ikasgaiak duen **iraupena**, kreditu kopurua.
- Ikasgelan dauden **ikasle kopuruaren** hurbilpen bat.
- Ikasgaia irakasten den **titulu** edo ikasketa.
- **Lan antzintasuna** edo unibertsitatean irakasle gisa daramatzan urteak. Zazpi kategoría aurkezten dira: 0-5, 6-10, 11-15, 16-20, 21-25, 26-30, 30 baino gehiago.

Bukatzeko, ikasten ikastea kompetenziaren garapenerako unibertsitateko graduko ikasketetan irakasleek aktibatzen dituzten testuinguru erraztatzaileen eskaintzarekin lotutako aldagaiak ditugu. Aldagai hauek marko teorikoaren azterketa egin ostean definitu dira eta zazpi kategoria edo faktore proposatzen ditugu.

- 1. faktorea: Laguntza mota
- 2. faktorea: Metakognizioa
- 3. faktorea: Jarrera emozionala
- 4. faktorea: Harremanak
- 5. faktorea: Metodologia
- 6. faktorea: Ebaluazioa
- 7. faktorea: Irakaskuntzarekiko konpromisoa

5.3.4.4. Erabilitako tresnak

Ikerketa honetarako, berariaz sortutako ikasten ikastea galdetegia (CAA) erabili da.

Bestalde, baliagarritasunarekin lotuta, sortutako galdetegiak beste aldagai batzuekin duen harremanari dagozkion ebidentzia jasotzeko *Approaches Teaching Inventory*-ren (Trigwell eta Prosser, 1999) gaztelerazko bertsioa den Monroy, González eta Hernández-Pina-ren (2014) S-ATI-20 galdetegiaren (5. eranskina) faktore bat erabili dugu. Galdetegi honek irakaskuntza ikuspegiak aztertzen ditu eta bi faktoretan biltzen diren 20 itemek osatzen dute, faktore bakoitzean 10 item bilduz. Irakaslean oinarritutako irakaskuntza ikuspegi eta informazioaren transmisiorako estrategiak izena hartzen du faktore batek (TICP izendatua gaztelerazko bertsioan) eta ikaslearengan oinarritutako eta kontzeptu aldaketarako estrategiak izena hartzen du besteak (CCCE). Eskalaren fidagarritasuna ona da (CCCE: 0,869; TICP; 0,805) eta Trigwell eta beste batzuk (2015) esandakoa berresten dute (0,86 CCCE faktorearentzako eta 0,83 TICP

faktorearentzako). Lan honetako beharrei erantzuteko ikaslearengan oinarritutako irakaskuntza ikuspegiarekin (CCCE) lotutako 10 item erabili ditugu. Hona 10 itemak:

3. En mi interacción con los estudiantes, en esta asignatura intento desarrollar una conversación sobre los temas que estamos estudiando.
5. Reservo una parte del tiempo de clase para que los estudiantes puedan discutir entre ellos conceptos e ideas claves de esta asignatura.
7. Animo a los estudiantes a que reestructuren su conocimiento previo en función de la nueva forma de pensar sobre la asignatura que van a desarrollar.
8. En las sesiones de clase de esta asignatura deliberadamente provoco debate y discusión.
13. Facilito oportunidades para que los estudiantes discutan sus cambios de pensamiento y comprensión en relación con la asignatura.
14. Gran parte del tiempo dedicado a la enseñanza de esta asignatura tendría que ser utilizado para cuestionar las ideas de los estudiantes.
16. Veo la enseñanza como la forma de ayudar a los estudiantes a desarrollar nuevas formas de pensamiento sobre los temas trabajados.
17. Al enseñar esta asignatura es importante para mí supervisar los cambios de comprensión que experimentan los estudiantes en relación con los temas trabajados.
19. La enseñanza de esta asignatura tendría que ayudar a los estudiantes a cuestionar su propia comprensión de la asignatura.
20. La enseñanza de esta asignatura tendría que incluir el ayudar a los estudiantes a encontrar sus propios recursos de aprendizaje.

5.3.4.5. Etikoki kontutan hartzekoak

Parte-hartzea borondatezkoa izan da. Ikerketan parte-hartzeko lankidetzara eskaera bat luzatu da kasu guztietan eta nahi izan duenak parte hartu du.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, konfidentzialtasun osoa ziurtatu da, ikerketan parte hartzaileen datu pertsonalak zein beraien praktikaren inguruko datuak ez direla erabiliko ziurtatuz.

5.3.4.6. Hizkuntza trataera

Testua irakurtzen ari zaren hori konturatuta zaude ikerketa txosten hau euskaraz idatzita dagoela, baina, galdetegi bera gazteleraz eraikia izan da. Itemak gazteleraz formulatu dira hasieratik prozesuan estatuko adituekin kontsulta egin nahi izan dugulako. Hori dela eta, lehenengoz, itemen formulazioa gazteleraz egin behar izan dugu eta baita jarraian datorren prozesu guztia. Behin fidagarria den eta baliotasuna duen gaztelerazko bertsioa esku artean izanik, etorriko litzateke euskarazko bertsioa osatzeko prozesua. Hori horrela, hemendik aurrera azalduko diren ataletan, galdetegiaren atalak aipatzerakoan gaztelera erabiliko da.

6. TRESNAREN ERAIKUNTZA ETA BALIDAZIO FASEAK

6.1. I. fasea: marko teorikotik eratorritako galdetegiaren lehen proposamena

Atal honetan azalduko dugu lehen galdetegi proposamenera iristeko eginiko bidea. Alde batetik, bibliografiaren errebisioa egin ostean beharrezko edo garrantzitsua den informazioa aukeratu dugu. Bestalde, eraikiko den galdetegi mota aukeratu eta egingo diren galdera mota eta puntuazio zein eskala ere finkatu da. Ondorioz, kanpora aurkezteko galdetegiaren lehen bertsioa osatu da.

6.1.1. Faktoreen definizioa eta item bateria (1. proposamena)

Faktoreak definitzerakoan, marko teorikoa izan da oinarri nagusia eta baita aurretik eginiko ikerketa zein dagoeneko sortu eta erabiltzen diren galdetegiak (marko teorikoaren azken puntuan aipatutakoak). Item bateriari dagokionez, ahalik eta item gehien zerrendatu da, zehaztaperen ahalik eta gehien jaso nahian.

6.1.2. Marko teorikoaren errebisiotik eginiko lana

6.1.2.1. Proposatutako faktoreak

Ikasten ikastearen garapena errazten duten testuinguruak neurtzeko edo azaltzeko, faktoreak definitzea da ondorengo lerroen asmoa.

Aztertutako markoan hainbat ertzetatik heldu diogu ikasten ikastearen garapenerako baldintzei. Ikusi dugu ertz horiek nolako baldintzak eskaini behar dituzten edo, zein baldintza diren lagungarriagoak garapena errazteko, edo gutxienez ez oztopatzeko.

Beraz, orain arte bildutako ebidentzietan oinarrituta, irakasleak kontutan izan behar dituen alderdiak azalduko ditugu, zazpi faktoretan antolatuta. Hauek dira zehaztu ditugun faktoreak: laguntza mota, metakognizioa, jarrera emozionala, harremanak, metodologia, ebaluazioa eta irakaslearen konpromisoa. Faktore hauen deskripzioak adierazten digu alderdi bakoitzean kontutan hartu beharrekoak, alegia, faktore bakoitza egikaritzearen nolakotasuna azalduko dugu.

1. faktorea: Laguntza mota

Irakasleak ikaste-irakaste prozesuarekiko egiten duen kokapena, duen ikaskuntzarekiko hautematea eta ondorioz, ikuspegia da. Irakasleak dituen hautemate eta sinesmenek irakaslearen ekitean eragina dauka (Kember eta beste batzuk, 1997; Trigwell eta beste batzuk, 2005), eta azken honek ikasleen ikasteko moduetan (Bolívar, 2013; Gargallo eta beste batzuk, 2010). Irakaslearen eskaintza erraztatzailea izateko, irakaskuntza ikuspegia, ikaslean oinarritua egon behar da (Entwistle, 1997; Feixás, 2010; Ramsden eta beste batzuk, 1997). Beraz, irakasleak bere hautemateak errebisatu behar ditu eta ikaslean oinarritutako hautemate batera gerturatu behar da.

Zein izan behar du ikaskuntzaren inguruko ulerkera? Ikastea norbanakoak, besteekin (McCormick eta James, 2007), esanahiak eraikitzea da (Bruner, 1991). Ezagutza irakasle eta ikasleen artean eraikitzen den zerbait da, ez liburu zein diziplinetan bilduta dagoen zerbait (Gargallo, 2011). Ezagutza eraikuntza sozial eta negoziatu bat da eta ezagutza hori antolatu eta eraldatzearen ardura irakasle zein ikaslearena izan behar da (Aznar-Minguet, 1992).

2. faktorea: Metakognizioa

Aurretik definitu dugun moduan, norbanakoak bere prozesu edo produktu kognositiboetaz (Segura, 2009) , edo harremana duten beste aldagai batzuetaz duen ezagutza da (Flavell, 1979), meta-ezagutza ere deitua. Ikaskuntzaren auto-erregulazioari bide ematen dio eta sakoneko ikuspegian aritzeko beharrezkoa da (Aznar-Minguet, 1992).

Ikaskuntza autonomia sustatzen du (Van der Stel eta Veeman, 2010), ikasleari ikastun gisa bere buruaren ezagutzan laguntzen baitio. Ondorioz, ikaskuntzaren auto-kudeaketarako aukerak handitzen dira. Ikasleak helburuak ezarri, hauen lorpenerako prozesuak planifikatu, prozesuen garapena erregulatu eta ebaluatzeko gaitasuna garatu beharko ditu auto-kudeaketa posible izan dadin (Villardón eta beste batzuk, 2013). Horretarako aukerak eskaini beharko ditu irakasleak bere eskaintzetan.

Metakognizioa edo ikaskuntzaren auto-erregulazioan eragiteko sortu beharreko aukerak hainbat dira, eta faktore honen baitan, horiek barnebildu ditugu. Alde batetik, idazkuntzaren garrantzia daukagu, izan ere, testu idatziak prozesu metakognitiboak martxan jartzea eskatzen du eta arrazoinamendurako laguntzazko funtzioa betetzen du (Martín, 2008).

Bestalde, galderaren erabilera sistematikoa daukagu. Metakognizioaren garapena bultzatzen du, galderak egiten denaren gaineko hausnarketa bultzatzen du eta (Cope eta Staerh, 2005; García, 2011). Ikaskuntza prozesuaren gaineko kontrola izateak laguntzen du auto-erregulazio akademikoa garatzen (Tavakolizadeh eta Ebrahimi, 2011). Horrela, ikaslea bihurtzen da bere ikaskuntzaren arduradun nagusi.

Bukatzeko, ikaskuntza prozesuaren erregulazioa burutzeko edo ikastun moduan prozesuan zeharreko urrats desberdinetan egindakoaren eta egitekoaren inguruko ezagutza izateko, lagungarriak dira estrategia batzuk menperatzea. Gargallo-ren (2012)

lanean jasotakoa ekarriz, estrategia metakognitiboak erregulaziozkoak eta kontrolezkoak dira. Aurretik definitu dugun moduan ezinbestekoak dira, ezagutza (pertsona beraren, eskuragarri ditugun estrategien, trebetasun eta mugen, ekintzaren helburu eta ekiteko testuinguruaren ezagutza) eta kontrola (planifikazio estrategiak zein ebaluazio, kontrol eta erregulazio estrategiak). Ikasle bakoitzak berarentzat egokienak diren ikaste estrategiak erabili behar ditu (Hoskins eta Fredrikson, 2008), baina, horretarako aukera anitzak izan behar ditu frogatu eta aukeratzeko (Bain, 2007; Zabalza, 2009; Gargallo, 2012).

3. faktorea: Jarrera emozionala

Faktore honen baitan, irakasleak ikasteko beharrezkoa den prestutasun emozionala (Santos Guerra, 2007; Zabalza, 2009) eskaintzeko kontutan hartu beharrekoen inguruan arituko gara. Marko teorikoan oinarrituta, errespetuan oinarritutako hezkuntza giroa bermatu beharko genuke (García, 2011). Izan ere, horrek pertsona onartua sentitzea erraztuko du eta bere gaitasunetan sinesteko aukerak emango dizkio (García, 2011). Era berean, giro abegikorra eskaini behar da eta ikastea plazerra dela eta plazerra sentitzeko aukerak bizi behar ditu ikasleak. Giro honetan eragiteko, irakasleak egoteko eta hitz egiteko moduari erreparatu behar dio, ikasleengan dituen ondorioak neurtuz (Bain, 2007).

Horretarako, espektatiba positiboak baldintzagarriak dira. Ikasleak sentitu behar du konfiantza dagoela berekiko eta ekiteak mereziko duela (Zabalza, 2009). Izan ere, testuingurutik jasotzen duen informazio mota honek bere auto-kontzeptu akademikoa eraikitzen lagunduko dio. Auto-kontzeptu akademikoa ikastun moduan duen irudia da eta baldintzatuko du ikastun moduan hartuko den bidea. Esan bezala, auto-kontzeptuaren eraikuntzan testuinguruak eragin zuzena dauka. Ikaskuntzaren kontrola ikasleari gradualki emanaz (Coll eta beste batzuk, 2012; Suárez eta Fernández, 2011),

ikasleak gaitzen dira; eta horretarako esperimentazioa beldur barik baimentzen den eta ikasleak aske sentitzen diren testuinguruak lagungarriak dira (ITE, 2012). Ikaskuntza prozesuan bizi dituen arrakasta eta porrotek, adibidez, eragin nabarmena daukate. Irakasleari dagokio egozpenak bere kontrolpean dauden eta moldagarriak diren kausei egiten laguntzea (Bolívar, 2009a; Gil eta beste batzuk, 2009; Suárez eta Fernández, 2011).

Ikaslea auto-eraginkorra sentitu behar da. Zenbat eta eraginkorrago sentitu bere burua orduan eta konfiantza gehiago izango du etorkizunean eragiteko gaitasunean. Gainera, altuagoak izango dira bere buruari ezarriko dizkion erronkak eta baita handiagoa ere berauekiko konpromisoa (Martín eta Moreno, 2007). Era berean, motibazioa ere estuki lotuta egongo litzateke auto-eraginkortasunarekin (Efklides, 2011; Hoffman eta Spartariu, 2008), motibazioak ikaslea gauza bat egiteko gai dela sinestea ekar baitezake.

Barne motibazioa bilatu beharko luke irakasleak bilatzen gabiltzan testuinguru erraztatzailea lortze bidean (Mas eta Medina, 2007; Pintrich, eta de Groot, 1990). Izan ere, barne motibazioak norbanakoaren gaitasun eta autodeterminazio sentimendua handitzen du (Eysenck, 1985).

Ikaste prozesuan sortzen diren sentimenduekin lotuta, ikaskuntza erraztu, mantendu edo ekiditen duten emozioen inguruan hausnartu behar da gelan, ikasleari alderdi hauen inguruko ezagutzan (Martín, 2008) eta garapenean laguntzeko.

4. faktorea: Harremanak

Gelako giro positiboa sortzearekin, elkarrekin ikastearekin eta ikasle zein irakasleekin dituen harreman motekin lotutako alderdiak biltzen dira hemen. Irakasle eta ikasleen arteko harreman positibo eta gertutasuna bilatu behar da, honek ikaskuntzarekiko ardura baitauka (García, 2011). Bi norabidetako komunikazioa

ezinbestekoa da harreman mota hauetarako (Bain, 2007; Suk, 2005). Ikasleei hitz egiten utzi behar zaie, beraien parte-hartzearen arduradun eginez. Esanahiak partekatzen direla ziurtatzea kontutan hartu behar den beste aldagai bat da (Coll eta beste batzuk, 2012; Onrubia, 1995).

Ikasleekiko eta hauen gaitasunekiko ikuspegi baikorra izatea eta pertsona heldu, aktibo eta arduratsuak direla sinetsita eraikitzen dira harremanak. Erronkak bilatzen dituzten elkarrekintzak bilatu behar dira (Borbowski eta beste batzuk, 2005; Mas eta Medinas, 2007). Ezinbestean, ardurak eman behar zaizkio ikasleari (García, 2011; López de Maturana, 2010a), konpromisoa bilatu behar da (Bain, 2007). Ikaskuntza, partaide diren eragile guztien ardura da eta partekatzen den horrekiko elkarrekintzak arduratik planteatu behar dira, lankidetzaren harremanak, alegia. Harreman marko honetan, ikasleek entzunak direla sentitu behar dute, esaten dutenarekiko eta egiten edo direnarekiko interesa adieraztea dakar honek (Bain, 2007; Cid eta beste batzuk, 2009; Suk, 2005), benetako interesa.

Harremanei erreferentzia egiterakoan, ikasleen arteko elkarrekintzak ere kontutan hartu behar ditugu. Ikasleen arteko elkarrekintza egoerak sortu eta mantendu behar dira, giroan eragina dute eta (García, 2011).

5. faktorea: Metodologia

Konpetentzietan ikaslearen arrakasta bermatuko duten gelako praktikari dagokion alderdiari egingo diogu erreferentzia faktore honetan. Metodologia aktiboak aipatuko dira, ikaslea ardatz duten planteamenduak, markoan esandakoa oinarri hartuta. Ikaslea bere praktikaren gainean kritikoki hausnartzen jartzen duen metodologia izango da lagungarriena (Aznar-Minguet, 2012). Oinarrizko baldintza batzuk badaude ikaslea aktiboki inplikatzeko ekarriko dutenak; hala nola, bilaketak egin behar izatea,

esperimentatzea, hausnartzea, aplikatzea zein komunikatzea. Horretarako, irakasleak hainbat alderdi izan behar ditu kontutan proposatu nahi duena erraztatzaileraz izateko.

